

# 2015 BAROMETROA

Atzerriko immigrazioaren inguruko  
pertzepzioak eta jarrerak



ENPLEGU ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SALA  
Familia Politikako eta Komunitate  
Garapenerako Zuzendaritza  
DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES  
Dirección de Política Familiar  
y Desarrollo Comunitario



ikuspegi

Immigrazioaren Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco de Inmigración



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea





## 2015 BAROMETROA

Atzerriko immigrazioaren inguruko  
pertzepzioak eta jarrerak



**ikuspegi**

Immigrazioaren Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco de Inmigración

**2015** Barometroa [Recurso electrónico] : atzerriko immigrazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak / Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokiak [egindakoa]. – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2016. – 1 recurso en línea : PDF.  
Modo de acceso: World Wide Web.  
ISBN: 978-84-9082-382-8.

1. Inmigrantes – Opinión pública. 2. Inmigrantes – País Vasco – Siglo XXI. 3. País Vasco – Emigración e inmigración – Siglo XXI. I. Ikuspegi, Observatorio Vasco de Inmigración.

(0.034)314.7 (460.15)

(0.034)325.1 (460.15)

*Argitaraldi elektronikoa*

Argitaraldia: 2016ko martxo

Argitaratzailea: Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia

Diseinua: Taide Arteta, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia

Dokumentazioa: Antonio Gómez, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia

ISBN: 978-84-9082-382-8

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

# Aurkibidea

|  |     |
|--|-----|
| Sarrera  | 5   |
| Metodologia  | 7   |
| 1. Kopuruak  | 9   |
| 2. Atzerritarrei buruzko iritziak eta jarrerak                                 | 15  |
| 2.1. Etorkinen presentziaren pertzepzioa: bolumena                             | 15  |
| 2.2. Etorkinen presentzia arazotzat hautematea                                 | 20  |
| 2.3. Euskal gizartean duen eragina   | 25  |
| 2.4. Harrerako komunitatearen eta etorkinen arteko bizikidetza eta integrazioa | 40  |
| 2.5. Immigrazio-politika   | 70  |
| 3. Immigrazioaren aurreko Tolerantzia-Indizea: tipologia bat                   | 77  |
| 4. Euskal biztanleriaren talde handiak   | 89  |
| 5. Ondorioak   | 101 |
| Eranskina  | 103 |
| Eranskina: Galdetegia  | 107 |
| Eranskina: Grafikoa  | 114 |



## Sarrera

“Atzerriko immigrazioarekiko jarrera eta pertzepzioak EAEn” azken barometrotik urtebete igaro den honetan, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak egindako 2015eko Barometroaren emaitzak aurkeztuko ditugu ondoren. María José Martín Herrero, José Antonio Oleaga Páramo, Gorka Moreno Márquez, Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe, Maite Fouassier Zamalloa, Iraide Fernández Aragón, Julia Shershneva eta Beatriz Otero Gutiérrez arduratu dira 2015eko Barometroaz. Horiez gain, Taide Arteta Esnal arduratu da txostena lantzeaz, eta Antonio Gómez Parada dokumentazio eta bibliografia euskarriaz.

Txosten hau eginda, helburu hauek bete nahi izan ditugu:

1. 2015eko barometroaren datuak aurkeztea. Euskal gizarteak atzerriko immigrazioarekiko dituen jarrera, sinesmen, iritzi, balio eta abarren deskribapen panoramikoak jasotzen du barometroak, eta immigrazioarekiko jarrera hobekien azaltzen duten aldagai soziodemografiko garrantzitsuenak nabarmentzen ditu.
2. Jarrera eta iritzi horien bilakaera aztertzea, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak 2004. urteaz geroztik egindako barometroak oinarritzat hartuta. Hain zuzen, gaur egungo barometroen aurrekaria izan zen 2004an egindako lehen barometro hura, eta 2007az geroztik urtero egiten da, metodologia eta eduki aldetik gaur egungo formatuari jarraituz.
3. Krisi garaian edo ekonomiaren goranzko zikloaren amaieran jarrera eta pertzepzio horiek okerrera egingo zutela iragartzen zutenen iritzia edo ustea zenbateraino betetzen den ala ez detektatzen saiatzea.
4. Azpimarratu egin behar da EAEko biztanleria-taldeetan jarrera-alde esanguratsuak ezarri ahal diren arren, antzekotasunak desberdintasunak baino ugariagoak direla: aldagai soziodemografikoek desberdintasunetako batzuk baino ez dituzte azaltzen, eta alde horiek pertsonen artekoak dira gehiago, taldeen artekoak baino. Oro har, biztanle gehienak anibalenteak dira (diskurtso kontrajarriak ditugu) eta taldeen artean dauden desberdintasunak ez dira muturreko jokabideen adierazgarri; aitzitik, gehiago dira ñabardurazko edo intentsitatezko aldeak. Hori ondorioztatzen da, halaber, 2007tik hona egindako immigrazioarekiko tolerantzia-indizearen azterketetatik.

5. Euskal populazioaren tipologia bat eraikitzea, zenbait talderen artean nabarmendu ditugun eta estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak adierazteko; baina, era berean, azpimarratzea, gure tolerantzia-indizearen arabera, desberdintasun horiek taldeen arteko intentsitate-desberdintasunak direla, baina ezin dela esan muturreko talde kontrajarririk edo polarizaturik dagoenik. 2014ko datuekin alderatuta, tolerantzia-indizeak euskal gizartearen irekitze-mailaren hobekuntza adierazten du.

2015eko Barometroa txostena bost zatitan egituraturik dago:

- Lehen zatian, EAEko bertako biztanleei eta etorkinei buruzko **informazio objektiboa** aurkezten da, nazionalitateen eta haien bilakaeraren arabera. Lehen zatian, EAEko bertako biztanleei eta etorkinei buruzko informazio objektiboa aurkezten da, nazionalitateen eta haien bilakaeraren arabera. Eta egoera hori estatuko gainerako erkidegoetan gertatzen ari diren aldaketekin alderatzen da.

Azken urteetan, eta nazionalizazio-prozesuen harira, EAEn bizi diren atzerritar batzuek bertako nazionalitatea eskuratu dute eta, ondorioz, ez dira atzerritartzat agertzen estatistiketan. Horrexegatik, 2014az geroztik jaioterriaren aldagaia erantsi dugu, migrazio-fenomenoaren ideia zehatzagoa eskuratzeko asmoz.

- Bigarren kapituluan **informazio subjektiboa** aztertzen da: bertoko herritarrek immigrazioaren aurrean dituzten iritzi eta jarrerak. Gai nagusiak bost blokeren inguruan egituratu dira: bolumenaren pertzepzioa, immigrazioa arazotzat hartzea, immigrazioak euskal gizartearen ondorioak (ekonomikoak, ongizateari lotutakoak, hizkuntzaren erabilera eta garapena, euskal nortasuna eta harremanen garapena), bizikidetza eta harrerako komunitatearen eta immigratzaileen bat-egitea, eta immigrazio-politika.
- Hirugarren atalean, bertakoen tolerantzia-indizea aztertu dugu, pertzepzio eta jarrerei buruzko azterlanean jasotako datuetan oinarrituta.
- Laugarren kapituluan, euskal gizartearen dauden talde handiak aurkeztu ditugu laburbilduta, tolerantzia-indizea eta identifikazioarekin loturiko aldagaiak aintzat hartuta.
- Azkenik, bosgarren kapituluan, ondorio nagusiak aurkeztu ditugu, laburtuta.

2015eko barometroaren datuak 2014koarenak baino hobeak dira eta, hein batean, krisi ekonomikoaren hasierako jarreraren eta iritzien mailan koka daitezke. 2015eko Barometroa egiteko, egokitutako jo dugu berrikuntza batzuk txertatzea, eta bi galdera berri nabarmendu nahi ditugu horien artean: bata, meskiten irekieraren aurreko tolerantzia-mailari lotutakoa eta, bestea, immigrazioarekiko tolerantzia-mailari buruz dugun pertzepzioari lotuta. Era berean, “zifrak” atala aldatu da eta, “atzerriko nazionalitatea” aldagaiaren ordez, “jaiotza-herrialdea” ageri da orain. Aldaketa horri eutsi egingo diogu etorkizuneko Barometroetan, EAEko migrazio-fenomenoaren errealitatea zehaztasun handiagoz islatzeko.



## Metodologia

Euskal gizarteak immigrazioaren inguruan dituen jarrera, sinesmen eta pertzepzioei buruzko txostena da 2015eko barometroa, eta diseinu metodologiko kuantitatibo batetik abiatuta egin da. Erdi egituratutako galdera-sortaren teknika erabili dugu (txosten honen amaieran jaso dugu galdera-sorta hori), eta eskura banatu ditugu galdetegiak. Urtero egiten dugu barometroa, helburu nagusi hauekin: EAEn immigrazioaren fenomenoari buruz gehiago jakitea, euskal gizarte osoari gai horren inguruko informazioa ematea, eta, azken batean, fenomeno sozial hori kudeatzen lan egiten duten pertsona eta erakunde guztiei immigrazioari buruzko ezaguera sakonagoa izaten laguntzea.

Horretarako, 1.113 inkestako lagin bat diseinatu genuen ( $EE = \% 95$ ,  $\sigma = 1,96$  eta Akatsa  $\pm \% 2,94$ ). 371 Araban egin genituen ( $\pm \% 5,08$ ), 363 Gipuzkoan ( $\pm \% 5,14$ ) eta 379 Bizkaian ( $\pm \% 5,03$ ). Etxez etxeko banakako inkestak egin genizkien EAEn bizi ziren (bertako populazioa) 18 urtetik gorako pertsonen, eta aukeratutako laginketa habitat-tamainan, adinean eta sexuan oinarritutako kuoten arabera esleipen proportzionalaren bidez estratifikatutakoa izan zen.

Etxeen aukeraketa ausazko ibilbideen sistemaren bidez egin zen, 29 udalerritan banatutako 61 laginketa-puntutan (6 Araban, 11 Gipuzkoan eta 12 Bizkaian). Txosten honetan, gainera, osotasunean garatuko dugu 2015eko barometroko informazioa, eta azpimarratu egingo dugu euskal biztanleria bereizten duten aldagaiak aurkitzearekin eta gure herrialdean immigrazioaren fenomenoaren hobeto ulertzen lagunduko diguten tipologiaren lanketarekin lotutako guztia.



# 1. Kopuruak

2015eko urtarrilaren 1ean, EAEn erroldatutako biztanleen % 8,4 atzerrian jaiotakoak dira (184.197 lagun). Datuon bilakaerari erreparatuta, duela bederatzi urte, 2006an, 108.094 lagun ziren jatorriz atzerritarrak EAEn. Bederatzi urte geroago, % 70,4 handitu da biztanleria atzerritarra (1. taula).

Lurralde historikoen artean, orain arte moduan Bizkaia da erroldatutako biztanle gehien dituen, 41.980 lagun, eta atzetik daude Gipuzkoa (29.743) eta Araba (34.037).

1. taula. Atzerrian jaiotako biztanleria EAEn, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera. 2006 eta 2015

|          | 2006      |   |             |      |              |      | 2015      |   |             |      |              |      |
|----------|-----------|---|-------------|------|--------------|------|-----------|---|-------------|------|--------------|------|
|          | Guztira   |   | Gizonezkoak |      | Emakumezkoak |      | Guztira   |   | Gizonezkoak |      | Emakumezkoak |      |
|          | K         | % | K           | %    | K            | %    | K         | % | K           | %    | K            | %    |
| Estatua  | 4.837.622 |   | 2.532.756   | 52,4 | 2.304.866    | 47,6 | 6.162.932 |   | 3.031.711   | 49,2 | 3.131.221    | 50,8 |
| EAE      | 108.094   |   | 53.479      | 49,5 | 54.615       | 50,5 | 184.197   |   | 88.998      | 48,3 | 95.199       | 51,7 |
| Araba    | 19.717    |   | 10.395      | 52,7 | 9.322        | 47,3 | 34.037    |   | 17.275      | 50,8 | 16.762       | 49,2 |
| Bizkaia  | 55.516    |   | 26.623      | 48,0 | 28.893       | 52,0 | 89.253    |   | 41.980      | 47,0 | 47.273       | 53,0 |
| Gipuzkoa | 32.861    |   | 16.461      | 50,1 | 16.400       | 49,9 | 60.907    |   | 29.743      | 48,8 | 31.164       | 51,2 |


Atzeritarren ekarpena funtsezkoa da demografian (2. taula). 1998tik 2015era, 67.234 lagun gutxiago daude bertokoen artean, baina biztanleria osoak gora egin du eta 90.629 lagun gehiago bizi dira EAEn. Atzeritik 157.863 lagun etorri direlako gertatu da hazkunde demografiko positibo hori. Beraz, etorkinen kopurua handitu egin denez, hazi egin da biztanleria oro har, baita biztanleria atzeritarra ere; EAEn, biztanleria osoaren % 8,4 da atzeritarra, eta Espainian, berriz, % 13,2.

Jatorriz atzeritarra den biztanlerian azken urtebetean izan den bilakaerari dagokionez, 2014 eta 2015 urteen artean (1. grafikoa) EAEn gora egin du (% 1,6); igoera izan duen Estatuko autonomia-erkidego bakarra da.

2. taula. Bertako biztanleriaren eta atzerrian jaiotako biztanleriaren bilakaera EAEn, eta atzerrian jaiotako ehunekoak EAEn eta Espainian. 1998-2015

|           | Guztira   | Bertakoa  | Atzerrian jaiotakoa |            |      | Atzerrian jaiotakoen tasa |          |
|-----------|-----------|-----------|---------------------|------------|------|---------------------------|----------|
|           |           |           | K                   | Hazkundera |      | EAE                       | Espainia |
|           | K         | K         |                     | K          | %    | %                         | %        |
| 1998      | 2.098.628 | 2.072.294 | 26.334              |            |      | 1,3                       | 2,9      |
| 1999      | 2.100.441 | 2.071.418 | 29.023              | 2.689      | 10,2 | 1,4                       | 3,1      |
| 2000      | 2.098.596 | 2.063.453 | 35.143              | 6.120      | 21,1 | 1,7                       | 3,6      |
| 2001      | 2.101.478 | 2.057.655 | 43.823              | 8.680      | 24,7 | 2,1                       | 4,8      |
| 2002      | 2.108.281 | 2.052.413 | 55.868              | 12.045     | 27,5 | 2,6                       | 6,2      |
| 2003      | 2.112.204 | 2.044.675 | 67.529              | 11.661     | 20,9 | 3,2                       | 7,7      |
| 2004      | 2.115.279 | 2.037.073 | 78.206              | 10.677     | 15,8 | 3,7                       | 8,6      |
| 2005      | 2.124.846 | 2.030.818 | 94.028              | 15.822     | 20,2 | 4,4                       | 10,0     |
| 2006      | 2.133.684 | 2.025.590 | 108.094             | 14.066     | 15,0 | 5,1                       | 10,8     |
| 2007      | 2.141.860 | 2.019.664 | 122.196             | 14.102     | 13,0 | 5,7                       | 11,6     |
| 2008      | 2.157.112 | 2.014.628 | 142.484             | 20.288     | 16,6 | 6,6                       | 13,1     |
| 2009      | 2.172.175 | 2.012.538 | 159.637             | 17.153     | 12,0 | 7,3                       | 13,8     |
| 2010      | 2.178.339 | 2.010.957 | 167.382             | 7.745      | 4,9  | 7,7                       | 14,0     |
| 2011      | 2.184.606 | 2.009.567 | 175.039             | 7.657      | 4,6  | 8,0                       | 14,2     |
| 2012      | 2.193.093 | 2.009.321 | 183.772             | 8.733      | 5,0  | 8,4                       | 14,3     |
| 2013      | 2.191.682 | 2.008.399 | 183.283             | -489       | -0,3 | 8,4                       | 14,1     |
| 2014      | 2.188.985 | 2.007.268 | 181.717             | -1.566     | -0,9 | 8,3                       | 13,4     |
| 2015      | 2.189.257 | 2.005.060 | 184.197             | 2.480      | 1,4  | 8,4                       | 13,2     |
| 1998-2015 | 90.629    | -67.234   | 157.863             |            |      |                           |          |

1. grafikoa. Atzerrian jaiotako biztanleen urtetik urterako hazkundera Espainiako autonomia-erkidegotan, eta atzerrian jaiotakoen ehunekoak (%) haietan guztietan, 2015



Hau da atzerrian jaiotako biztanleriaren osaera, jatorri-eremuaren arabera (3. taula):

- % 45,7 latinoamerikarrak dira jatorriz, eta EAEn bizi den jatorri atzerritarreko kolektibo nagusia osatzen dute.
- % 0,9 Ipar Amerikan –Kanadan eta AEBetan– jaiotakoak dira.
- % 21,2 afrikarrak dira jatorriz, eta horien artean magrebtarrek osatzen dute kolektibo jendetsuena.
- % 7,3 asiarrak dira jaiotzez; horien artean txinatarrek dira nagusi, % 2,9, eta jarraian pakistandarrek, % 2,6. Azken horien kopuruak nabarmen egin du gora azken lau urteotan.
- EAEn bizi diren jatorri atzerritarreko biztanleen % 24,7 europarrak dira jaiotzez; EBtik kanpoko europarrak % 4,4 dira.

Lurralde historikoei erreparatuta, jatorri latinoamerikarreko biztanleak dira nagusi Araban (% 40), Gipuzkoan (% 43,2) eta, batez ere, Bizkaian (% 49,5). Baina bestelako jatorrizko herrialdeak ere nabarmentzen dira: Araban, esaterako, atzerrian jaiotako biztanleen % 31,2 afrikarrak dira jatorriz, eta Gipuzkoan, berriz, atzerrian jaiotako biztanleen % 29,3 jatorriz europarrak dira.

3. taula. Atzerritar jatorriko biztanleak EAEn eta lurralde historikoetan, nazionalitate-eremuen arabera. 2015

|                  | EAE     |       | Araba  |       | Bizkaia |       | Gipuzkoa |       |
|------------------|---------|-------|--------|-------|---------|-------|----------|-------|
|                  | K       | %     | K      | %     | K       | %     | K        | %     |
| Europa guztira   | 45.408  | 24,7  | 6.779  | 19,9  | 20.780  | 23,3  | 17.849   | 29,3  |
| EB 25            | 20.909  | 11,4  | 3.254  | 9,6   | 8.371   | 9,4   | 9.284    | 15,2  |
| EB 28            | 16.384  | 8,9   | 1.837  | 5,4   | 9.377   | 10,5  | 5.170    | 8,5   |
| EB guztira       | 37.293  | 20,2  | 5.091  | 15,0  | 17.748  | 19,9  | 14.454   | 23,7  |
| Gainerako Europa | 8.115   | 4,4   | 1.688  | 5,0   | 3.032   | 3,4   | 3.395    | 5,6   |
| Afrika guztira   | 39.054  | 21,2  | 10.629 | 31,2  | 17.367  | 19,5  | 11.058   | 18,2  |
| Magreb           | 25.536  | 13,9  | 7.574  | 22,3  | 9.639   | 10,8  | 8.323    | 13,7  |
| Gainerako Afrika | 13.518  | 7,3   | 3.055  | 9,0   | 7.728   | 8,7   | 2.735    | 4,5   |
| Amerika guztira  | 85.798  | 46,6  | 13.789 | 40,5  | 45.112  | 50,5  | 26.897   | 44,2  |
| AEB eta Kanada   | 1.656   | 0,9   | 171    | 0,5   | 908     | 1,0   | 577      | 0,9   |
| Latinoamerika    | 84.142  | 45,7  | 13.618 | 40,0  | 44.204  | 49,5  | 26.320   | 43,2  |
| Asia guztira     | 13.532  | 7,3   | 2.810  | 8,3   | 5.741   | 6,4   | 4.981    | 8,2   |
| Txina            | 5.283   | 2,9   | 863    | 2,5   | 3.121   | 3,5   | 1.299    | 2,1   |
| Pakistan         | 4.793   | 2,6   | 1.629  | 4,8   | 869     | 1,0   | 2.295    | 3,8   |
| Ozeania          | 405     | 0,2   | 30     | 0,1   | 253     | 0,3   | 122      | 0,2   |
| Guztira          | 184.197 | 100,0 | 34.037 | 100,0 | 89.253  | 100,0 | 60.907   | 100,0 |

5. taulan azaltzen dira atzerrian jaio eta gaur egun EAEn bizi diren biztanleen jatorrizko hamar herrialde nagusiak. Horien artean sei Latinoamerikako herrialdeak dira –Kolonbia, Bolivia, Ekuador, Brasil, Argentina eta Nikaragua–, hiru Europar Batasunekoak –Errumania, Portugal eta Frantzia–, eta bat Magrebekoa –Maroko–.

Jatorri horietako biztanlerian izandako bilakaerari dagokionez, batzuek gora egin dute krisialdian, nikaraguarren kopuruak, adibidez, eta beste batzuk, berriz, aurretik ugaritu ziren, boliviarrak edo ekuadortarrak, kasu, hau da, urte gehiago daramatzate EAEn bizitzen.

4. taula. Jatorri atzerritarra duen biztanleriaren bilakaera jaiotzako herrialde nagusien arabera. 1998-2015

|                                     | 1998   |       | 2000   |       | 2003   |       | 2005   |       |
|-------------------------------------|--------|-------|--------|-------|--------|-------|--------|-------|
|                                     | K      | %     | K      | %     | K      | %     | K      | %     |
| Jatorriko nazionalitate nagusiak    | 12.235 | 46,5  | 16.707 | 47,5  | 38.345 | 131,4 | 55.432 | 59,0  |
| Gainerako jatorriko nazionalitateak | 14.099 | 53,5  | 18.436 | 52,5  | 29.184 | 100,0 | 38.596 | 41,0  |
| Guztira                             | 26.334 | 100,0 | 35.143 | 100,0 | 29.184 | 100,0 | 94.028 | 100,0 |

|                                     | 2008    |       | 2011    |       | 2013    |       | 2015    |       |
|-------------------------------------|---------|-------|---------|-------|---------|-------|---------|-------|
|                                     | K       | %     | K       | %     | K       | %     | K       | %     |
| Jatorriko nazionalitate nagusiak    | 87.238  | 61,2  | 101.363 | 57,9  | 103.160 | 56,3  | 101.212 | 54,9  |
| Gainerako jatorriko nazionalitateak | 55.246  | 38,8  | 73.676  | 42,1  | 80.123  | 43,7  | 82.985  | 45,1  |
| Guztira                             | 142.484 | 100,0 | 175.039 | 100,0 | 183.283 | 100,0 | 184.197 | 100,0 |

5. taula. Jatorri atzerritarra duen biztanleriaren bilakaera gaur egun EAEn nagusi diren jatorriko nazionalitate nagusien arabera. 1998-2015

|           | 1998  |          | 2000  |          | 2003  |          | 2005   |          |
|-----------|-------|----------|-------|----------|-------|----------|--------|----------|
|           | K     | Posizioa | K     | Posizioa | K     | Posizioa | K      | Posizioa |
| Maroko    | 2.016 | 3        | 2.802 | 3        | 5.287 | 3        | 7.648  | 2        |
| Kolonbia  | 576   | 13       | 1.481 | 8        | 9.114 | 1        | 10.925 | 1        |
| Errumania | 131   | 31       | 288   | 26       | 1.690 | 11       | 4.347  | 7        |
| Bolivia   | 65    | 37       | 83    | 41       | 513   | 28       | 3.574  | 8        |
| Ekuador   | 141   | 29       | 343   | 24       | 4.946 | 4        | 7.634  | 3        |
| Portugal  | 2.881 | 2        | 3.784 | 2        | 4.843 | 5        | 6.175  | 5        |
| Frantzia  | 4.286 | 1        | 4.884 | 1        | 5.802 | 2        | 6.369  | 4        |
| Brasil    | 624   | 11       | 1.242 | 10       | 2.521 | 7        | 3.541  | 9        |
| Argentina | 1.471 | 5        | 1.729 | 5        | 3.521 | 6        | 5.035  | 6        |
| Nikaragua | 44    | 47       | 71    | 46       | 108   | 53       | 184    | 46       |

|           | 2008   |          | 2011   |          | 2013   |          | 2015   |          |
|-----------|--------|----------|--------|----------|--------|----------|--------|----------|
|           | K      | Posizioa | K      | Posizioa | K      | Posizioa | K      | Posizioa |
| Maroko    | 10.964 | 4        | 15.663 | 2        | 17.511 | 2        | 19.260 | 1        |
| Kolonbia  | 14.750 | 1        | 17.789 | 1        | 17.898 | 1        | 17.191 | 2        |
| Errumania | 12.515 | 2        | 15.109 | 3        | 15.755 | 3        | 15.230 | 3        |
| Bolivia   | 11.724 | 3        | 11.885 | 4        | 11.598 | 4        | 10.973 | 4        |
| Ekuador   | 8.349  | 6        | 9.430  | 5        | 9.064  | 5        | 8.514  | 5        |
| Portugal  | 9.475  | 5        | 9.256  | 6        | 8.585  | 6        | 7.481  | 6        |
| Frantzia  | 6.668  | 7        | 6.506  | 8        | 6.387  | 7        | 6.050  | 7        |
| Brasil    | 5.841  | 8        | 6.687  | 7        | 6.198  | 8        | 5.778  | 8        |
| Argentina | 5.763  | 9        | 6.003  | 9        | 5.765  | 9        | 5.396  | 9        |
| Nikaragua | 1.189  | 26       | 3.035  | 17       | 4.399  | 14       | 5.339  | 10       |

2015eko urtarrilaren 1ean, 137.816 atzerritar daude erroldatuta EAEn, eta horietatik 122.076 lagunek egoitza-txartela edo -baimena dute. Horrenbestez, erregularizazio-tasaren kalkuluak adieraziko luke erroldatutako atzerritarren % 89k dutela egoitza-baimena. Atzerritar gehienak administrazio-egoera irregularrean dauden uste zabalduaren kontrako egoera erakusten du datu horrek.

6. taula. Erregularizazio-indizea EAEn. 1998-2015

|      | Erroldatuak | Baimenak | Erregularizazio-tasa |
|------|-------------|----------|----------------------|
| 1998 | 15.198      | 15.647   | 1,03                 |
| 1999 | 16.793      | 16.995   | 1,01                 |
| 2000 | 21.140      | 18.622   | 0,88                 |
| 2001 | 27.438      | 18.822   | 0,69                 |
| 2002 | 38.408      | 19.515   | 0,51                 |
| 2003 | 49.231      | 24.201   | 0,49                 |
| 2004 | 59.166      | 28.600   | 0,48                 |
| 2005 | 72.894      | 37.150   | 0,51                 |
| 2006 | 85.542      | 57.395   | 0,67                 |
| 2007 | 98.524      | 64.228   | 0,65                 |
| 2008 | 117.337     | 83.875   | 0,71                 |
| 2009 | 132.865     | 96.635   | 0,73                 |
| 2010 | 139.369     | 106.658  | 0,77                 |
| 2011 | 145.256     | 110.063  | 0,76                 |
| 2012 | 151.894     | 119.984  | 0,79                 |
| 2013 | 148.877     | 123.484  | 0,83                 |
| 2014 | 141.316     | 122.994  | 0,87                 |
| 2015 | 137.816     | 122.076  | 0,89                 |





## 2. Atzeritarrei buruzko iritziak eta jarrerak

Egoera zein den jabetzeko balio duten datu horiek ikusita, 2015eko Barometroan lortutako informazioa aztertuko dugu: bertako jendeak atzerriko immigrazioari buruz dituen jarrerak, usteak, balioak eta iritziak adierazten ditu lan horrek. Azken urte hauetan denetan pilatutako esperientzia dela eta, jarrera eta iritzi horiek nondik nora egin duten ikusteko modua daukagu, azken urteetako barometroekin alderatuta, eta ikus dezakegu zenbateraino betetzen den ala ez krisi-garaian jarrera eta pertzepzio horiek okertu egingo zirela ziotenen iragarpena. “Atzeritarrei buruzko iritziak eta jarrerak” kapitulu honen egitura bost bloketan banaturik dago:

- Etorkinen presentziaren pertzepzioa: bolumena
- Etorkinen presentziaren pertzepzioa: arazo moduan
- Immigrazioak euskal gizartean duen eragina, hainbat arlotan: ekonomian, ongizatearen dimentsioetan, nazionalitatearen helburuetan, nortasunean, hizkuntzaren erabileran eta bilakaeran, harremanen bilakaeran.
- Komunitate hartzailearen eta etorkinen komunitatearen arteko bilakaera eta integrazioa: bizikidetzaren ereduak; estereotipoak eta aurreiritziak, zurrumurruak; eskubideak eta zerbitzuak izatea
- Immigrazio-politika: sartzea, bertan gelditzea eta kanporatzea

Bost blokeetan egitura berari jarraitu diogu:

1. Iritzi eta jarrerei loturiko emaitzak eta horien bilakaera (%) aurkeztu eta interpretatu da.
2. Dimentsio bakoitzaren indize sintetikoa landu dugu, alde esanguratsuak dauden profilei arreta berezia jarrita.
3. Aztertutako bloke bakoitzaren ondorioak atera ditugu.

### Etorkinen presentziaren pertzepzioa: bolumena


Garrantzitsua da jakitea zer pentsatzen duten biztanleek immigratzaileen bolumenari buruz; izan ere, pertzepzio horrek aukera ematen du jakiteko immigrazioaren fenomenoaren tamaina berez dena baino handiagoa ikusten den ala ez, horrek eragina izan baitezake immigrazioarekiko jarra on edo txarretan.

Lehenik eta behin, atzerritarren bolumenaren pertzepzioari buruzko datuak jaso ditugu, EAEn bizi diren etorkinen kopuru zehatza jakin aurretik eta jakin ondoren. Bigarrenik, etorkinen bolumenaren pertzepzioari buruzko indizea landu dugu eta, indize horretatik abiatuta, pertsona tolerantagoen edo uzkurragoen profila zehaztu dugu, betiere kontuan hartuta ezaugarri soziodemografikoak, sozioekonomikoak, identitate eta ideologiari loturikoak, psikosozialak eta harremanei lotutakoak. Azkenik, kapituluaren ondorio nagusiak jaso ditugu.

Emaitzek, atzera ere, biztanleria immigratzailea gaindimentsionatu egiten dela adierazten dute. Euskal gizartearen gehiengoak uste du, 2. grafikoak adierazten duen moduan, atzerritar gehiegi bizi direla Euskal Autonomia Erkidegoan (% 30,2k uste du hori) edo atzerritarren kopurua nahikoa dela (% 29,6k). Bestalde, % 2,5ek soilik uste du gutxi direla edo ez direla nahiko (% 0,3k), eta % 31,4k uste du atzerritarren kopurua egokia dela.

Gainera, 2007. urteaz geroztik izan den bilakaerak erakusten du gehiegi direla uste dutenen ehunekoa (% 30-35 inguru) ez dela askorik aldatu urtea joan, urtea etorri. Halere, atzerritarren nahikoak direlako ustea dutenen ehunekoa nabarmen murriztu da (% 45 izatetik % 29,6 izatera igaro dira 2015ean) eta atzerritarren gutxi direlako usteak ere beherakada nabarmena izan du: % 12,5etik % 2,5era. Aurreko barometroetan aipatu dugun bezala, azken datu horiek 2012ko barometroan erantsi zen galdera bati lotuta daude. Izan ere, kopurua “egokia” delako aldagaia txertatu zen orduan, eta 2015ean biztanleen % 31,4k uste du immigratzaileen bolumena nahikoa dela.

2. grafikoa. Atzerriko biztanleriaren bolumenaren hasierako pertzepzioa. 2007-2015




Zer iritzi duzu beste herrialde batzuetatik etorri eta Euskadin bizi diren pertsonen kopuruari buruz? (G3)

Azken batean, EAEko atzerritarren kopurua benetan dena baino handiagoa delako pertzepzioa dago. Izan ere, benetako biztanleria baino gehiago dagoela pentsatzen jarraitzen dugu. 2015ean, bertako herritarrek uste dute biztanleen % 17,9 atzerritarra dela. Etorkin-kopuruaren gaineko ikuspegi hori ez dator bat 2015eko urtarilaren 1eko erroldatze-datu errealekin. Hain zuzen, datu horien arabera, EAEn biztanleen % 6,3 da atzerritarra. Hau da, bertako biztanleek atzerritarren bolumenari buruz duten ustea egiazko bolumenaren halako bi baino handiagoa da. Alegia, bolu-

menaren pertzepzioa eta erroldako datuak ez datoz inolaz ere bat, eta aurten aldea handitu egin da, gainera.


**3. grafikoa.** Euskadin bizi diren 100 pertsonatik, gutxi gorabehera zenbat dira, zure ustez, atzerriko etorrikin (alegia, Espainiatik kanpoko herrialdeetatik etorriak)? 2007-2015



Zure ustez, Euskadin bizi diren 100 pertsonatik gutxi gorabehera zenbat jaio dira atzerrian, Espainiatik kanpo? (G4)

Galdera horren beraren erantzunak irudikatzen ditu 4. grafikoa, baina EAEn erroldatuta dauden atzerritarrei buruzko datu erreala eman ondoren. Hori egitearen arrazoia da jakitea ea egiazko kopuruaren berri izateak eraginik ba ote duten atzerritarren bolumenaren pertzepzioan. Emaitez erakusten dute zifra errealean berri izateak baduela eraginik, baina ez espero zitekeena bezain-bestekoa.

**4. grafikoa.** Jatorri atzerritarreko biztanleen bolumenari buruzko pertzepzioa, erroldatuta daudenen benetako kopuruaren berri eman ondoren. 2007-2015



Euskadiko biztanle guztietatik beste herrialde batzuetako etorkinak % 8 edo % 9 inguru direla kontuan hartuta, etorkinen kopuruari buruz berdin pentsatzen jarraitzen duzu edo beste iritzi bat duzu? Zein? (G5)

Emaizta horiek erakusten digute, oro har, egiaz Euskadin bizi direnak baino atzerritar gehiago daudenaren ustea duela euskal gizarteak, aurten ere bai. Gainera, gehiengoak uste du immigrazioa asko daudela eta hamarretik biren iritzian, gehiegi dira. Erroldatutako atzerritarren kopurua uste zutena baino hiru aldiz txikiagoa dela esaten zaienean ere, jendeak eutsi egiten dio per-

tzepzio edo hautemate horri. Dena dela, azpimarratzekoa da atzeritarren benetako kopurua (% 6,3) egokia dela uste duela bertako biztanleriaren zati nabarmenak (% 40,7).

Azken buruan, eta aurreko urteetan gertatu bezala, ondoriozta dezakegu EAEko herritar gehienek immigrazioa gaidimentsionatu egiten duten arren, erroldatutako atzeritarren benetako kopuruaren berri ematen zaienean, iritziak polarizatu egiten direla. Hala, biztanleen ia erdiak (% 47,6) uste du nahikoa edo gehiegi direla eta beste erdiak (% 49), berriz, kopurua nahikoa edo gutxi dela.

Beste alde batetik, berriz ere ikusi dugu ez dagoela harreman zuzenik erroldatutako atzeritarren kopurua handitzearen eta atzeritarren bolumenaren pertzepzioa handitzearen artean. Ildo horretan, eta aurten ere, joera hori hautsi egin da; hala, erroldatutako atzeritarren kopurua bere horretan mantendu bada ere, atzeritarren bolumenari buruzko pertzepzioak gora egin du. Agerian geratzen da, beraz, debate publikoak eta mediatikoak zer-nolako eragina duen immigrazioaren bolumenari buruzko pertzepzioan, eta eragin mediatiko horrek garrantzia kentzen dio, gainera, erroldatutako atzeritarren egiazko bolumenak izan lezakeen gorakadaren eraginari.

### Atzeritarren bolumenaren pertzepzioari buruzko indizea

Hiru galdera horien erantzunekin (3., 4. eta 5. itemak) atzerriko immigratzaileen bolumenaren pertzepzioari buruzko indize partziala landu dugu. Orik 10 puntura doa indize hori; horrela, jarra alarmista eta/edo gehiegizko pertzepzioa dutenak 0 puntura hurbilduko dira, eta jarrera eta pertzepzio ez hain kezkatua eta zuzenagoa dutenak, 10 puntura.

Estatistika aldetik alde nabarmenak aurkitu ditugu bertako herritar talde batzuen eta besteen artean, zenbait ezaugarri soziodemografiko, sozioekonomiko, ideologiko-identitario eta psikosozial eta harremanei lotuta. Hala, immigratzaileen bolumenaz duten pertzepzioaren arabera, honako hau da jarrera toleranteena agertzen duten pertsonen profila (eskalen puntuazio handiagoa):

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- Gizonezkoak (5,00 puntu)
- 18 eta 29 urte bitarteko pertsonak (4,99), eta 45 eta 64 urte bitartekoak (4,90 puntu)
- Goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak (5,64) eta erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (5,59 puntu)
- Gipuzkoan bizi diren pertsonak (4,82) eta Bizkaian bizi direnak (4,67 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Familian eta hilean 2.500 eurotik gorako diru-sarrerak garbiak dituzten pertsonak (5,24), eta 1.800 eta 2.500 € arteko sarrerak dituztenak (5,05 puntu)
- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin pozik dauden pertsonak (5,10 puntu)
- Ikasleak (5,48 puntu)
- Estatus sozioekonomiko altua eta erdi-mailako altua duten pertsonak (5,81 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Agnostikoak, ateoak eta erlijioarekiko axolarik ez dutenak (5,16 puntu)

- Batez ere euskaldun sentitzen diren pertsonak (4,81), eta espainiar bezain euskaldun sentitzen direnak (4,46 puntu)
- Zentro-ezkerreko ideologia duten pertsonak (4,95), eta ezkerrekoak (4,92 puntu)
- Beren burua oso abertzaletzat duten pertsonak (4,87), abertzale moderatutzat dutenak (4,87 puntu) eta nazionalismoekiko ezaxolatzat dutenak (4,52).
- Euskaraz hitz egiten duten pertsonak (4,96 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona baikorrak (4,94) eta horri buruz iritzi garbirik ez dutenak (4,73 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen onak dituzten pertsonak (4,90 puntu)
- Bertakoak gehiago diren auzoetan bizi diren pertsonak (4,90 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin noiz edo noiz hartu-eman duten pertsonak (5,03) eta hartu-eman handia dutenak (4,80 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin noiz edo noiz hartu-eman duten pertsonak (4,93) eta hartu-eman handia dutenak (4,90 puntu)
- Aisialdian etorkinekin noiz edo noiz hartu-eman duten pertsonak (4,98) eta hartu-eman handia dutenak (4,77 puntu)

Beste muturrean immigrazioarekiko jarrera uzkurragoa (eskalan puntuazio txikiagoa) duten pertsonen profila dugu. Immigrazioaren bolumenari buruzko ikuspegi gehiegizkoan adierazten da jarrera hori. Hauexek dira:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- Emakumezkoak (4,33 puntu)
- 64 urtetik gorakoak (4,19 puntu)
- Ikasketarik ez duten pertsonak (3,41 puntu)
- Araban bizi diren pertsonak (4,24 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Familian eta hilean gehien ere 1.000 euroko diru-sarrera garbiak dituztenak (4,18 puntu)
- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez dauden pertsonak (4,20) eta egoera horren ardurarik ez dutenak (4,59 puntu)
- Etxeko andreak (3,96), erretirodunak (4,38) eta langabeak (4,63)
- Estatus sozioekonomiko ertaina duten pertsonak (4,60), edo baxua-ertaina-baxua dutenak (4,40 puntu).

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Erlijio katolikoaz besteko erlijioa duten pertsonak (3,68 puntu)
- Batez ere espainiar sentitzen diren pertsonak (3,71 puntu)
- Eskuineko ideologia duten pertsonak (4,08 puntu)
- Beren burua nazionalista espainiartzat jotzen duten pertsonak (3,89 puntu)
- Euskaraz hitz egiten ez duten pertsonak (4,36 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona ezkorrak (4,18 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen txarrak dituzten pertsonak (4,46 puntu)
- Etorkin asko dagoen auzoetan bizi diren pertsonak (4,28) eta etorkinen eta bertakoen nahasketa dagoen auzoetan bizi direnak (4,11 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (4,33 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (4,13 puntu)
- Aisialdian etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (4,13 puntu)

### Etorkinen presentziaren pertzepzioa: bolumena

Datuek argi adierazten dute EAEko gizarteak immigrazioari buruz duen uste edo pertzepzioa ez datorrela bat EAEn bizi diren atzerritarren bolumenarekin, egiaz bizi direnak baino atzerritar gehiago bizi direla uste baitu. Zehazki, estatistika ofizialetan erregistratuta eta erroldatuta dauden atzerritarren ehunekoa baino ia bi aldiz portzentaje handiagoa hautematen du euskal gizarteak. Horrez gainera, bertan bizi diren atzerritarren kopurua baloratzeke eskatzen zaienean, gehienek uste dute askotxo edo gehiegi direla. Datu hori esanguratsua da, aintzat hartzen bada atzerritarren portzentajea, Euskal Autonomia Erkidegoan, nahiko apala dela, beste lurralde batzuekin alderatuz gero.

Alde horretatik, barometroak beste datu esanguratsu bat ere erakusten du: inkestatzaileak atzerritarren benetako portzentajea (% 6,3) jakinarazten dienean, “askotxo edo gehiegi” direla uste dutenek kontrako bi jarrera nabarmen hartzen dituzte; hala, batzuek gehiegi edo nahiko direla esaten dute (% 47,6), eta beste batzuek kopurua egokia dela adierazten dute (% 40,7).

Bilakaera 2007. urtetik aztertzen badugu, ikusten da hautematen den atzerritarren kopurua egonkor dirauela, nahiz eta urtetik urtera igo egin den erroldatutako atzerritarren kopurua. Esan daiteke, beraz, atzerritarren bolumenak ez duela eraginik EAEko gizarteak beraien bolumenari buruz duen pertzepzioan.


### Etorkinen presentzia arazotzat hautematea

Aurreko barometroan esan dugun bezala, bizikidetzan eragina duen faktore nagusietako bat da immigrazioa arazotzat hartzea edo ikustea. Alderdi hori aztertzeke, gaur egun Euskadin dauden hiru arazo nagusiak zein diren galdetu dugu lehenengo eta behin, eta bat-bateko erantzunak bildu ditugu. Gero, galdera berbera pausatu dugu, baina Eurobarometroaren Inkestan erabiltzen den arazoen zerrenda erakutsita. Azkenik, galdera bera egin dugu baina immigrazioa arazo pertsonaltzat harturik.

5. grafikoan jaso dira bat-bateko erantzunak. Langabezia da, alde handiarekin, inkestari erantzun diotenek adierazitako arazorik handiena (% 90,4); eta ondoren datoz arazo ekonomikoak (% 30,5), eta ustelkeria eta iruzurra (% 18,2). Bat-bateko hiru erantzunak hartuta, bertako biz-

tanleen % 12,4k aipatu du immigrazioa arazotzat, baina krisiari lotutako gaiak izan dira, betiere, garrantzitsuenak.

##### 5. grafikoa. Euskadiko arazoak (bat-bateko erantzunak)



Zure ustez, zein dira gaur egun Euskadik dituen 3 arazo nagusiak? (G3)


Aipatzekoa da immigrazioa arazotzat hartzen dutenen ehunekoak pixka bat gora egin duela 2014tik hona: % 12,1etik % 12,4ra. EAEko herritarren % 1,6k baizik ez du esan immigrazioa dela Euskadiko arazorik handiena.

Hipotesi zabalduenak esaten du, aurreko barometroetan ere aipatu dugun bezala, immigrazioaren pertzepzioak okerrera egiten duela krisi ekonomikoa luzatzen den heinean. Alabaina, bildutako emaitzak ez datoz horrekin bat. Horregatik, aurten ere zalantzan dugu ea datu horrek ez ote duen aditzera ematen immigrazioa ez dela arazotzat hartzen EAEn. Azken batean, datuek erakusten digute krisi ekonomikoak gizartean eragindako ondorio larriak direla eta, arazo sozioekonomikoak eta politikoak nagusitzen direla, eta gainerako arazoak baztertuta gelditu direla.

2007tik 2015erako barometroen bilakaerari erreparatuta (6. grafikoa), argi eta garbi ikusten da langabezia dela azken zortzi urteotan Euskadiko arazo nagusia. Langabeziarekiko kezkak gorakada handia izan zuen 2009tik aurrera, krisia EAEn indarrez sartu zenean, eta harrezkero goraka jarraitu du, astiro baina etengabe, 2015era arte. Izan ere, % 90,4k kokatu du arazo nagusitzat. Beste muturrean, eta azken barometroan adierazi bezala, beste arazo batzuek (ETArenek, adibidez) beherakada nabarmena izan dute. eta % 50etik abiatuta, 2015ean biztanleen % 1,4rentzat baino ez da arazo.

Nolanahi ere, immigrazioa arazoa delako pertzepzioaren bilakaerak gorabeherak ditu. 2007. urtean, EAEko gizartearen % 15ek hartzen zuen arazotzat bat-bateko erantzunetan, baina portzentaje hori % 7,2ra jaitsi zen 2008an. Urte horretatik aurrera, immigrazioa arazotzat hartzen duten pertsonen ehunekoak gora egin zuen, harik eta 2010ean % 15,4ra iritsi zen arte. Hain zuzen, 2010ekoa izan da orain arteko ehunekorik handiena. Handik aurrera, gorabehera txikiak izan dira, 2015eko % 12,4ra iritsi arte.

6. grafikoa. Euskadiko arazo nagusien bilakaera. 2007-2015




7. grafikoa galdera hori bera ikus dezakegu, baina Eurobarometroan erabiltzen den arazoen zerrenda erakutsita. Hamar arazotako zerrenda da, eta horietatik hiru aukeratu behar dira. Kasu horretan, aukeratzeko erantzuna eskaintzen denean, immigrazioa arazoa delako pertzepzioak bat-bateko erantzunetik ia 3 puntu (2,9) gora egin eta % 15,3an kokatzen da.

Dena dela, egoera ekonomikoak eragindako arazoez jarraitzen dute lehen tokian. Zehazki, langabezia da arazo handiena (% 84,7) eta ondoren datoz bizitza-kostua (% 33,5) eta hazkunde ekonomikoa (% 22,8). Ikusten da, beraz, arazo ekonomikoak direla, immigrazioaren gainetik, euskal gizarteari kezka gehien eragiten diotenak.

Immigrazioa arazotzat jotzen duen ustearen bilakaerari erreparatuta, ikusiko dugu 2014tik hona gorakada txikia izan duela: 0,5 puntu gehiago.

7. grafikoa. Euskadiko arazoak (iradoki ondorengo erantzunak)




Txartel honetan aurkeztutako arazoen artean, zure ustez zein dira Euskadiko hiru nagusiak? (G2)

Bestalde, komeni da jakitea bertako herritarrek arazo pertsonaltzat hartzen ote duten immigrazioa. Eredu pertsonalak garrantzi berezia du bizikidetzan. Emaitzek argi eta garbi adierazten



dute euskal gizarteak ez duela halakorik ikusi edo hautematen, % 2k aipatu baitu lehen postuan, eta aipamen guztiak aintzat hartuta, berriz, % 7,3ko portzentajea erakusten baitu. 2014ko datuekin alderatuz gero, immigrazioa arazo pertsonaltzat jotzen dutenen ehunekoak behera egin du, apal bada ere: % 7,5etik % 7,3ra.


8. grafikoa. Immigrazioa Euskadin arazotzat hartzeak izan duen bilakaera, iradokia eta pertsonala. 2007-2015



Zein dira zuri pertsonalki gehien eragiten dizuten 3 arazoak? (gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna) (G1, G2, G22)

Aurten ere ikusi dugu immigrazioa areago ikusten dela arazotzat inkestatzailerak iradokitzen duenean, emaitzak apalagoak baitira inkestari erantzun dion pertsonak bat-bateko erantzuna ematen duenean edota arazo pertsonaltzat hartzen duenean. 2007tik datorren joera horrek adierazten du euskal gizarteak ez duela immigrazioa arazo larritzat hartzen, baldin eta gaia ez bada gizarte-etzabaidako gaien artean sartzen; izan ere, gaia iradokitzen denean adierazten du jendeak, batik bat, gaia arazo bat izan daitekeela, baina oso jende gutxi ikusten du arazo pertsonal moduan.

9. grafikoa. Arazo pertsonal nagusien bilakaera. 2007-2015



2007tik honako arazo pertsonal nagusien bilakaerak (9. grafikoa) argi eta garbi erakusten du langabezia dela azken urteetako arazo pertsonal nagusia (% 59,9). Immigrazioa arazo pertsonala delako pertzepzioa askoz ere txikiagoa da, eta azken urte honetan pixka bat behera egin du.

### Atzerriko immigrazioa arazotzat hartzearen indizea

Hiru galdera horien erantzunekin (1., 2. eta 23. itemak), pertzepzio-indize partzial bat landu dugu: atzerriko immigrazioa arazotzat hartzearen indizea. Oti 10erako eskala batean taxutu dugu indize hori. Horrela, immigrazioa arazo izatearekin gehien lotzen dutenak 0 puntura hurbilduko dira, eta arazotzat hartzen ez dutenak, 10 puntura. Indize hori nola landu den zehatzago jakiteko, irakurleak jo beza metodologiaren kapitulura.

Ikerketa-eremu horretan ere estatistika aldetik alde esanguratsuak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean, gurutzaketa edo goiburuko aldagaien arabera. Horrenbestez, immigrazioa arazotzat hartzen duten ala ez galdetuta herritarrek emandako iritzien arabera, honako hau da jarrera toleranteagoa erakutsi duten pertsonen profila:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- 18 eta 29 urte bitarteko pertsonak (9,18 puntu)

Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona baikorrak (9,05) eta beren burua ez baikortzat eta ez ezkortzat ez duten pertsonak (9,01 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin hartu-emana duten pertsonak (9,23 puntu)

Beste muturrean, immigrazioarekiko jarrera uzkurrena agertu duten pertsonen profila dugu. Immigrazioa arazotzat hartzen dute pertsona horiek, eta hortik beren jarrera uzkurra. Hauexek dira:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- 30 eta 44 urte bitarteko pertsonak (8,67 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona ezkorak (8,47 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin harremanik ez duten pertsonak (8,75) eta hartu-eman handia dutenak (8,68 puntu)

### Etorkinen presentzia arazotzat hautematea

Laburbilduz, gizarte-arazotzat hartzen al da immigrazioa Euskal Autonomia Erkidegoan? 2015eko Barometroak adierazten du gizartearen gehiengo zabalak ez duela pertsona immigratzaileen presentzia arazo sozial edo pertsonaltzat hartzen. Soilik % 12,4k erantzun du, bat-batean, immigrazioa arazoa dela, eta % 7,3k hartzen du arazo pertsonaltzat. Inkesta-egile edo galdetzaileak immigrazioaren gaia iradokitzen duenean, neurri handiago batean hartzen da immigrazioa arazotzat (% 15,3). Krisiak enpleguan izan ditzakeen eragin kaltegarriak, bizitzaren kostua eta hazkunde ekonomikoa dira euskal gizartearen kezka nagusiak (iradokitako arazoen artean).

Argi dago, beraz, EAEko gizarteak ez duela immigrazioa arazotzat ikusten. 2014an, herri-tarren % 12,1ek adierazi zuen immigrazioa arazoa dela EAErako, eta 2015ean % 12,4k adierazi du iritzi hori. 2008tik 2010era immigrazioa arazotzat hartzearen pertzepzioak gora egin zuen, baina 2011tik 2013ra iritzi horrek beherakada nabarmena izan zuen. 2007tik hona, immigratzaileak arazoak direlako iritziak 2,6 puntu egin du behera.

Krisi ekonomikoa handitzen eta denboran luzatzen aritzea, hori da gizartearen kezka handiena, agerikoa baita langabezia gora egiten ari dela, gizarte-alorreko murrizketak egiten ari direla eta ongizate-estatua gero eta gehiago kolokan dagoela. Gizartean nahiz hedabideetan gai horiek dira garrantzitsuenak, ustelkeria politikoarekin batera. Hala, krisi ekonomikoaren aurreko barometroetan agertzen ziren gainerako gai guztiak zokoratzen dituzte.

### Immigrazioak euskal gizartean duen eragina

Atzerriko biztanleen hazkundeak EAEko gizartean izan dezakeen eragina, positiboa nahiz negatiboa, aztertuko dugu atal honetan, eta zenbait alderdiri erreparatuko diogu horretarako. Ildo horretan, inkesta egin diegun pertsonen galdetu diegu zer ondorio dituen immigrazioak ekonomian, ongizatean, gizartean (identitatean) eta harremanetan.

Erantzunak bildu eta indize laburtu batzuk prestatu eta aztertu ditugu, iritzi horietako bakoitzak arlo ekonomikoan eta euskal gizartean duen inpaktua ezagutu eta immigrazioaren ondorio osoaren berri jakiteko, erantzunetan alde esanguratsuak dituzten taldeak soilik kontuan hartuta.

### Ekonomian dituen eraginak


Krisi ekonomikoa eraginik izaten ari al da immigrazioak ekonomian dituen ondorioei buruz bertako herritarrek duten ikuspegi edo pertzepzioan? Krisi ekonomikoa hasi zenetik egin dugu galdera hori. Badu bai, eraginik, eta kontuan hartuta gaur egun langabezia eta arazo ekonomikoak direla euskal gizartean kezka gehien sortzen duten gaiak, garrantzitsua da jakitea herritarrek zer balorazio eta iritzi duten immigrazioaren gaiari buruz.

Oro har, esan dezakegu, 10. eta 11. grafikoetan ikusten den moduan, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren ustez immigrazioak eragin kaltegarriagoa duela ekonomian onuragarria

baino. Baina esan behar da anbibalentzia-maila bat ere badagoela eta ez dela argi eta garbi kaltearen edo onuraren alde egiten. % 48,6ren ustez, atzeritarrek langabezia handitzea dakarte, eta % 36 ez dago iritzi horrekin ados (10. grafikoa). Halere, herritarren iritzia banatuta dago: alde batean daude gure ekonomiaren sektore batzuetan immigratzaileen premia dugula uste dutenak (% 42,2) eta bestean iritzi horren aurka daudenak (% 41,3). EAEko herritarrek ez dute uste soldata jaitsi egiten denik hona bizitzera eta lanera datozenengatik (% 58,8) Jarrera horrek gora egin du 2009tik hona.


Azkenik, % 44,9k uste du immigrazioa lagungarri zaiola ekonomiari bertako langileek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituelako, eta % 37,7k ez du uste hori horrela denik.

10. grafikoa. Atzerriko immigrazioaren eragin ekonomikoa Euskadin. 2010-2015



Atzeritarrek langabezia handitzen dute Euskadin (G18j)


11. grafikoa. Atzerriko immigrazioaren eragin ekonomikoa Euskadin. 2004, 2007-2015



Immigranteak behar ditugu gure ekonomiako sektore batzuetan lan egiteko (G6c)\*


\*2004, 2007, 2008 eta 2009ko barometroak: Immigranteek hemengoek nahi ez dituzten postuak betetzen dituzte.

Soldata jaitsi egiten da hona bizitzera eta lanera datozenengatik



Soldata jaitsi egiten da hona bizitzera eta lanera datozenengatik (G6a)

Ekonomiak hobeto funtzionatzan du, hemengoek bete nahi ez dituzten postuak betetzen baitituzte




Ekonomiak hobeto funtzionatzan du, hemengo jendeak bete nahi ez dituen postuak betetzen baitituzte etorkinek (G6e)

2004ko eta 2007tik 2015era bitarteko barometroek izan duten bilakaera aztertuz gero, ikusten da krisi ekonomikoa luzatu ahala, indar handiagoa hartu dutela, zenbait kasutan, jarrera negati-  
boek. Gainera, immigrazioaren erabilgarritasunari buruzko diskurtsoak indarra galdu du krisi eko-  
nomikoaren inpaktuaren ondorioz.

- Adibidez, “immigratzaileak behar ditugu gure ekonomiako sektore batzuetan lan egiteko” baieztapenaren aldeko erantzuna eman dutenak erdira murriztu dira 2004tik 2015era. 2004an % 80k uste zuen hori, eta gaur egun % 42,2k baino ez.
- Krisi ekonomikoaren eraginaren ondorioz murriztu egin da, halaber, bertako jendeak bete nahi ez dituen lanpostuak betetzeko immigratzaileak behar ditugulako ustea: % 63 ziren 2004an, eta % 44,9 gaur egun.
- Azkenik, immigrazioak langabezian eragiten duela uste duten biztanleek gehiengoa izaten jarraitzen duten arren, egiatan, 2010etik hona (2010ean pausatu baitzen lehen aldiz gal-dera hori) geroz eta gutxiago dira erlazio hori dagoela uste dutenak: 2010ean % 60,8 ziren eta gaur egun % 48,6 dira.

- Immigratzaileak etorri izanaren ondorioz soldatak jaitsi egin direlako usteak, itxuraz, ez du erlazorik egoera ekonomiko onarekin edo txarrarekin. Izan ere, krisi ekonomiko garaian jaitsi da inoiz baino gehiago immigrazioaren eta soldataren beherakadaren arteko erlazioa.

12. grafikoa. Atzerriko pertsona gehiagoren etorrerak ekar ditzakeen ondorio ekonomikoekiko kezka. 2008-2015



Atzerriko pertsona gehiago iristeak zuri edo zure familiari modu negatiboan eragiteak kezkatzen zaitu, zehazki esparru hauetan: lana aurkitzea? (G24a)

Immigrazioak ekonomian dituen ondorioei buruzko jarrera eta pertzepzio orokor horiek antzematen dira, halaber, bertako biztanleek ekonomia pertsonalari edo familiarrari buruz ematen dituzten iritzietan. 2008tik honako datuak aztertuta, ikusiko dugu krisi ekonomikoaren eragina ikusi dela 2012ra arte. Alabaina, orduz geroztik immigrazioa ez da arazotzat jotzen.

Immigrazioak ekonomian dituen ondorioei buruzko jarrera eta pertzepzio orokor horiek antzematen dira, halaber, bertako biztanleek ekonomia pertsonalari edo familiarrari buruz ematen dituzten iritzietan. Krisi ekonomia hasi zenetik hona izandako jarrerari erreparatuta, ikusiko dugu krisiaren hasieran (2008an eta 2009an) nahiz azken urteotan (2014an eta 2015ean), EAEko gizarteak ez duela uste immigratzaileen etorrerak lana aurkitzea zaildu dionik (12. grafikoa). Halere, 2010-2013 tartean EAEko gizartearen iritzia muturretarantz egin zuen, immigratzaileen etorrerak lan-bilaketa zailtzen duela eta zailtzen ez duela uste zutenen artean.

### Atzerriko immigrazioak ekonomian duen eraginaren pertzepzioari buruzko indize partziala

Esparru horretako bost galderei (galdetegiko 6a, 6c, 6e, 18j eta 24a itemak) emandako erantzunekin, atzerriko immigrazioak sortutako eragin ekonomikoaren pertzepzioari buruzko indize partziala landu dugu. Indizearen eskala 0tik 10 puntura doa; horrenbestez, immigrazioak ekonomian duen eraginari buruzko ikuspegi negatiboena dutenak 0 puntura hurbilduko dira, eta ikuspegi positiboena dutenak 10 puntura.

Ikerketa-eremu horretan ere estatistika aldetik alde esanguratsuak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean, gurutzaketa edo goiburuko aldagaien arabera. Horrenbestez, immigrazioak ekonomian duen eraginari buruzko pertzepzio positiboa agertu eta, horren bidez, jarrera toleranteena erakutsi duten pertsonen profila honako hau da:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- Gizonezkoak (5,55 puntu)
- Erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak (6,34) edo goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (6,58 puntu)
- Gipuzkoan bizi diren pertsonak (5,79 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Familian eta hilean 2.500 euro baino gehiagoko diru-sarrera garbiak dituzten pertsonak (6,20 puntu)
- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin pozik dauden pertsonak (5,98 puntu)
- Ikasleak (6,20 puntu)
- Estatus sozioekonomiko altua eta erdi-mailako altua duten pertsonak (6,58 puntu)
- Krisiaren ondorio arinak baizik jasan ez dituzten pertsonak (5,71)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Batez ere euskaldun sentitzen diren pertsonak (5,55), eta espainiar bezain euskaldun sentitzen direnak (5,19 puntu)
- Beren burua oso abertzaletzat duten pertsonak (5,57), eta abertzale moderatutzat dutenak (5,57 puntu)
- Euskaraz hitz egiten duten pertsonak (5,74 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona baikorrak (5,60) eta beren burua ez baikortzat eta ez ezkortzat ez duten pertsonak (5,63 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen onak dituzten pertsonak (5,80) eta horri buruz iritzi garbirik ez dutenak (5,75 puntu)
- Etorkin asko dauden auzoetan bizi diren pertsonak (5,65 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin hartu-eman duten pertsonak (5,87 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin noiz edo noiz hartu-emanena duten pertsonak (5,60) eta hartu-eman handia dutenak (5,54 puntu)
- Aisialdian etorkinekin noiz edo noiz hartu-eman duten pertsonak (5,70) eta hartu-eman handia dutenak (5,54 puntu)

Beste muturrean, immigrazioarekiko jarrera uzkurrena agertu duten pertsonen profila dugu. Immigrazioak ekonomian duen eraginari buruzko ikuspegi negatiboa dute pertsona horiek, eta hortik beren jarrera uzkurra. Hauexek dira:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- Emakumezkoak (5,18 puntu)
- Lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak (4,69 puntu) eta ikasketarik gabeko pertsonak (4,21 puntu)
- Araban bizi diren pertsonak (5,20) eta Bizkaian bizi direnak (5,15 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Familian eta hilean 1.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrera garbiak dituzten pertsonak (5,07 puntu) edo 1.000 eta 1.800 euro bitartekoak dituztenak (5,37 puntu)
- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez dauden pertsonak (4,48 puntu)
- Langabeak (4,70 puntu)
- Estatus sozioekonomiko baxua duten pertsonak (5,03 puntu)
- Krisiaren ondorio larriak pairatu dituzten pertsonak (4,84) edo ondorio ertainak jasan dituztenak (5,11 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Batez ere espainiar sentitzen diren pertsonak (4,36 puntu)
- Beren burua nazionalista espainiartzat jotzen duten pertsonak (4,68 puntu)
- Euskaraz hitz egiten ez duten pertsonak (4,98 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona ezkorak (4,68 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen txarrak dituzten pertsonak (4,87 puntu)
- Etorkinen eta bertakoen nahasketa dagoen auzoetan bizi diren pertsonak (4,99 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin noiz edo noiz hartu-emanak duten pertsonak (5,31) eta inolako hartu-emanik ez dutenak (5,05 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (4,91 puntu)
- Aisialdian etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (4,80 puntu)

**Immigrazioak ongizatean dituen ondorioak: irakaskuntza, etxebizitza, ospitaleak, gizarte-laguntza**

Atal honetan, atzerriko pertsona gehiago etortzeak beren ongizate-egoeran izan dezakeen eraginak kezkarik sortzen ote dien galdetu zaie herritarrei (13. grafikoa); zehazki, gizarte-laguntzak eskuratzeari, irakaskuntzaren kalitateari, etxebizitzari eta osasun-arretari loturiko alderdiei buruz galdetu zaie.

Badirudi aurten bertako biztanleen artean desagertu egin dela aztertutako dimentsio gehienetan immigrazioak duen ondorio negatiboari buruzko kezka, eta krisi ekonomikoaren aurreko egoeraren parean gaudela esan daiteke.

Nolanahi ere, bertoko herritarrak hein batean kezkatuta daude immigrazioak gizarte-laguntzetan izan ditzakeen ondorio negatiboak direla eta. Horixe uste du EAEko biztanleen % 45,8k, nahiz eta % 52,5ek ez duen iritzi bera.

Gainerako itemetan kezka txikiagoa da, eta gehienek uste dute immigrazioak ez duela eraginik beren ongizatean. Galdekatutako pertsonen % 35,6k uste du denbora luzeagoan itxaron behar duela ospitaletan, eta % 62,2k kontrako iritzia du. Kezka hori goraka joan zen 2012ra arte, eta harrezkero etengabe egin du behera.




Beste alde batetik, EAEko gizartearen % 30,6ren ustez, immigratzaileen etorrerak etxea aurkitzea zaildu lezake; % 67,7k, ordea, kontrakoa uste du. 2008tik 2012ra kezka horrek gora egin bazuen ere, harrezkero behera egin eta azken urteetan mantendu egin da.

Amaitzeko, inkesta erantzun duten herritar gehienek (% 73,2) arabera, irakaskuntzaren kalitateak ez du okerrera egingo atzerritarrak etortzearen ondorioz. Alabaina, datuen bilakaerari erreparatzeko badiogu, 2008tik hona 5,9 puntu inguru egin du gora immigratzaileen etorrerak kalitate okerragoko irakaskuntza jasotzea eragiten duela uste dutenen portzentajeak: 2008an, % 17,9k adierazi zuen iritzi hori eta 2015ean, berriz, % 23,8k adierazi du.


13. grafikoa. Atzerriko immigrazioaren eragina ongizate-estatuan

Kalitate okerragoko irakaskuntza jasotzea




Kezkatuta al zaude atzerriko pertsona gehiago iristeak alderdi hauetan eragin negatiboa izan dezakeelako zuregan edo zure familiarengan? d) irakaskuntza-kalitate txarragoa jasotzea. (G24d)

Etxebizitza aurkitzea




Kezkatuta al zaude atzerriko pertsona gehiago iristeak alderdi hauetan eragin negatiboa izan dezakeelako zuregan edo zure familiarengan? b) Etxebizitza aurkitzea (G24b)

## Ospitaleetan luzaroago itxaron behar izatea



Kezkatuta al zaude atzerriko pertsona gehiago iristeak alderdi hauetan eragin negatiboa izan dezakeelako zuregan edo zure familiarengan? c) Ospitaleetan luzaroago itxaron behar izatea (G24c)

## Gizarte-laguntzaren bat lortzea




Kezkatuta al zaude atzerriko pertsona gehiago iristeak alderdi hauetan eragin negatiboa izan dezakeelako zuregan edo zure familiarengan? f) Gizarte-laguntzak jasotzea (G24f)

## Immigrazioak identitatean eta hizkuntzan izan ditzaketen eraginei buruzko iritzia

Atal honetan, atzerriko immigrazioak alderdi jakin batzuetan –besteak beste, euskal nazionalismoaren helburuetan, identitatean, eta euskararen erabileran eta hedapenean– izan dezakeen eraginari buruz zer iritzi duten galdetu zaie bertako biztanleei.


14. grafikoa. Atzerriko immigrazioaren eragina euskal gizartean

## Euskal identitatea galtzea




Immigrante atzerritarren etorrerak euskal nortasuna galarazten lagunduko du. (G22c)

### Abertzaletasunaren helburuak geldiaraziko ditu




Atzerriko immigranteen etorrerak abertzaletasunaren helburuak geldiaraziko ditu (G22d).

### Euskararen garapena motelduko du



Atzerriko immigranteen etorrerak euskararen hedapena motelduko du. (G22a)

### Euskararen erabilera murriztuko du gaur egun biztanleen gehiengoak erabiltzen duen tokietan



Atzerriko immigranteen etorrerak euskararen erabilera murriztuko du EAEn gaur egun euskara nagusi den eremuetan (G22b)

Galdeketa erantzun dioten gehiengoak (% 76,3) ez du uste etorkinen etorrerak euskal identitatea galaraziko duenik eta, orobat, gehienek ez dute uste euskal nazionalismoaren helburuak geldiaraziko dituenik (% 75,9). Euskarari dagokionez, % 71,7k adierazi du immigrazioaren fenomenoak ez duela euskararen hedapena geldiaraziko, eta % 71,6k uste du euskararen erabilera ere ez duela murriztuko gaur egun EAEn gehiengoak euskaraz dakien eremuetan.

Immigrazioak nazionalismoaren helburuak moteldu eta euskal identitatea galarazten laguntzen duen iritzia inguruan 2010etik mantentzen zen joera zertxobait aldatu da 2015ean. Euskararen

hedapenari eta erabilerari buruzko pertzepzioari lotuta, azken urte honetan gora egin du, 2014ko datuen aldean. Datozen urteotan ikusiko dugu joera horri eusten zaion ala ez.

Arlo honetan egindako galderen erantzunekin (galdetegiko 18e, 22a, 22b, 22c, 22d eta 24e itemak) atzerriko immigrazioak euskal gizartean duen eraginari buruzko pertzepzioaren indizea landu dugu. Indizearen eskala 0tik 10 puntura doa; horrenbestez, immigrazioak euskal gizartean duen eraginari buruzko ikuspegi negatiboagoa dutenak 0 puntura hurbilduko dira eta ikuspegi positiboagoa dutenak 10 puntura.

Beste behin ere estatistika aldetik alde esanguratsuak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean, gurutzaketa edo goiburuko aldagaien arabera. Horrenbestez, honako hau da immigrazioak euskal gizartean duen eraginari buruzko iritzi positiboa agertu eta, horrela, jarrera tolerantena erakutsi duten pertsonen profila:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- 20.000 eta 150.000 biztanle arteko udalerrietan bizi diren pertsonak (7,30 puntu)
- Gipuzkoan bizi diren pertsonak (7,23 puntu)
- Erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak (7,77) eta goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (7,37 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura dauden pertsonak (7,19) eta egoera horren ardurarik ez dutenak (7,00 puntu)
- Estatus sozioekonomiko altua eta erdi-mailako altua duten pertsonak (7,38 puntu)
- Krisiaren ondorio arinak baizik jasan ez dituzten pertsonak (7,16)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Batez ere euskaldun sentitzen diren pertsonak (7,13), eta espainiar bezain euskaldun sentitzen direnak (6,87 puntu)
- Beren burua oso abertzaletzat duten pertsonak (7,33), abertzale moderatutzat dutenak (7,10 puntu) eta nazionalismoekiko ezaxolatzat dutenak (6,78).
- Euskaraz hitz egiten duten pertsonak (7,14 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona baikorrak (7,16) eta beren burua ez baikortzat eta ez ezkortzat ez duten pertsonak (7,24 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen normalak (7,30) eta onak dituzten pertsonak (7,19 puntu)
- Bertakoak gehiago diren auzoetan bizi diren pertsonak (7,17 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin noiz edo noiz hartu-eman duten pertsonak (7,49 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin noiz edo noiz hartu-eman duten pertsonak (7,23) eta hartu-eman handia dutenak (7,08 puntu)
- Aisialdian etorkinekin noiz edo noiz hartu-eman duten pertsonak (7,23) eta hartu-eman handia dutenak (7,34 puntu)

Beste muturrean, immigrazioarekiko jarrera uzkurrena agertu duten pertsonen profila dugu. Immigrazioak euskal gizartean duen eragin sozialari buruzko ikuspegi negatiboa dute pertsona horiek, eta hortik beren jarrera uzkurra. Hauexek dira:

– Ezaugarri soziodemografikoak

- Hiriburuetan bizi diren pertsonak (6,66 puntu)
- Araban bizi diren pertsonak (6,69 puntu)
- Ikasketarik gabeko pertsonak (6,48), eta lehen mailako ikasketak dituztenak (6,52 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez dauden pertsonak (6,55 puntu)
- Estatus sozioekonomiko baxua duten pertsonak (6,86 puntu)
- Krisiaren ondorio arinak baizik jasan ez dituzten pertsonak (6,71 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Batez ere espainiar sentitzen diren pertsonak (6,01 puntu)
- Beren burua nazionalista espainiartzat jotzen duten pertsonak (6,07 puntu)
- Euskaraz hitz egiten ez duten pertsonak (6,79 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:


- Pertsona ezkorak (6,32 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen txarrak dituzten pertsonak (6,64 puntu)
- Etorkinen eta bertakoen nahasketa dagoen auzoetan bizi diren pertsonak (6,50 puntu)
- Eremita pribatua etorkinekin harremanik ez duten pertsonak (6,74) eta hartu-eman handia dutenak (6,73 puntu)
- Eremita publikoan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (6,53 puntu)
- Aisialdian etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (6,47 puntu)

### Iritzi orokorra: harremanen bilakaera

Immigratzaile gehiagoren etorrera dela-eta zenbait arlotan –hala nola ekonomian, euskal identitatean eta gizarte-ongizatean– bertako biztanleriak sumatzen duen eragina aztertuta, jakin nahi izan dugu euskal biztanleen eta atzerritarren harremana hobetu ala txartu egin den azken urtean.

Oro har, Euskadiko gizartearen iritziz (% 71,8), bertako herritarren eta atzerritarren arteko harremana ez da aldatu azken urtebetean; nolana ere, baten batzuek (% 16,4k) uste dute harremanak okerrera egin duela, eta % 9k hobera egin duela. Datu horiek 2014koekin alderatuz gero, ikusiko dugu iazko joerari eusten diogula, eta, are gehiago, harremanak hobetu egin direla uste dutenen ehunekoak pixka bat gora egin duela: % 7,6tik % 9ra. Bilakaerari erreparatuta, ikusiko dugu 2009tik 2013ra bitartean bildutako jarrera muturrekoagoetatik hona aldaketa gertatu dela.


15. grafikoa. Bertako herritarren eta etorkinen arteko harremanaren bilakaera. 2007-2015



Zure ustez, euskal herritarren eta atzeritarren arteko harremanak hobera egin du azken urtebetean, okerrera, edo lehengo berean dirau? (G8)

Amaitzeko, eta immigrazioak EAEko gizartean duen ondorioen dimentsioak aztertu ondoren, inkestari erantzun dietenei balorazio orokorra egiteko galdetu diegu. Balorazioa Otik 10era egin da: 0 immigrazioak oso ondorio negatiboak dituela uste badute, eta 10 oso ondorio positiboak dituela uste badute. Bada, EAEko gizartea banatuta dago: batzuek uste dute ondorio positiboak dituela (% 36,6) eta beste batzuek kontrakoa (% 30,1). EAEko gizarteak immigrazioaren etorreraren ondorioei buruz egiten duen balorazio orokorra hobetu egin da 2014tik hona: 10etik 4,7 zen 2014an, eta 5 2015ean.

16. grafikoa. EAEko gizarteak immigrazioaren ondorioei buruz egiten duen balorazio orokorra



Oro har, zer ondorio ditu, zure ustez, atzeritar immigranteen etorrerak, positiboak ala negatiboak? Emadazu 0 (oso ondorio negatiboak) eta 10 (oso ondorio positiboak) arteko puntuazioa. (G25)

### Immigrazioaren ondorio globalari buruzko pertzepzioaren indize sintetiko-partziala

Esparru horretako bost galderei (8, 18k, 24b, 24c, 24d eta 25 itemak) emandako erantzunekin, atzerriko immigrazioak sortutako eragin orokorren pertzepzioari buruzko indize partziala landu dugu. Indizearen eskala Otik 10 puntura doa; horrenbestez, immigrazioak duen eragin orokorri buruzko ikuspegi negatiboena dutenak 0 puntura hurbilduko dira, eta ikuspegi positiboena dutenak 10 puntura.

Ikerketa-eremu horretan ere estatistika aldetik alde esanguratsuak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean, gurutzaketa edo goiburuko aldagaien arabera. Horrenbestez,

honako hau da immigrazioaren eragin orokorrari buruzko pertzepzioan jarrera toleranteena erakutsi duten pertsonen profila:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- Gizonezkoak (5,87 puntu)
- 18 eta 29 urte bitarteko pertsonak (6,30 puntu)
- Goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak (6,53) eta erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (6,66 puntu)
- Gipuzkoan bizi diren pertsonak (6,30 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin gustura dauden pertsonak (6,09), eta egoera horren ardurarik ez dutenak (5,71 puntu)
- Ikasleak (6,86 puntu)
- Estatus sozioekonomiko altua eta erdi-mailako altua duten pertsonak (6,56 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Batez ere euskaldun sentitzen diren pertsonak (5,89), eta espainiar bezain euskaldun sentitzen direnak (5,56 puntu)
- Beren burua oso abertzaletzat duten pertsonak (5,92), eta abertzale moderatutzat dutenak (5,86 puntu)
- Euskaraz hitz egiten duten pertsonak (6,10 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona baikorrak (5,97) eta beren burua ez ezkortzat eta ez baikortzat ez duten pertsonak (5,97 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen onak (6,13) eta normalak dituzten pertsonak (6,07 puntu)
- Etorkin asko dauden auzoetan bizi diren pertsonak (5,87 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin hartu-emanen duten pertsonak (6,21 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin noiz edo noiz hartu-emanena duten pertsonak (6,03) eta hartu-eman handia dutenak (5,91 puntu)
- Aisialdian etorkinekin noiz edo noiz hartu-emanen duten pertsonak (6,13) eta hartu-eman handia dutenak (5,64 puntu)

Beste muturrean, immigrazioarekiko jarrera uzkurrena agertu duten pertsonen profila dugu. Immigrazioari buruzko ikuspegi negatiboa dute pertsona horiek, eta hortik beren jarrera uzkurra. Hauexek dira:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- Emakumezkoak (5,54 puntu)
- 64 urte edo gehiagoko pertsonak (5,41 puntu), 45 eta 64 urte bitartekoak (5,67 puntu), edo 30 eta 44 urte bitartekoak (5,73 puntu).
- Ikasketarik gabeko pertsonak (5,04), eta lehen mailako ikasketak dituztenak (5,15 puntu)

- Bizkaian bizi diren pertsonak (5,40) eta Araban bizi direnak (5,52 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez dauden pertsonak (5,08 puntu)
- Etxeko lanetan ari diren pertsonak eta etxekoandreak (5,18), langabeak (5,44), erretirodunak (5,50), eta pertsona aktiboak (5,89 puntu)
- Estatus sozioekonomiko erdi-mailako baxua duten pertsonak (5,79), eta baxua dutenak (5,47 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Batez ere espainiar sentitzen diren pertsonak (4,70 puntu)
- Beren burua nazionalista espainiarizat jotzen duten pertsonak (4,96 puntu)
- Euskaraz hitz egiten ez duten pertsonak (5,30 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona ezkorak (4,98 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen txarrak dituzten pertsonak (5,26 puntu)
- Etorkinen eta bertakoen nahasketa dagoen auzoetan bizi diren pertsonak (5,33 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin harreman handia duten pertsonak (5,64) eta hartu-emanik ez dutenak (5,40 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (5,12 puntu)
- Aisialdian etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (5,07 puntu)

### Immigrazioak euskal gizartean duen eragina

Euskal gizarteak immigrazioa nola ikusten duen aztertzen badugu, ikusten da euskal gizarteari kezka eragiten diotela ekonomiarekin, enpleguarekin eta ongizate-sistemaren zenbait elementuekin zerikusia duten alderdi batzuek. Bestalde, ez da horrelako kezka edo pertzepzio negatiborik ikusten identitatearekin, euskararekin edo nazionalismoarekin zerikusia duten gaitan.

Datuei erreparatuta, immigrazioari buruz egiten den debate sozialak ez du identitatearekiko eta euskararekiko lotura-eraginik ageri Euskal Autonomia Erkidegoan. Gaiak bereizten direnez, ez da sortzen gizarte osoari erasaten dion pertzepzio negatiborik. Immigrazioaren problematikak lotura estuagoa du kezka sozioekonomikoekin, nortasunari buruzko kezkekin baino.

Ekonomiaren gaineko eraginak aztertuz gero, 2015eko barometroan efektu onuragarriaren pertzepzioa gailentzen da kaltegarriaren gainetik, baina modu anibalentean. Hala, gehiago dira immigratzaileen etorrerak lana aurkitzeko aukera kaltetzen dutelako ustearen aurka daudenak, baina, aldi berean, immigrazioak langabezia handitzen duela uste dutenak ere gehiago dira.



Horrekin batera, gehiengoak uste du etorkinei esker ekonomia hobeto dabilela, bertokoek nahi ez dituzten lanpostuak hartzen dituztelako. Eta gehienek ez dute uste soldata jaitsi egiten denik etorkinen etorreraren ondorioz. Era berean, gehienek uste dute etorkinak beharrezkoak direla gure ekonomiaren sektore batzuetan lan egiteko.

Aurreko barometroekin alderatuta, argi eta garbi ikusten da ikuspegi positiboagoa dagoela immigrazioak lan-merkatuan eta ekonomian dituen ondorioei buruz. Ildo horretan, geroz eta jende gutxiagok uste du immigrazioak langabezia handitzen duenik. Era berean, krisi ekonomikoaren garaietan immigrazioa lehiatzat jotzen bazen ere, 2015. urtean beharrezkotzat jotzen da, krisi ekonomikoaren hasieraren (2010-2011) pareko balioekin.

Izan ere, krisi ekonomikoak iritzi orokorrean eragiten du, enplegua suntsitu eta baliabide gutxiko biztanleen arriskua eta hauskortasuna areagotzen duelako. Alabaina, egoera ekonomikoa hobetu ahala, immigrazioaren eta lan-merkatuaren inguruko jarrerak hobetu egiten dira.

Immigrazioak ongizate-sisteman dituen ondorioak direla eta, gizarte-laguntzak eskuratzeko ondorio negatiboak nabarmentzen dira 2015ean ere, baina aurreko urteetan baino gutxiago. Izan ere, krisi ekonomikoa abiatu zenetik, aurten lehenengoz gailendu dira jarrera positiboak jarrera negatiboen gainetik. Azken buruan, 2014ko barometroarekin alderatuta, bertoko biztanleriaren kezka apaldu egin da hainbat alorretan (gizarte-laguntzak eskuratzeko edo ospitaleetan luzaroago zain egon behar izatea) eta mantendu edo pixka bat gora egin du kezka gutxien eragiten duten gaietan (etxebizitza eskuratzeko edo kalitate txarragoko irakaskuntza jasotzea).

Gizarte-alorreko murrizketak egiten ari dira administrazioak eta, aldi berean, gero eta gehiago dira gizarte-laguntzak behar dituztenak; testuinguru horretan, ondorioz, bertako herritarren iritzia okertu egin da immigrazioak ongizate-estatuan duen eragina baloratzeko garaian. Kezka nagusia gizarte-laguntzak dira, atzerriko eta bertako pertsonak baliabide horiek eskuratzeko lehian sartzen baitira. Halere, aurreko urteetako kezkak behera egin du krisi ekonomikoaren azken urte honetan.

## Harrerako komunitatearen eta etorkinen arteko bizikidetza eta integrazioa

“Harrerako komunitatearen eta etorkinen arteko bizikidetza eta integrazioa” atal honetan landuko dira bizikidetza-ereduak, estereotipoak eta aurreiritziak, eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera, harreman-eremuak eta kultura-ohiturak mantentzea, begikotasuna eta integrazio-mailaren pertzepzioa.

### Bizikidetza-ereduak

Atal honetan aztertuko dugu ea bertako biztanleek begi onez ikusten duten eta babestu egiten duten immigrazioa dela-eta instituzioek, erakundeek, antolakundeek eta gizarte-mugimenduek bultzatzen duten kultura-aniztasunaren eredua.

Bertako biztanleen % 57,5ek dio (17. grafikoa) beste etnia-talde batzuetako immigratzaile atzeritarrek aberastu egiten dutela Euskadiko bizitza kulturala, eta % 22,6k ez du uste hori horrela denik. 2014ko datuekin alderatuta, gora egin du kultura-aniztasunaren aldeko jarrerak: % 49,7 2014an eta % 57,5 2015ean. Bilakaerari erreparatuta, 2010etik hona gora egin du atzerriko immigratzaileen eta beste talde etniko batzuen etorrerak aberastasuna dakarrelako iritzia duten pertsonen ehunekoak.

17. grafikoa. EAEko biztanleen arteko bizikidetza-ereduak



Beste talde etniko batzuetako atzeritar etorkinek aberastu egiten dute Euskadiko kultura-bizitza (2004tik 2009ra: Ona da euskal gizartearentzat kultura, etnia eta erlijio desberdinez osatua izatea, aurreko barometroetan) (G18h)

18. grafikoa. EAEko biztanleen arteko bizikidetza-ereduak




Euskal gizartearentzat, hobe da den-denek ohitura eta tradizio berak partekatzea (G18b)

EAEko biztanleen % 50,1ek uste du hobe dela ohitura eta tradizio berak partekatzea, eta % 27,1ek ez du uste horrek horrela izan behar duenik EAEko gizartea hobe izateko. Datuok 2014koekin alderatuz gero, ohartuko gara baieztapen horrekin ados dauden ehunekoak behera egin duela 2014ko % 58,2tik 2015eko % 50,1era. Eta, ildo berean, ohitura eta tradizio berberak partekatzea ez dela garrantzitsua uste dutenen ehunekoak gora egin du.

Halere, eta 2012ko barometrotik hona aipatu dugun bezala, 2004tik 2011ra EAEko gizartea banatuta egon da, alde batetik asimilazioaren aldekoak eta bestetik kultura-aniztasunaren aldekoak. Urte horretatik aurrera, berriz, joera hautsi eta asimilazioaren aldeko eredu nagusitzen hasi da. Hau da, gehiago dira EAEko gizartearentzat bertako pertsona guztiek ohitura eta tradizio berak partekatzea hobe dela uste dutenak.

19. grafikoa. EAEko biztanleen arteko bizikidetzaren ereduak




*Euskal gizartearentzat hobe da den-denek, bertakoek nahiz etorkin eta atzerritarrek, harrerako herrialdeko hizkuntzetan hitz egitea (2004tik 2011ra: Euskal gizartearentzat hobe da den-denek, etorkinek eta bertakoek, hizkuntza bera hitz egitea). (G18c)*

Aurreko urteetan bezala, jakin nahi izan dugu ea bertoko pertsonak aldeko jarrera berdina duten jatorrizko hizkuntzan ari diren etorkinen aurrean (19. grafikoa). Gehiengo zabalak (% 78,5) uste du pertsona guztiek (immigratzaileek eta atzerritarrek) harrerako herrialdeko hizkuntzak erabili behar dituztela. 2015eko barometroan 2004ko antzeko balioak ikusi ditugu.

Galdeketari erantzun diotenek kultura-aniztasunari buruz duten iritzia aztertu ondoren, ikus dezagun beren irudiko aniztasun hori nola kudeatu beharko litzatekeen eta zein diren bizikidetzaren eredu egokienak.


EAEko biztanleen % 63,9ren iritziz, bertako herritarrek ez dute zertan ahaleginik egin etorkinen zenbait ohitura eta tradizioen berri jakiteko eta haietara egokitzeko (20. grafikoa). Jarrera horrek gorako joera txikia izan du 2014tik 2015era.

20. grafikoa. EAEko biztanleen arteko bizikidetza-ereduak



Euskadin bizikidetza hobetzeko, bertakoek ahalegina egin beharko lukete etorkinen ohitura eta tradizio batzuen berri izateko eta haietara egokitze (G18a)

21. grafikoa. EAEko biztanleen arteko bizikidetza-ereduak



Erabat onartuak izateko, immigranteek baztertu egin beharko lituzkete gure legediarekin bat ez datozen beren erlijio- eta kultura-alderdiak (G18i)


Inkestari erantzun dioten biztanleen % 63,8ren iritziz, immigratzaileak guztiz onartuak izateko, bertoko legeriarekin bat ez datozen erlijio- eta kultura-kontuak baztertu egin behar dituzte (21. grafikoa). 2004tik aurrera, etorkinen asimilazioaren aldeko ikuspegi horrek gorabeherak izan ditu. 2004 eta 2008 bitartean, asimilazioaren aldeko ikuspegiak gora egin zuen eta, ondoren, beherako joera gertatu zen 2011. urtera arte. Ordutik aurrera asimilazioaren aldeko ikuspegia mantendu egin da 2014ra arte, eta gora egin du 2015ean.

Atal honekin bukatzeko, bertako biztanleei galdetu diegu nork egin behar duen bizikidetza hobea lortzeko ahalegina, etorkinek ala den-denek: nola immigratzaileek hala bertakoek.

EAEko biztanleen gehiengoaren ustez (% 70,4), immigratzaileak integartzeko prozesua atzerri-tarren eta bertakoen artean banatu behar da (22. grafikoa). Halere, ahalegina immigratzaileek egin behar duten galdetuz gero, % 80,5 baieztapen horrekin ados agertu da (23. grafikoa), eta % 7,2 baizik ez da horren kontra agertu. Azken urteotako bilakaerak adierazten du herritar gehie-


nek asimilazioaren aldeko ereduak hobesten dutela. Hala, eredu horren arabera, etorkinek egin beharko lukete euskal gizartean integratzeko ahalegina, gure ohiturak eta tradizioak hartuz.

22. grafikoa. EAEko biztanleen arteko bizikidetza-ereduak




*Bizikidetza hobetzeko, guztiok egin behar dugu ahalegina, bai atzerriko etorkinek, bai bertakoek. (G18I) \*Galdera berria 2012ko Barometroan.*

23. grafikoa EAEko biztanleen arteko bizikidetza-ereduak



*Euskadin bizikidetza hobea izateko, etorkinek ahalegindu beharko lukete gure ohitura eta tradizioak bereganatzen (G18g)*

24. grafikoa. Zure udalerrian edo auzoan bertokoen eta atzeritarren artean dagoen bizikidetza- eta harreman-giroa (%)



*Baloratu Otik 10era zure udalerrian edo auzoan dagoen bizikidetza-giroa eta hartu-emanen giroa, bertako herriarren eta etorkinen artean (G7)*

Bertoko herritarren gehiengoaren ustez, harreman- eta bizikidetza-giro positiboa dago bertokoen eta etorkinen artean. EAEko gizartea banatuta ageri da: alde batetik bizikidetza onargarria (% 28,7), ona (% 33) eta oso ona (% 13,5) dela uste dutenen artean, eta bizikidetza hori negatibotzat jotzen duen gutxiengo batean artean, bostetik beherako puntuazioa emanda (% 21,8).

Oro har begiratuta, udalerrian edo auzoan bertokoen eta etorkinen artean dagoen bizikidetza- eta harreman-giroa onargarria da, 10etik 5,6 puntu lortuta.

Gaiari buruzko galderen erantzunekin (17a, 17b, 17c, 17g, 17h eta 17i itemak) euskal biztanleek bizikidetza-ereduen gainean duten jarrerari buruzko indizea landu dugu, 0 puntutik 10era bitartekoa. Horrela, immigrazioarekiko jarrera asimilatzaileena, uzkurrena eta negatiboena dutenak 0 puntura gerturatu dira indize horretan, eta jarrera positiboena, irekiena, pluralena, ekin-tzaileena eta kulturartekoena dutenak 10 puntura.

Beste behin ere estatistika aldetik alde esanguratsuak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean, gurutzaketa edo goiburuko aldagaien arabera. Horrela, kulturartekotasunaren aldeko jokabidearen bidez jarrera toleranteena duten pertsonen profila osatu dugu. Hauxe da:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- 18 eta 29 urte bitarteko pertsonak (4,06 puntu), eta 30 eta 44 urte bitartekoak (3,83 puntu)
- 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerrietan bizi diren pertsonak (3,61), 20.000 eta 150.000 biztanle arteko udalerrietan bizi direnak (3,59) eta hiru lurraldeetako hiriburuetan bizi direnak (3,59 puntu).
- Goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak (4,14), eta erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (4,02 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Familian eta hilean 2.500 eurotik gorako diru-sarrerara garbiak dituzten pertsonak (3,84), eta 1.800 eta 2.500 € arteko sarrerak dituztenak (3,70 puntu)
- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin pozik dauden pertsonak (4,04 puntu)
- Ikasleak (4,44 puntu)
- Estatus sozioekonomiko altua duten pertsonak (4,19 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Euskaraz hitz egiten duten pertsonak (3,71 puntu)
- Agnostikoak, ateoak eta erlijioarekiko axolarik ez dutenak (3,91 puntu)
- Batez ere euskaldun sentitzen diren pertsonak (3,64), eta espainiar bezain euskaldun sentitzen direnak (3,49 puntu)
- Ezkerreko ideologia duten pertsonak (3,65), eta zentro-ezkerrekoa dutenak (3,64 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona baikorrak (3,64 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen onak (3,89) eta normalak dituzten pertsonak (3,96 puntu)

- Eremu pribatuan etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (3,92 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (3,84 puntu)

Beste muturrean, immigrazioarekiko ikuspegi asimilatzaileena eta, beraz, jarrera uzkurrena agertu duten pertsonen profila dugu. Hauexek dira:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- 65 urtetik gorako pertsonak (2,97 puntu)
- 5.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi direnak (3,04 puntu)
- Lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak (2,99 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Familian eta hilean 1.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrera garbiak dituzten pertsonak (3,25 puntu)
- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez dauden pertsonak (3,26) eta egoera horren ardurarik ez dutenak (3,39 puntu)
- Erretirodunak (3,11) eta etxekoandreak (2,87 puntu)
- Estatus sozioekonomiko erdi-mailako baxua duten pertsonak (3,25), eta baxua dutenak (3,31 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Euskaraz hitz egiten ez duten pertsonak (3,34 puntu)
- Pertsona katoliko elizkoiak (3,30 puntu) eta ez-elizkoiak (3,43 puntu)
- Batez ere espainiar sentitzen diren pertsonak (3,04 puntu)
- Eskuineko ideologia duten pertsonak (3,14 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona ezkorak (3,37 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen txarrak dituzten pertsonak (3,18 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin noizbehinkako hartu-emanak duten pertsonak (3,49) eta inolako hartu-emanik ez dutenak (3,41 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin noizbehinkako hartu-emanak duten pertsonak (3,46) eta inolako hartu-emanik ez dutenak (3,29 puntu)

### Estereotipoak eta aurreiritziak


Atal honetan aztertuko dugu zenbateraino dauden indarrean hemengo biztanleen artean etorkinei buruz gehien zabaldua dauden estereotipoak; hau da, azken batean, integrazioa zailtzen duten estereotipoak.

Zehazki, aztertuko dugu zer ikuspegi duen hemengo biztanleriak etorkinen erlijio-praktikei buruz, gizarte zahartzearen arazoan duten eraginari buruz, gizarte-babeseko sistematik jasotzen duten onurari buruz, segurtasunaren arloan duten eraginari buruz, zergekin duten erlazioari buruz eta haien etorrerak langabeziaren gorakadan duen eraginari buruz.

Zaila da estereotipo horiei guztiei aurre egitea, gizartean oso erroturik daudelako eta, hain onartuak egonik, gizartean horma edo egitura ia hautsiezina eratzen dutelako. Nahiz eta egitura hori ia aldaezina den, haren iraupenaz eta gizarte-hedaduraz zantzu batzuk ageri dira.

Alderdi horiek aztertu ondoren, estereotipo eta aurreiritzi jakin batzuk zenbateraino errotuta dauden adierazten duen indize sintetikoaren emaitzak aurkeztuko ditugu. Gero, ondorio batzuk azalduko ditugu, laburpen gisara.

## 25. grafikoa. EAEko biztanleriaren estereotipoak




*Haien erlijio-praktikek arriskuan jartzen dute gure bizimodua (G18e)*

Bertoko herritarrak ez daude etorkinen erlijio-praktikekin kezkatuta. Inkestatuen % 51,1ek ez du uste praktika horiek beren bizimodua arriskuan jar dezaketarik, eta, aldiz, % 30,7k baietz uste du (25. grafikoa).

Bilakaerari erreparatuta, ez dago etorkinen erlijio-praktikak bertakoen bizimodurako mehatxu izan daitezkeen pertzepzioaren zantzurik.

## 26. grafikoa. Etorkinen etorrerak zahartzearen arazoa konpon dezake. 2010-2015



*Etorkinen etorrerak zahartzearen ondorioz sortutako arazoak konpon ditzake (G18k)*

26. grafikoan ikus dezakegunez, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen zahartzea dela eta, bertako herritarren zati handi batek (% 49,4) onartzen du etorkinak Europara etorrita zahartzearen ondorioz sortu ohi diren arazoak konpon daitezkeela, eta, aldiz, herritarren % 24,4k ez du




uste horrela izango denik. Azterketa demografikoek hori horrela ez dela erakutsi badute ere, jakin nahi genuen Europako eta Euskadiko gizartean egiturazko arazo horrekiko ekarpen instrumentalak zenbateraino baldintza zezakeen immigrazioaren onarpena. Ildo horretan, biztanleen zati bat baieztapen horrekin bat dator, eta azken urteetan kopuruak gora egin du.

Etorkinei buruzko beste estereotipo negatibo batzuei dagokienez, estereotipo horiek areagotu egin dira azken urteotan, eta gure gizartean immigrazioaren kontrako eguneroko diskurtsoan mamitu dira. Azter ditzagun, bada, estereotipo horietako batzuk. Diskurtsoak ez datoz bat errealitatearekin, baina sinesgarritasun eta jarraipen handia izaten dute gizartean. Estereotiporik ohikoenen artean daude, besteak beste, gizarte-babesa eta zergak, hiri-segurtasuna eta nortasun-ezaugarriak.

**Gizarte-babesa eta zergak.** EAEko biztanleen % 54,2ren ustez, etorkinak gehiegi baliatzen dira gizarte-babeseko sistemaz, eta % 26,4k, berriz, kontrakoa pentsatzen du (27. grafikoa). Datu horiek aurreko urteetakoekin alderatuz gero, krisi ekonomikoa hasi zenetik baxuenak direla ikusiko dugu.

27. grafikoa. Gizarte-babeseko sistemaz baliatzea




*Etorkinek onura handiegia jasotzen dute gizarte-babeseko sistematik (G18d)*

Etorkinek ordaintzen dituzten zergei eta trukean jasotzen duten ordainari buruz bertoko biztanleriak duen ikuspegi dela eta (28. grafikoa).

Galdera alderantziz egin dugu 2010. urtetik aurrera, ikusita item horrek hobeto azaltzen duela euskal gizartean indarrean den beste estereotipoetako bat; alegia, etorkinek zergetan ekarpen txikiagoa egiten duteneko. Bada, aurreko barometroetan jasotakoaren ildo beretik, “immigratzailerik ondoren jasotzen dutena baino zerga gutxiago ordaintzen” dutelako estereotipoak bizirik dirau EAEko gizartean. Galdeketari erantzun dioten % 44,4k uste du etorkinek zerga gutxiago ordaintzen dutela ondoren jasotzen dutena baino, eta % 25,2k kontrako ustea du.


28. grafikoa. Immigrazioaren zergak, ekarpena eta detrakzioa



2010etik aurrera: etorkinek zerga gutxiago ordaintzen dute ondoren jasotzen dutena baino (2004tik 2009ra: etorkinek zerga gehiago ordaintzen dute jasotzen dutena baino) (G18f)

**Herritarren segurtasuna.** Aurreko urteetan bezala, horixe da immigratzaileen kolektiboari kale handienetakoa egiten dion estereotipoa, immigrazioa eta herritarren segurtasun-gabezia lotzen dituelako. 29. grafikoa ikus daitekeenez, hemengo biztanleen % 41,4k uste du atzeritarrek segurtasun falta eta delinkuentzia sortzen dutela eta, aldiz, % 39,6k ez du horrela uste. Bestela esanda, bi uste kontrajarri daude: immigrazioa eta delinkuentzia lotzen dituen, eta erlazio hori inolaz ez dagoela dioena. Esan daiteke 2004az geroztik EAEko gizarte inoiz ez dela horren banatuta egon estereotipo horren inguruan.

29. grafikoa. Segurtasunik eza eta delinkuentzia




Atzeritarrek segurtasun-falta eta delinkuentzia handitzen dute (Etorkinen etorrerak modu negatiboan eragiten du herritarren segurtasunean) (G6g)

Aurretiaz aipaturiko estereotipoen gain, hirugarren urtez jarraian aztertu ditugu kalean entzuten diren iritzi eta iruzkinak, EAEko gizarteak immigrazioarekin dituen estereotipoak eta aurreiritziak eraikitzen laguntzen dutelakoan. Horrela, honako estereotipo hauekiko adostasun-maila ezagutu nahi izan dugu: “etorkinak gizarte-laguntzetatik bizi dira”, “immigrazioak matxismoa eta genero-indarkeria indartzen ditu”, “etorkinek lana kentzen dute”, “etorkinek ez dute integratu nahi”, “ikasle etorkinek eskoletako hezkuntza-maila beheratzen dute”.

Emaitzei erreparatuta, EAEko biztanleriaren erdiak (% 51,9) uste du etorkinak gizarte-laguntzetatik bizi direla, eta % 44k uste du immigrazioak matxismoa eta genero-indarkeria areagotzen dituela.

30. grafikoa. Bertoko biztanleen estereotipoak immigratzaileekiko (%)




Alabaina, herritarren gehiengoa ez dago ados kalean aipatzen diren beste estereotipo batzuekin; adibidez, ez dute uste “immigratzaileek lana kentzen” dutenik (% 53,4) edota ikasle etorkinek eskoletako hezkuntza-maila jaitsarazten dutenik (% 58,4).

Azkenik, beste estereotipo batzuekiko tarteko jarrerak ikusten ditugu; adibidez, immigratzaileek ez dutela integratu nahi. Kasu horretan EAEko biztanleak banatu egiten dira: % 37,1 adierazpen horrekin ados dago, % 30,8 aurka, eta % 29,3k jarrera anbibalentea du.

Bertako biztanleek etorkinez daukaten irudiari buruzko atal hau bukatzeko, jakin nahi izan dugu bertako herritarrek etorkinez zer pertzepzio duten, euren buruaz duten pertzepzioarekin alderatuta. Horretarako, bi kolektiboak definitzeko erabiltzen diren topikoetako batzuk erakutsi dizkiegu: matxismoa, zintzotasuna, adeitasuna, ardura, langile izatea eta elkartasuna.

Oro har, esan daiteke bertako biztanleriak etorkinei buruz nahiko irudi ona duela, matxismoaren gaian izan ezik; izan ere, biztanleriaren bi herenek (% 58,4) uste dute atzeritarrek matxistagoak direla hemengoak baino. Aztertutako gainerako alderdiei erreparatuta, bertoko biztanleen gehiengoak uste du etorkinak berdina berdina direla zintzoak (% 75,1), adeitsuak (% 75,2), solidarioak (% 64,6), langileak (% 69,9) eta arduratsuak (% 70,4).

31. grafikoa. Etorkinei buruzko pertzepzioa, euskal biztanleekin alderatuta



Euskaldunekin alderatuta, etorkinak ez dira/badira hain... (G16)

Horretaz gain, euskal biztanleek beren buruaz iritzi zertxobait hobea dute atzerriko etorkinez baino:

- % 17,4k uste du atzeritarrak ez direla hain zintzoak (2014an, % 20,1ek).
- % 24,2k uste du bertakoek elkartasun handiagoa agertzen dutela (2014an % 20,6k)
- % 22,7k uste du bertakoak arduratsuagoak direla (2014an, % 31,9k).
- % 22,6k uste du bertakoak langileagoak direla (2014an, % 30,5ek).
- % 15,9k uste du ez direla bertakoak bezain adeitsuak (2014an, % 19,4k).

Bilakaerari begiratuta, aurreko barometroaren aldean topiko batzuek hobera egin dute: zintzotasunari, ardurari, adeitasunari eta langile izaerari buruzkoak, adibidez. Halere, txarrera egin du atzeritarrek solidarioak direlako ikuspegiak.

Atzeritarrak EAEko biztanleak baino matxistagoak direlako ikuspegiak ere behera egin du azken urtean: 3,2 puntu gutxiago. Halere, aurtengo aldaketak aldaketa, 2008. urtea erreferentziatzat hartuz gero (orduan txarra baitzen lehen aldiz estereotipo horiei buruz), iritzia zertxobait aldatu dela ikusiko dugu.

- Gora egin du atzeritarrak bertokoak bezain zintzoak (+8,8), arduratsuak (+6,2 puntu), langileak (+9,9 puntu) eta adeitsuak (+12,6 puntu) direlako pertzepzioak.
- Behera egin du, aldiz, atzeritarrak bertokoak bezain solidarioak direlako pertzepzioak (-3,4 puntu).

Aurreko ataletan egin dugun moduan, arlo honetako galderen erantzunekin (6g, 6h, 6i, 6j, 12a, 12b, 12c, 17d, 17f eta 17m itemak) indize partzial bat landu dugu, ikusteko zenbateraino dauden ezarrita euskal biztanleengan immigrazioari buruzko zenbait estereotipo eta aurreiritzi. Gainerako indizeak bezala, honako hau ere 0 puntutik 10era taxutu dugu; beraz, estereotipoak dituzten edo bultzatzen dituztenak 0 puntura hurbilduko dira, eta errealitatearekin ongien lotzen den ikuspegia dutenak edo estereotipoen eraginagatik hain ikuspegi desitxuratua ez dutenak 10 puntura.

Beste behin ere estatistika aldetik alde esanguratsuak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean, gurutzaketa edo goiburuko aldagaien arabera. Horrela, haxe da estereotipoak hain barneratuta ez dituzten pertsonen profila:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- 18 eta 29 urte bitarteko pertsonak (4,42), eta 30 eta 44 urte bitartekoak (4,39 puntu)
- Gipuzkoan bizi diren pertsonak (4,32 puntu)
- Hiru lurraldeetako hiriburuetan bizi direnak (4,29 puntu)
- Goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak (5,17), eta erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (4,79 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Familian eta hilean 1.000 eta 1.800 euro arteko diru-sarrerak garbiak dituzten pertsonak (4,10), 1.800 eta 2.500 € arteko sarrerak dituztenak (4,64), eta 2.500 eurotik gorako diru-sarrerak dituztenak (4,51 puntu)
- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin pozik dauden pertsonak (4,80 puntu)

- Ikasleak (4,85 puntu)
- Estatus sozioekonomiko altua duten pertsonak (5,12 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Euskaraz hitz egiten duten pertsonak (4,30 puntu)
- Agnostikoak, ateoak eta erlijioarekiko axolarik ez dutenak (4,76 puntu)
- Batez ere euskaldun sentitzen diren pertsonak (4,26), eta espainiar bezain euskaldun sentitzen direnak (3,85 puntu)
- Ezkerreko ideologia duten pertsonak (4,34), eta zentro-ezkerrekoa dutenak (4,50 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona baikorrak (4,52 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen onak (4,71) eta normalak dituzten pertsonak (4,41 puntu)
- Bertakoak gehiago diren auzoetan bizi diren pertsonak (4,24 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (4,40 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin noiz edo noiz hartu-emanena duten pertsonak (4,11) eta hartu-eman handia dutenak (4,34 puntu)

Beste muturrean, estereotipo horiek barneratuago izateagatik immigrazioarekiko jarrera uzkurrena ageri duten pertsonen profila dugu. Hauexek dira:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- 45 eta 64 urte bitarteko pertsonak (3,86) eta 65 urtetik gorakoak (3,60 puntu)
- Bizkaian bizi diren pertsonak (3,88 puntu)
- 5.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren pertsonak (3,73 puntu)
- Lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak (3,24 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Familian eta hilean 1.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrera garbiak dituzten pertsonak (3,45 puntu)
- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez dauden pertsonak (3,40 puntu)
- Erretirodunak (3,51), etxeko lanetan dihardutenak eta etxekoandreak (3,45 puntu)
- Estatus sozioekonomiko erdi-mailako baxua duten pertsonak (3,67), eta baxua dutenak (3,63 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Euskaraz hitz egiten ez duten pertsonak (3,78 puntu)
- Pertsona katoliko elizkoiak (3,70) eta ez-elizkoiak (3,86 puntu)
- Batez ere espainiar sentitzen diren pertsonak (3,38 puntu)
- Zentroko ideologia duten pertsonak (3,49), eta eskuinekoa dutenak (3,48 puntu)


– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona ezkorak (3,59 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen txarrak dituzten pertsonak (3,62 puntu)
- Etorkinen eta bertakoen nahasketa dagoen auzoetan bizi diren pertsonak (3,66 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (3,85 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (3,66 puntu)


### Osasun-arreta, hezkuntza, laguntza juridikoa, gizarte-laguntzak, familia berriro elkartzea, boto-eskubidea, BOEak eskuratzeko aukera, diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE)

Atal honetan aztertuko dugu zer iritzi duten bertako herritarrek, etorkinek zenbait eskubide eta zerbitzu izateko eta erabiltzeko eskubideaz. Bertako hainbat biztanleren arabera, eskubide horietako batzuek atzerriko etorkin guztien eskura egon behar lukete; beste zenbaitek uste du eskubideek erregularizatuta daudenentzat soilik izan beharko luketela; eta azkenik, beste batzuen iritziz eskubide horiek ez lukete egon behar etorkinen eskura. Zer kasutan, zein eskubide eta norentzat aztertu dugu atal honetan.

32. grafikoa. Etorkinek eskubideak eta zerbitzuak izateko laguntza



14b galdera. Osasun-laguntza jasotzeko eskubidea



14a galdera. Hezkuntza

Gutxi gorabehera hamar inkestatutatik zazpi uste dute osasun-laguntza (% 67,8) eta hezkuntza eskubide unibertsalak direla eta, ondorioz, immigratzaile guztiei aitortu behar zaizkiela, egoera erregularrean egon ala ez.


2015eko barometroaren datuak aurreko urtekoarekin alderatuta, zertxobait gora egin du etorkin guztiek osasun-arreta eta hezkuntza jasotzeko eskubidea izan beharko luketela uste duten pertsonen ehunekoak. Osasun-laguntzaren kasuan % 2,9 egin du gora eta hezkuntza-eskubidearen kasuan, % 1,5.

Segida osoko datuen bilakaerari erreparatuz gero, ikusiko dugu 2004tik 2008ra gora egin zuela eskubide horiek (osasun-laguntza eta hezkuntza) etorkin guztiei zegozkielako iritzia. Alabaina, 2009an bertoko biztanleak zorrotzago agertu ziren osasun-laguntzaren (% 66,7) eta hezkuntza-eskubidearen (% 59,7) inguruan. Hortik aurrera, ordea, 2010 eta 2011 artean, gora egin zuen osasun-arreta eta hezkuntza guztioi dagozkigula uste dutenen ehunekoak; hain zuzen, 2011koak izan ziren urteotako guztietako ehunekorik handienak: % 72,9, osasun-arretaren kasuan eta % 71,1 hezkuntzaren kasuan. 2012an, ordea, 15 puntu egin zuen behera portzentajeak (% 57,5 osasun-arretaren kasuan eta % 52,8 hezkuntzaren kasuan); hain zuzen, 2004tik egin diren barometro guztietako ehunekorik txikienak izan ziren 2012koak. Azken urtebetean, berriz, balio horietan hobera egin da, 2015eko balioetara iritsi arte.

Aldiz, aurreko bi eskubideen aldean, beste eskubide batzuk aipatzen ditugunean –esaterako, laguntza juridikoa, gizarte-laguntzak eskuratzeko aukera, familia elkartzea, boto-eskubidea, babes ofizialeko etxeak izateko eskubidea eta beste–, administrazio-egoera irregularrean daudenei ez ematearen aldekoak dira hemengo biztanle gehienak, eta, beraz, politika murritzaitaleagoren aldekoak.


Zehazki, EAEko herritarrek uste dute etorkinek egoera erregularrean egon behar dutela laguntza juridikoa jasotzeko (% 51,5), gizarte-laguntzak eskuratzeko (% 62,9), familia elkartzeko (% 60,5), boto-eskubidea izateko (% 63,6) eta babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko (% 62,1) (ikusi 33. grafikoa).

33. grafikoa. Etorkinentzako eskubideak eta zerbitzuak




14g galdera. Laguntza juridikoa






14c galdera. Gizarte-laguntzak



14e galdera. Familia biltzea



14f galdera. Boto-eskubidea



14d galdera. Babes ofizialeko etxe bat izateko eskubidea

Oro har, 2004ko datuak erreferentziatzat hartuta, esan dezakegu handitu egin dela atzeritarrei zenbait zerbitzu administrazio-egoeraren arabera eman behar zaizkiela uste dutenen ehunekoa; erregularizatuta daudenei eman behar zaizkiela, hain zuzen. Nolanahi ere, 2015ean murriztu egin da eskubide eta zerbitzuak eskuratzeko eskubidea eta egoera erregularra lotzen dituen ikuspegia dutenen ehunekoa.

Horrenbestez, inkestatuen % 30,7k uste du etorkin guztiek izan beharko luketela laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea; % 20,9k uste du guzti-guztiek izan beharko luketela gizarte-laguntzak jasotzeko eskubidea; % 17,4k uste du denek mugarik gabe izan beharko luketela familia biltzeko eskubidea; % 13,5ek pentsatzen du botoa emateko eskubidea izan beharko luketela eta, azkenik, % 18,4k uste du babes ofizialeko etxeak izateko eskubidea izan beharko luketela.

Aurreko barometroetan bezala, zalantzarik izan daiteke ea egoera erregularrean dauden immigratzaileen kolektiboaz ari garenean, bertoko herritarrek zer duten gogoan. Krisi ekonomikoa eta gizarte-politiken murrizketak gordin-gordin dauden honetan, iduri du bertako biztanleek etorkinak erregularizatzeko eta haien eskubideak mugatzeko mekanismoen alde egiten dutela.

### ***Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta***

Aurreko urteetan bezala, diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko aukerari buruz herritarrek zer iritzi duten jakin nahi izan dugu. Gai horri heltzeko, etorkinek laguntza horiek eskuratzeko hainbat aukera planteatu ditugu.


Inkestari erantzun dioten hamar lagunetatik lau (% 39,6) uste dute eskubide hori mugarik gabe aitortu behar dela, hau da, premia duten bertoko eta kanpoko herritarrei aitortu behar zaiela, erroldatuta zenbat denbora daramaten kontuan hartu gabe. EAEko gizartearen beste zati batek, ordea, eskubide hori erabiltzeko aukera aitortzen du, baina mugak ezarrita. Hau da, batzuek uste dute lehenik eta behin bertoko biztanleen premiak ase behar direla (% 24), beste batzuek egoera erregularrean egotea exijitzen dute (% 28,1), eta beste batzuek diote eskubide horiek eskuratzeko baldintzak bete behar dituztela.

2015eko barometroaren datuak 2014koekin alderatuz gero, ikusiko dugu pertzepzioa aldatu egin dela, eta behera egin duela etorkinek DBEa jasotzeko inolako eskubiderik ez dutela eta soilik bertokoentzat dela uste dutenen kopuruak (2014an % 10,3 eta 2015ean % 7,4). Ildo bereetik, behera egin du bertoko biztanle guztiek premiak ase eta gero etorkinen txanda etorriko dela dioen iritziak (2014an % 35,4 eta 2015ean % 24). Nabarmen gora egin du, berriz, zerbitzu hori egoera erregularrean dauden etorkinek soilik jasotzearen aldeko jarrerak (2014an % 17,5 eta 2015ean % 39,6).

Instituzioek DBEari buruz hartu beharreko jarrerari dagokionez, % 55,6k uste du DBEaren ondorioz etorkinek ez dutela lanik egiten edo ez dutela lanik bilatzen. % 26, ordea, ez dator iritzi horrekin bat. Halaber, bertako herritarren % 57,5en ustez, etorkinak gehiegi baliatzen dira diru-sarrerak bermatzeko errentaz, eta, azkenean, berenganatu egiten dute.

Datu horiek 2014ko barometrokoekin alderatuz gero, ikusiko dugu behera egin duela immigratzaileek DBEaz gehiegi baliatu eta azkenean eurenganatu egiten dutela pentsatzen dutenen ehunekoa: 2014an % 64,2 ziren eta 2015ean % 57,5. Ildo bereetik, behera egin du DBEak etorkinek lanik ez bilatzea edo lanik egin nahi ez izatea eragiten duela uste dutenen kopuruak.


34. grafikoa. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko aukera



12. galdera. Zer jarrera hartu behar dute instituzioek DBEaren inguruan?

Aurreko barometroan esan dugun bezala, azterlan honetan immigratzaileekiko jarrera baizik neurtzen ez badugu ere, beste galdera bat pausatu beharko genuke: ea jarrera horrek atzeritarrentzat soilik balio duen, ala biztanleria osorako balio duen. Azkenaldian, krisia dela eta, eztabaida publikoa sortu da ea laguntza horiek benetan eraginkorrak diren eta norentzako izan beharko luketen; izan ere, gerta daiteke testuinguru horren eraginez hemengo jendearen susmo txarrak eta beldurak handitzea.

35. grafikoa. Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko politika



13. galdera. Eusko Jaurlaritzak, Lanbideren bidez, diru-sarrerak bermatzeko errenta deritzon zerbitzua dauka.... Zure ustez, aipatutako horietatik zein jarrera hartu beharko lukete erakundeak?

***Prestakuntza profesionalarekin eta hizkuntzak ikastearekin loturiko zerbitzuak, bai etorkinen berezko hizkuntza edo ama-hizkuntza, bai tokian tokikoak ikasteko***


Ondoren, beste zerbitzu edota programa batzuekin jarraituz, jakin nahi izan dugu EAEko herritarrek zer iritzi duten etorkinek beste zenbait zerbitzu doan eskuratzeari. Prestakuntza profesionala jasotzeko eta hizkuntzak ikasteko (bai etorkinen berezko hizkuntza edo ama-hizkuntza, bai tokian tokikoak) aukerez ari gara, funtsean (36. grafikoa).

Ama-hizkuntza ikasteko zerbitzuari dagokionez, EAEko biztanleria banatuta dago: batzuek (% 34) uste dute inork ez lukeela eskubide hori izan behar, eta beste batzuek (% 32,3) soilik egoera erregularrean daudenentzat edo guztientzat (% 30,4) izan behar dela.

Euskarazko eskolei dagokienaz, batzuek (% 44,9) diote guztientzat izan behar dela eta beste batzuek (% 32,3) egoera erregularrean daudenentzat soilik.

Antzeko zerbitzu gertatzen da gaztelaniazko eskolekin, hor ere batzuek (% 47,6) uste baitute guztientzat antolatatu behar direla, eta beste batzuek (% 39,5), aldiz, egoera erregularrean daudenentzat soilik.


36. grafikoa. Etorkinek eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko duten aukera



14d galdera. Ama-hizkuntza



14c galdera. Euskarazko eskolak



14b galdera. Gaztelaniazko eskolak



14a galdera. Prestakuntza profesionaleko ikastaroak

Prestakuntza profesionaleko ikastaroetara dagokienez, berriz ere banatzen dira iritziak, immigratzaile guztientzat antolatu behar direla eta egoera erregularrean daudenentzat soilik antolatu behar direla uste dutenen artean.

Arlo horretako galdera batzuei emandako erantzunekin (13a, 13b, 13c, 13d, 13e, 13f, 13g, 14a, 14b, 14c eta 14d itemak) indize partzial bat landu dugu, ikusteko zer jarrera duten euskal biztanleek atzerriko etorkinek eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeari buruz. Indize hori 0 eta 10 puntu artekoa da; horrela, jarrera uzkurrena edo itxiena dutenak 0 puntutik hurbilago ageri dira, eta jarrera positiboena eta irekiena dutenak 10 puntutik hurbilago.

Beste behin ere estatistika aldetik alde esanguratsuak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean, gurutzaketa edo goiburuko aldagaien arabera. Horrela, jarrera toleranteena eta irekiena ageri duten pertsonen profil hau dute:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- 18 eta 29 urte bitarteko pertsonak (6,54), eta 30 eta 44 urte bitartekoak (6,31 puntu)
- Gipuzkoan bizi diren pertsonak (6,55 puntu)
- 20.000 eta 150.000 biztanle arteko udalerrietan bizi diren pertsonak (6,24 puntu)
- Ikasketarik ez duten pertsonak (6,18), bigarren mailako ikasketak dituztenak (6,43), erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (6,41) eta goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (6,81 puntu)

## – Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Familian eta hilean 1.800 eta 2.500 € arteko diru-sarrerak dituztenak (6,35), eta 2.500 eurotik gorako diru-sarrerak dituztenak (6,94 puntu)
- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin pozik dauden pertsonak (6,95 puntu)
- Ikasleak (7,47 puntu)
- Estatus sozioekonomiko altua duten pertsonak (6,88) eta erdi-mailako estatusa dutenak (6,34 puntu)

## – Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Euskaraz hitz egiten duten pertsonak (6,48 puntu)
- Agnostikoak, ateoak eta erlijioarekiko axolarik ez dutenak (6,75 puntu)
- Batez ere euskaldun sentitzen diren pertsonak (6,43 puntu)
- Ezkerreko ideologia duten pertsonak (6,65), eta zentro-ezkerrekoa dutenak (6,62 puntu)
- Beren burua oso abertzaletzat duten pertsonak (6,42), eta abertzale moderatutzat dutenak (6,28 puntu)

## – Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona baikorrak (6,44 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen onak (6,72) eta normalak dituzten pertsonak (6,72 puntu)
- Bertakoak gehiengo diren auzoetan bizi diren pertsonak (6,32 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (6,75 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin noiz edo noiz hartu-emanena duten pertsonak (4,11) eta hartu-eman handia dutenak (6,47 puntu)

Beste muturrean dugu eskubide eta zerbitzuak eskuratzeko jarrera murriztaileena erakutsi dutenen profila, eta, beraz, immigrazioarekiko jarrera uzkurrena agertu dutenena. Hauexek dira:

## – Ezaugarri soziodemografikoak:

- 65 urtetik gorako pertsonak (5,69 puntu)
- Bizkaian bizi diren pertsonak (5,95) eta Araban bizi direnak (5,86 puntu)
- 5.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren pertsonak (5,66 puntu)
- Lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak (5,34 puntu)

## – Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Familian eta hilean 1.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrera garbiak dituzten pertsonak (5,53 puntu)
- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez dauden pertsonak (5,60) eta egoera horren ardurarik ez dutenak (5,94 puntu)
- Lanean ari diren pertsonak (6,12), langabezian daudenak (6,12), erretirodunak (5,65), eta etxeko lanetan dihardutenak eta etxekoandreak (5,55 puntu)
- Estatus sozioekonomiko erdi-mailako baxua duten pertsonak (5,97), eta baxua dutenak (6,00 puntu)

## – Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Euskaraz hitz egiten ez duten pertsonak (5,75 puntu)
- Pertsona katoliko elizkoiak (5,82) eta ez-elizkoiak (5,94 puntu)
- Batez ere espainiar sentitzen diren pertsonak (5,24), eta espainiar bezain euskaldun sentitzen direnak (5,76 puntu)
- Zentroko ideologia duten pertsonak (5,45), eta eskuinekoa dutenak (5,07 puntu)
- Beren burua nazionalista espainiartzat jotzen duten pertsonak (5,69 puntu)


## – Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona ezkorak (5,95), eta beren burua ez ezkortzat eta ez baikortzat ez duten pertsonak (5,96 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen txarrak dituzten pertsonak (5,59 puntu)
- Etorkin asko dagoen auzoetan bizi diren pertsonak (5,79 puntu)
- Eredu pribatuan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (5,78 puntu)
- Eredu publikoan etorkinekin hartu-emanen bat edo beste duten pertsonak (6,06) eta inolako hartu-emanik ez dutenak (5,83 puntu)

## Harremanetarako eta kultura-jarraibideei eusteko eremuak

Ondoren, bertako biztanleak eta atzerriko etorkinak non erlazionatzen diren aztertuko dugu, harremanetarako eta elkarreraginerako zer espazio dituzten. Lehenik eta behin, bizitoki-eremuen tipologia planteatu dugu (atzeritar gehiago edo gutxiago bizi diren eremuak), jakiteko galdekaturako pertsonak zein bizitoki motatan nahiago duten bizi. Eta bestetik, atzerriko etorkinen kultura-ohiturekin lotutako gaiak planteatu dizkiegu, kultura-aniztasuneko edo kulturartekotasunezko testuinguruetan gerta daitezkeen aldaketak eta sor daitezkeen ohitura berriak zein neurritan onartzen dituzten jakiteko.

37. grafikoa. Bizitoki-eremuekin loturiko lehentasunak



20. galdera. Non bizi nahi duzun erabaki beharko bazenu, hiru leku hauetatik zein aukeratuko zenuke?

Bizitoki-eremuei dagokienez (37. grafikoa), hemengo biztanleen gustuak ez dira askorik aldatu, egin izan diren barometroetan. Inkestatuen % 67,4k nahiago du, aukeran, bere arraza edo talde etniko bereko pertsonak gehiago diren auzoren batean bizi. Galdekaturakoen laurden batek (% 22,3k) nahiago du bere auzoan inor ez izatea euskal biztanlerian gehiengo den arraza edo

talde etnikotik kanpokoa. Azkenik, % 6,5ek baino ez luke nahi arraza eta talde etniko askotako pertsonak bizi diren toki batean bizi.

Bertoko biztanleriak, aurreko barometroetan adierazitakoaren ildo beretik, gaur egun bizi den antzeko ingurunean bizi nahi du; izan ere, Bilboko eta Gasteizko auzo zaharretan kokatutako biz-pahiru lekutan izan ezik, esan daiteke ez dagoela kontzentrazio etniko nabarmenik.


Atal hau bukatzeko, aztertuko dugu zenbaterainoko tolerantzia duen hemengo biztanleriak etorkinak hemen finkatzearen ondorioz eta haien kultura- eta erlijio-ohiturei eustearen ondorioz sortu ohi diren egoerekiko. Horretarako, zehaztasun handiagoz jokatzeko eskatu diegu inkestatuei, eta galdetu diegu ea ondo ala gaizki iruditzen zaizen atzerritarrek saltokiak, jatetxeak eta janari-dendak irekitzea, elkarren artean beren hizkuntzan hitz egitea, beren janzkera erabiltzea, gurtzarako tenpluak izatea, beren ikastetxeak izatea, eta lanpostu eta toki publikoak betetzea. Aurtun, gurtzarako toki bat (meskita bat) irekitzearen inguruko tolerantzia-mailari lotutako galdera bat proposatu dugu, eta eztabaida sor lezakeen beste ekipamendu batekin (diskoteka batekin) alderatu dugu.

38. grafikoa. Etorkinen kultura-ereduekiko tolerantzia-maila







Elikagaien saltoki propioak izatea




Elkarren artean beren hizkuntza erabiltzea




Euren janzkera erabiltzea




Beren erlijioetarako tenpluak eraikitzea



## Plaza eta espazio publikoak hartzea



## Euren ikastetxeak izatea



g17. Ondo edo gaizki iruditzen zaizu atzeritarrek...


Immigratzailearen ondorioz sortzen den eta gehien onartzen den egoeretako bat saltoki propioen irekiera dago (% 64,7); ondoren datoz jatetxe exotiko edo atzeritarrek irekitzea (% 60,3) eta elikagaien saltoki propioak irekitzea (% 56,8).

Beste muturrean, bertokoek tolerantzia gutxiago adierazi dute atzeritarrek euren janzkera propioa erabiltzearen inguruan (% 31,9), ikastetxe propioak izatearen inguruan (% 34,9) eta euren erlijioetarako tenpluak zabaltzearen inguruan (% 40).

Kultura-ohituen inguruko tolerantzia tarteko mailan kokatzen da: atzeritarrek elkarren artean euren hizkuntzan jardutea (% 52,3) eta plaza eta espazio publikoak hartzea (% 50,3).

Bilakaerari erreparatuta, 2008tik 2015era kultura-ereduekiko tolerantzia-maila aldatu eta, kasu batzuetan, jarrera toleranteagoak hartu dira baina beste batzuetan, aldiz, tolerantzia txikiagokoak. Alde batetik, 2008tik hona honako hauekiko tolerantzia maila handiagoa adierazi dute bertako biztanleek: ikastetxe propioak izatea (+11,9), plaza eta espazio publikoak hartzea (+31,5), euren erlijioetarako tenpluak irekitzea (+13,6), saltokiak zabaltzea (+7,8), elkarren artean euren hizkuntzan aritzea (+9,9), elikadura-saltoki propioak izatea (+7,2) eta komertzio propioak zabaltea (+12,5). Aitzitik, behera egin du euren janzkera erabiltzearen inguruko tolerantzia-mailak (-3,3).

39. **grafikoa.** Nahitaez aukeratu behar izango bazenu, zer nahiago duzu zeure etxe azpian: meskita ala diskoteka?



21. galdera: Nahitaez aukeratu behar izango bazenu, zer nahiago duzu zeure etxe azpian: meskita ala diskoteka?

Gurtzarako guneen inguruan gizartean sortu den eztabaidaren harira, zehazki, bertoko biztanleek gai horrekiko duen jarrera ezagutu nahi izan dugu, ea etxe azpian zer nahiago duten: meskita ala diskoteka.

Illo horretan, % 45ek meskita nahiago du, % 34k diskoteka, eta % 21ek Ed/Ee. Bitxia da EAEko biztanleen ia heren batek nahiago duela diskoteka meskita baino, nahiz eta, itxuraz behintzat, diskotekak traba gehiago eragin. Illo beretik, nabarmentzekoa da galdera horren aurrean egon den zalantza kopuru handia, % 21ek ez baitu erantzun. Itxuraz, behintzat, ez dakite zeren alde egin.

Arlo horretako galderei emandako erantzunekin (16a, 16b, 16c, 16d, 16e, 16f, 16g, 16h, 19 eta 27 itemak) harremanetarako espazioak direla-eta euskal biztanleek duten jarrerari buruzko indize partziala landu dugu. Indize hori 0 eta 10 puntu artekoa da; horrela, elkartrukerako jarrera uzkurrena edo itxiena dutenak 0 puntutik hurbilago ageri dira, eta jarrera pluralena eta irekiena dutenak 10 puntutik hurbilago.

Beste behin ere estatistika aldetik alde esanguratsuak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean, gurutzaketa edo goiburuko aldagaien arabera. Horrela, jarrera toleranteena ageri duten pertsonen profil hau dute:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- Gizonezkoak (5,83 puntu)
- 18 eta 29 urte bitarteko pertsonak (6,08), eta 30 eta 44 urte bitartekoak (6,05 puntu)
- Goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (6,54 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Familian eta hilean 2.500 euro baino gehiagoko diru-sarrera garbiak dituzten pertsonak (6,46 puntu)
- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin pozik dauden pertsonak (6,48 puntu)
- Ikasleak (7,27 puntu)
- Estatus sozioekonomiko altua duten pertsonak (6,25) eta erdi-mailako estatusa dutenak (6,08 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Euskaraz hitz egiten duten pertsonak (5,87 puntu)
- Agnostikoak, ateoak eta erlijioarekiko axolarik ez dutenak (6,15 puntu)

- Soilik euskaldun sentitzen diren pertsonak (5,77), eta espainiar bezain euskaldun sentitzen direnak (5,28 puntu)
- Ezkerreko ideologia duten pertsonak (6,09), eta zentro-ezkerrekoa dutenak (5,98 puntu)
- Beren burua oso abertzaletzat duten pertsonak (5,83 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona baikorrak (5,88 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen onak (6,20) eta normalak dituzten pertsonak (6,03 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin noiz edo noiz hartu-emanak (5,84) eta hartu-eman handia dutenak (5,95 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (6,00 puntu)

Beste muturrean, immigrazioarekiko jarrera uzkurrena hartzen duten pertsonak daude. Hauexek dira:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- Emakumezkoak (5,28 puntu)
- 65 urtetik gorako pertsonak (4,76 puntu)
- Lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak (4,71 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Familian eta hilean 1.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak garbiak dituzten pertsonak (4,86 puntu)
- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez dauden pertsonak (4,95) eta egoera horren ardurarik ez dutenak (5,34 puntu)
- Erretirodunak (4,89), etxeko lanetan dihardutenak eta etxekoandreak (4,61 puntu)
- Estatus sozioekonomiko erdi-mailako baxua duten pertsonak (5,14), eta baxua dutenak (5,20 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Euskaraz hitz egiten ez duten pertsonak (5,20 puntu)
- Pertsona katoliko elizkoiak (4,98 puntu)
- Soilik espainiar sentitzen diren pertsonak (4,65 puntu)
- Zentroko ideologia duten pertsonak (4,96), eta eskuinekoa dutenak (4,75 puntu)
- Beren burua nazionalista espainiartzat jotzen duten pertsonak (5,05 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona ezkorak (5,26), eta beren burua ez ezkortzat eta ez baikortzat ez duten pertsonak (5,44 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen txarrak dituzten pertsonak (5,04 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (5,23 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (5,02 puntu)


### Begikotasuna eta integrazio-mailaren pertzepzioa

Galdekatutako herritarrek hainbat herrialdeetako etorkinenganako sentitzen duten begikotasuna aztertuko dugu atal honetan.

Otik 10erako eskala batean neurtu dugu begikotasun hori, kontuan hartuta Ok esan nahi duela etorkinak ez dituztela batere begiko eta 10ek oso begiko dituztela. Hala, 40. grafikoak adierazten duenez, kultura, politika eta gizarte aldetik hurbilen dituen kolektiboak begikotasun handiagoz ikusten ditu euskal gizarteak, eta alderantziz:

- Begikotasun handiena eragiten dute Mendebaldeko Europar Batasunetik datozenek (6,2), Argentinatik datozenek (5,9) eta Saharaz hegoaldeko Afrikatik datozenek (5,8) eta AEBtik datozenek (5,7).
- Adeitasunik txikiena, berriz, Magrebetik (3,8), Errumaniatik, Ekialdeko Europatik (4,2) eta beste jatorri batzuetatik (Pakistanetik, adibidez) datozenek eragiten dute.
- Tarteko puntuazioak Latinoamerikatik datozenek eskuratu dituzte: Ekuadorretik (5,5), Paraguitik eta Nikaraguitik (5,4) bai eta Asiatik/Txinatik datozenek ere (5,1).


40. grafikoak. Etorkinenganako begikotasun-maila eta integrazteko aitortzen zaien interesa, etorkinen jatorrizko herrialdearen arabera



19. galdera. Esan, mesedez, Otik 10erako eskalan, ondorengo herrialdeetako edo munduko eskualdeetako pertsonetara sentitzen duzun begikotasuna. Ok esan nahi du ez dituzula batere begiko eta 10ek oso begiko dituzula.

41. grafikoak ikus dezakegunez, bertokoek kolektibo batzuenenganako eta besteenganako duten begikotasunak ez du aldaketa handirik izan 2007tik hona, eta aztertutako kolektiboenganako lehenetsunak berdin jarraitzen du, gutxi gorabehera.

41. grafikoa. Etorkinenganako begikotasun-maila, etorkinen jatorrizko herrialdearen arabera. 2007tik 2015era



\*2012ko barometrotik aurrera, Nikaraguako eta Paraguaiako nazionalitateak gehitu dira.

## Harrerako komunitatearen eta etorkinen arteko bizikidetza eta integrazioa

**Bizikidetza-eredua.** Kultura anitzeko gizarte baten aldekoak dira EAEko herritarrak, baina asimilazio-ikuspegi argi batetik. Aniztasuna onartzen du euskal gizarteak eta aitortzen du aberastu egiten duela gizartea bera, baina, aldi berean, bertako pertsona gehienek uste dute, bizikidetza hobetzeko, immigratzaileek bertako ohiturak eta tradizioak eskuratzen saiatu behar luketela. Nabarmenezkoa da, hala ere, % 72,4ren iritziz ahalegin hori guztiok egin beharrekoa dela.

Hori horrela izanda ere, EAEko gizartea ez dago bere ohitura eta tradizioei uko egiteko prest, bizikidetza hobetzeko xedez. Argigarria da jarrera horien berri izatea, eragina baitu bizikidetza-ereduan eta kontrajarria baita kulturen arteko bizikidetza-ereduarekiko.

Asimilazio-ikuspegiak gero eta indar handiagoa duela ikusten da 2015eko barometroko emaitzak aurreko urteetako datuekin alderatuta. Immigrazioaren fenomenoaren errealitate gero eta egonkorragoa eta egiturazkoagoa da gure gizartean. Bertako herritarrak gero eta gehiago jabetzen dira gizarte-errealitate berri horretaz, etorkinen eta bertakoen arteko elkarreragina gero eta handiagoa baita eta, horren ondorioz, kulturen arteko gero eta bizikidetza-egoera gehiagotan egokitzen dira bertakoak, garai batean sortzen ez zitzaizkien egoeretan. Egoera berri honek asimilazioaren aldeko erreakzioak sorrarazi ohi ditu. Gorabidean diren errealitate berrien aurrean norberaren ohiturak, gure gizartean nagusi direnak, babestea da erantzun horien funtsa eta helburua. Gizarte-jarrera hori nahiko normala da immigrazioa gertakari nahiko urri eta apartekoa izatetik egiturazko fenomeno sozial, egonkor eta garrantzitsua izatera igarotzen ari den gizarteetan.

Illo orokor horren baitan, euskal gizartean **estereotipo** batzuk gailentzen dira migrazioaren fenomenoarekin lotuta; hala nola, gehiegizko onura ateratzen dutela gizarte-babeseko sistematik, jasotzen dutena baino zerga gutxiago ordaintzen dituztela eta segurtasun faltaren eta delinkuentziaren eragile direla. Horrez gainera, bertako biztanleriarekin alderatuta, hemengo jende gehienak uste du euskal herritarrak baino matxistagoak direla atzerritarrak. Halere, gehiengoak uste du bertoko herritarrak bezain zintzoak, solidarioak, errespetutsuak, langileak eta adeitsuak direla. Halaber, etorkinek zahartzearen arazoa konpon dezaketela uste dute galdekatutako pertsona gehienek.

Gizarte-babeseko sistematik gehiegizko onura ateratzen dutela, jasotzen dutena baino zerga gutxiago ordaintzen dituztela eta segurtasun faltaren eta delinkuentziaren eragile direla berresten duten estereotipoekin bat datozenen ehunekoak gora egin du 2015ean, aurreko urteetako datuekin alderatuta.

Bestalde, euskal gizarteak pentsatzen du gizarte-eskubideak eta -zerbitzuak eskuratzeko, immigratzaileek modu erregularrean bizi behar dutela Euskal Autonomia Erkidegoan. Osasunaren eta hezkuntzaren arloak dira atzeritar guztientzat hobesten diren eskubide eta zerbitzu bakarrak, atzeritarrak erregularizatuak izan ala ez. Ez dago gehiengo iritzi garbi bat prestakuntza eskuratzeko eta hizkuntzak ikasteko aukerei dagokienez.

Atzeritarren usadio eta ohituren adierazpenari dagokionez, bertako biztanleek jarrera irekiagoz hartzen dituzte zerbitzu bat eman diezaieketen alderdiak eta kultura-aniztasunaren kanpoko elementutzat edo elementu estetikutzat har daitezkeen alderdiak, hala nola, merkataritza etnikoa edo atzeritarrek irekitako saltokiak. Merkataritza-bide berri horiek onura garriak direla uste du euskal gizarteak eta jende gehienak onartu egiten ditu.

Aurten ere onarpen-maila handi-handia du, hein txikiagoan bada ere, atzeritarrek elkarren artean euren hizkuntzan aritzea, eta plaza eta espazio publikoak erabiltzea. Hala ere, kultura-aniztasunarekin lotuago dauden beste elementu batzuekiko jarrera itxiagoa dute EAEko herritarrek; adibidez, ez dituzte hain begi onez hartzen beren usadio eta ohituren adierazpenak, eta zehazki beren erlijioetarako tenpluak eraikitzea. Onarpena baino arbuioa handiagoa da baldin eta diferentziak eragiten dituzten alderdiak jatorrizko janzkera erabiltzearekin eta hezkuntza-esparruarekin loturik badaude.

2014ko datuen aldean, kultura-ereduak begi hobez ikusten dira, euren janzkera erabiltzea izan ezik; kasu horretan, onarpen-mailak pixka bat behera egin du.

Azkenik, etorkinak jatorriz zein herrialdeetakoak diren kontuan hartuta, bertako herritarrek haiekiko adierazitako begikotasunaren harira, barometroak erakusten du begikotasuna handiagoa dela argentinarekiko eta Mendebaldeko EBko herritarrekiko. Eta, beste muturrean, begikotasun hori txikiagoa dela Magrebeko, Errumaniako eta Ekialdeko EBko herritarrekiko. Jatorrizko herrialdearen arabera etorkinenganako begikotasunaren bilakaera aztertuz gero, Magreb, Errumania eta ekialdeko herrialdeak ageri dira beti azken lekuetan.

Eta datuak aurreko barometroetakoekin alderatuta ere, nazionalitate horiek dira bertakoen artean begikotasun gutxien sortzen dutenak.

## Immigrazio-politika


Azken atal honetan, erantzunen arabera euskal erakundeek zer-nolako immigrazio-politika egin behar duten aztertuko dugu. Horretarako, immigrazio-politikarik egokienari buruz, kanporatzeko arrazoiei buruz eta babes politikoa eskatzen duten pertsonekin hartu beharreko politikari buruz galdetu diegu bertako herritarrei.

Ondoren, hartu beharreko migrazio-politikari buruzko indize sintetikoaren emaitzak aurkeztu ditugu eta, azkenik, ondorioak atera ditugu, atala laburbiltzeko.

### Sartzea, bertan gelditzea eta kanporatzea

Lehenik eta behin, jakin nahi izan dugu zer iritzi duten hemengo biztanleek immigrazio-politikarik egokienari buruz eta etorkinei hemen sartzeko eskatzen zaizkien baldintzei buruz. 42. grafikoan ikus daitekeen bezala, bertoko biztanleen % 56,5ek uste du lan-kontratua dutenei soilik utzi behar zaiela sartzeko, eta % 14,9 ados dago legezko beste baldintzak betetzen dituzten immigratzaileei ere ireki behar zaiela atea (familia biltzeko, ikasleak, errefuxiatuak...).

42. grafikoa. Immigrazio-politika euskal biztanleen arabera<sup>1</sup>



9. galdera. Zure ustez, zein litzateke etorkinekiko immigrazio-politika egokiena?

Beraz, ia pertsona guztiak dira atzeritarrei sartzeko baldintzen aldekoak, baldin eta immigrazio-prozesua legezko baldintzen arabera egiten bada; hau da, lan-kontratua tartean bada edo legezko beste baldintza batzuk betetzen badira (% 81,3). Herritarren % 11,6, berriz, etorkin guztiei

<sup>1</sup>2011ra arteko barometroetan hauek ziren galdera eta erantzuna: Zure ustez, zein litzateke langile etorkinekiko immigrazio-politika egokiena? a) Inolako lege-eragozpenik gabe sartzeko; b) Lan-kontratua dutenei soilik sartzeko; c) Atzerriko etorkinei erabat debekatzea EAEn sartzeko.




sartzen uztearen aldekoa da, lege aldetik inolako oztoporik jarri gabe, eta beste % 6,6, aldiz, etorkinei sartzen uztearen erabat kontrakoa da. Azken zifra hori, nolanahi ere, oso txikia da.

Bilakaerari erreparatuta, azken urtean lege aldetik inolako oztoporik jarri gabe etorkin guztiei sartzen uztearen aldeko jarrerak gora egin du: 2014an % 8,7 ziren eta 2015ean % 11,6. Immigratzaileei atea erabat ixtearen aldeko jarrerak ere gorakada txikia izan du: 2014an % 5,9 eta 2015ean % 6,6.

Ikusten da, beraz, bertako jendeak immigrazioarentzat gehien onesten duen sarbide-sistema lan-kontratuaren bidezkoa dela. Sarbiderako faktore bat bada enplegua, zein dira, bertako jendearen ustez, immigrazio-politika batek izan beharko lituzkeen irizpideak immigratzaileak hemen mantendu edo kanporatzeko? 43. grafikoak erakusten duenez, bertako biztanleriaren % 62,9k uste du lanik gabe gelditzea ez dela inor kanporatzeko arrazoi, eta hamarretik bik (% 22,9) uste du lanera datozen atzerritarrak lanik gabe geldituko balira kanporatu egin behar lituzketela.

2014ko datuekin alderatuta, jarrera bat edo bestea berdin dienen ehunekoak nabarmen behera egin du: % 22,1etik % 12,7ra. Aitzitik, atzerritarra aldi batez langabezian egotea kanporatzeko arrazoa delako ideiarekin aldekoek eta kontrakoek, bi taldeek egin dute gora (+4,7 ideia horren alde daudenak, eta +5,9 ideia horren aurka daudenak).

43. grafikoa. Etorkinak bertan gelditzeko eta kanporatzeko faktoreak. 2007-2015




6d galdera. Lanera datozen atzerritarrak denbora batez lanik gabe gelditzen badira, kanporatu egin beharko lituzkete

Bertoko biztanleria, ordea, zorrotzagoa da legea betetzearen gaiarekin (44. grafikoa). Galdeketari erantzun dioten erdiek (% 48,1) uste dute delitu bat egiten duten atzerritarrak kanporatu egin behar direla; hamarretik hiruri (% 33,1), berriz, edo ez zaio iruditzen inork kanporatzeko arrazoa denik, edo ez du aldeko edo kontrako jarrerarik hartzen (% 17,4).

2014ko barometroarekin alderatuta, 2015ean gutxiago dira delitua egitea kanporatzeko arrazoa dela uste dutenak (% 62,9 2014an eta % 48,1 2015ean) eta gora egin dute, aldiz, hori kanporatzeko arrazoa ez dela uste dutenak (% 22,1 2014an eta % 33,1 2015ean). Aurreko urteetan bezala, bertakoen ustez, atzerritarrak kanporatzeko eta immigrazio-politika zorrotzagoa egiteko arrazoi handiagoa da delituaren esparrua, lanekoa baino. Delituaren karga etorkinaren gain ikus-

ten du, eta, lanari dagokionez, aldiz, badirudi etorkinaren aldekoago dela, eta ez dela hura baztertzearen aldekoa.

44. grafikoa. Etorkinak bertan gelditzeko eta kanporatzeko faktoreak




6f galdera. Kanpotik etorri den batek delituren bat eginez gero, herrialdetik kanporatu beharko lukete

### Egoera irregularrean dauden etorkinekiko politika

Etorkinekiko politika egokienari buruz eta kanporatzeko balizko arrazoi batzuei buruz hemengo biztanleen iritzia aztertuta, jakin nahi izan dugu beren iritziz erakundeek zein ildori jarraitu beharko lioketen administrazio-egoera irregularrean dauden atzerritarren kasuan.

45. grafikoa. Egoera irregularrean dauden etorkinekiko politika



10. galdera. Zure ustez, zer egin beharko luke Gobernuak egoera irregularrean dauden etorkinekin?

Galdekatuen % 47,2k uste du gobernuak lana duten atzeritar guztiak erregularizatu egin beharko lituzkeela (45. grafikoa). Halaber, % 17,2k uste du etorkin guztiak erregularizatu behar lituzketela; eta % 10,8k egoitza-baimenik ez duten guztiak kanporatu beharko lituzketela. Datu horiek 2014ko barometroekin alderatuz gero, ikusiko dugu badirela aldaketa aipagarri batzuk: lana duten pertsonak soilik erregularizatzearen aldekoak gutxitu egin dira (2014an % 54,1 eta 2015ean % 47,2), pixka bat gora egin du immigratzaile guztiak erregularizatzearen aldekoen kopuruak (% 15,6tik % 17,2ra) eta gora egin du, halaber, horren inguruko jarrerarik hartu ez dutenen ehunekoak (% 7,8tik % 13,4ra).


### Babes politikoa eskatzen duten pertsonen politikak

Babes-politika eskatzen duten errefuxiatuekin egin beharreko politikari buruz hemengo jendeak zer iritzi duen ere jakin nahi izan dugu. 44. grafikoan ageri denez, % 45,2 babesa ematearen aldekoa da, egiaztatuta baldin badago jazaritzen ari zaizkiela; % 22,1ek uste du murrizterik gabe babestu beharko lirakekeela, eta babes-politika eskatzen duten kopuru mugatu bat hartzearen aldekoa da % 10.

2014ko barometroaren aldean, mugarik gabe babestu direla dioten pertsonen kopuruak gora egin du (% 17,8tik % 22,1era), eta behera egin du urtean kopuru bat baino hartu behar dutela uste dutenena (% 18,5etik % 10era). “Jazarrita daudela egiaztatuz gero, mugarik gabe hartzea” iritzia dagokionez, ia berdina mantentzen dela esan daiteke, puntu bat baino ez baitu egin behera.

Bilakaerari erreparatuta, 2008tik gaur egun arte aldaketa batzuk egon badira ere, oro har, EAEko gizartearen gora egin du mugarik gabe babestearen edo jazarrita daudela egiaztatuz gero babestearen aldeko jarrerak.

46. grafikoa. Babes politikoa eskatzen duten pertsonen politikak



11. galdera. Zure ustez, zer egin beharko litzateke babes politikoa eskatzen duten pertsonekin? Zer da, zure ustez, jokabiderik egokiena?

Arlo horretako galderari emandako erantzunekin (6d, 6f, 8, 9 eta 10 itemak) hartu beharreko migrazio-politikaren gainean euskal gizarteak duen jarrerari buruzko indize partziala landu dugu.

Indize hori 0 eta 10 puntu artekoa da; horrela, jarrera itxiena eta murriztaileena dutenak 0 puntutik hurbilago ageri dira, eta jarrera positiboena eta irekiena dutenak 10 puntutik hurbilago.

Beste behin ere estatistika-alde esanguratsuak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta beste artean, gurutzaketa edo goiburuko aldagaien arabera. Horrela, jarrera toleranteena eta irekiena ageri duten pertsonen profil hau dute:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- 18 eta 29 urte bitarteko pertsonak (5,22), eta 30 eta 44 urte bitartekoak (5,20 puntu)
- Bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonak (5,17) erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (5,42), eta goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (5,68 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin pozik dauden pertsonak (5,38 puntu)
- Ikasleak (6,05 puntu)
- Estatus sozioekonomiko altua duten pertsonak (5,72) eta erdi-mailako estatusa dutenak (5,27 puntu)

– Ezaugarri ideologiko-identitarioak:

- Euskaraz hitz egiten duten pertsonak (5,29 puntu)
- Agnostikoak, ateoak eta erlijioarekiko axolarik ez dutenak (5,45 puntu)
- Batez ere euskaldun sentitzen diren pertsonak (5,28 puntu)
- Ezkerreko ideologia duten pertsonak (5,36), eta zentro-ezkerrekoa dutenak (5,35 puntu)
- Beren burua oso abertzaletzat duten pertsonak (5,21), eta abertzale moderatutzat dutenak (5,18 puntu)

– Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:

- Pertsona baikorrak (5,32 puntu)
- Etorkizunari begira aurreikuspen onak (5,32) eta normalak dituzten pertsonak (5,27 puntu)
- Eremu pribatuan etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (5,30 puntu)
- Eremu publikoan etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (5,39 puntu)

Beste muturrean, migrazio-politikarekiko ikuspegi murriztaileena erakutsi eta, beraz, immigrazioarekiko jarrera uzkurrena agertu duten pertsonen profila dugu. Hauexek dira:

– Ezaugarri soziodemografikoak:

- 65 urtetik gorako pertsonak (4,71 puntu)
- Lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak (4,37 puntu)

– Ezaugarri sozioekonomikoak:

- Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez dauden pertsonak (4,74) eta egoera horren ardurarik ez dutenak (4,96 puntu)

- Lanean ari diren pertsonak (5,18), langabeak (4,83), etxekoandreak (4,77) eta erretirodunak (4,69 puntu)
  - Estatus sozioekonomiko erdi-mailako baxua duten pertsonak (4,70), eta baxua dutenak (4,82 puntu)
- Ezaugarri ideologiko-identitarioak:
- Euskaraz hitz egiten ez duten pertsonak (4,73 puntu)
  - Pertsona katoliko elizkoiak (4,78) eta ez-elizkoiak (4,91 puntu)
  - Batez ere espainiar sentitzen diren pertsonak (4,06 puntu)
  - Zentroko ideologia duten pertsonak (4,71), eta eskuinekoa dutenak (4,43 puntu)
  - Beren burua nazionalista espainiartzat jotzen duten pertsonak (4,62 puntu)
- Ezaugarri psikosozialak eta harremanekin loturikoak:
- Pertsona ezkorak (4,69), eta beren burua ez ezkortzat eta ez baikortzat ez duten pertsonak (4,98 puntu)
  - Etorkizunari begira aurreikuspen txarrak dituzten pertsonak (4,76 puntu)
  - Eremu pribatuan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (4,82 puntu)
  - Eremu publikoan etorkinekin inolako hartu-emanik ez duten pertsonak (4,52 puntu)

## Immigrazio-politika

Laburbilduz, euskal gizarteak oraindik ere immigratzaileen lan-egoerarekin lotzen du, neurri handi batean, migrazio-politika. Izan ere, galdekatuak izan diren pertsona gehienek onartzen dute immigratzaileen etorrera, baldin eta lan-kontraturik badute. Halere, tesi horrek indarra galdu du azken bi urteotan.

Bestalde, behin bertara etorri ondoren, jendeak ez du uste lana galtzeak immigratzailea kanporatzeko arrazoi izan behar duenik; izan ere, gehienek uste dute ez direla kanporatu behar aldi batez lanik gabe geratzen diren atzerritarrak. Jarrera horrek gora egin du azken urtean. Aldiz, delituak egin izana da, bertako jendearentzat, atzerritarrak kanporatzeko arrazoi nagusietako bat. Halere, 2014ko barometroaren aldean, behera egin du uste hori defendatzen duten pertsonen ehunekoak.

Aurreko urteetan bezala, lan-kontratuak garantia inplizitu batzuk dituela uste du harrerako gizarteak, etorkinaren integrazioa pausoz pausokoa izango denaren nolabaiteko bermea ematen diolako; hori horrela, etorkinak hemen finkatzeak sor dezakeen ziurgabetasuna gainditzen da.

Beraz, lan-kontratua, sartzeko baldintza izateaz gain, atzerritarrak erregularizatzeko oinarria ere bada, bertako biztanleen begietara. Bertako jendeak uste du lan-kontratua erabakigarria dela immigrazioa “kontrolatua” izateko; izan ere, komunikabideetan eta gizarte-diskurtsoetan nagusi den irudiaren arabera, immigrazio-fluxua masiboa eta kontrolik gabekoa da, eta etorkinak “uholdeka” datoz. Halere, ideia horrek indartsu jarraitzen badu ere, gorabeherak izan ditu aldi honetako krisi ekonomikoaren eta migrazio-fluxuen ondorioz.

Lan-kontratuak beste muturra adierazten du, harrerako gizartearen behar eta kopuruetara egokitutako immigrazioarena, hain zuzen. Izan ere, halaxe da; immigrazioa beharrianetara moldatzen da, izan hura legezko edo legez kanpoko, baina harrerako gizarteak ez du horrela ikusten.

### 3. Immigrazioaren aurreko tolerantzia-indizea: tipologia bat

2007an lehen aldiz tolerantzia-indizea prestatu genuenetik hona urtero egiten dugun bezala, 2015ean ere, EAEko herritarrek atzerriko pertsonen etorreraren aurrean duen jarrera laburbiltzen duen balioa eskuratu dugu. Urteroko argitalpen hau lehen aldiz eskuratzen dutenei esango diegu indize horren balioa Orik 100era doala, eta zifra bakar batean biltzen dituela pertsonen galderasortako 65 galderari (itemen diskriminatzaileenei –bereizleenei–) emandako erantzunak. Horixe da, hain zuzen, Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak atzerriko immigrazioaren aurrean EAEko gizarteak dituen iritzi eta jarrerari buruz urtero egiten duen barometroaren oinarria.

Indize hori ulertzeko, esango dugu Immigrazioarekiko Tolerantziari buruz aurreko urteetan izandako definizio berbera mantentzen dugula: euskal jatorriko herritarrek atzerriko immigratzaileekiko duten enpatia-gaitasuna, estereotipo negatiboen aurreko erreaktantzia, “besteenganako” konfiantza eta “gureganako” malgutasuna (nazionalismo metodologikoa gainditzeko gaitasuna). Hizkera arruntagoan, euskal gizartearen “ahultasunaren pertzepzio subjektiboa” neurtzeko adierazlea da immigrazioarekiko gure tolerantzia-indizea. Aurreko urteetako barometroen beste txosten batzuetan ere adierazi izan dugu: pertsonen segurtasuna, konfiantza eta orainari eta etorkizunari aurre egiteko tresnak dituztela sentitzen duten neurrian (nortasunaren berezko ezaugarrien ondorioa, edota emozio, ekonomia, ongizate eta abarren aldetik ingurune pertsonal eta sozial sendoa edukitzearen ondorio izan daiteke hori), mehatxu sozial eta pertsonal gutxiago sentitzen dute etorkinen etorrera dela-eta, erreparo eta errezero gutxiago adierazten dute, eta gure eskalan puntu gehiago eskuratzen dituzte. Eta alderantziz.

Indizearen oinarrian dauden 65 galderak 2014an erabili genituen berberak dira (ez dute inolako aldaketarik izan 2013tik hona).

Jokabideak bereiziko dituzten gurutzetako edo izenburuko aldagaiei dagokienez, alor horretan ere ez dugu inolako aldaketarik egin 2014tik hona. Soziodemografiari lotutako aldagaien multzoa dugu (sexua, adina, bizitokia, ikasketak eta bizi den lurraldea), ideologiari eta identitateari lotutako beste bat (erlijioa, euskara, identitateari lotutako sentimendua, ideologia eta nazionalismoa), aldagai sozioekonomikoak biltzen dituen beste multzo bat (diru-sarrerak, egoera ekonomiko pertsonalarekiko gogobetetasuna, jarduera ekonomikoa, estatusa eta krisiaren eragina) eta, azkenik, aldagai psikosozialak eta harremanezkoak biltzen dituen beste multzo bat (baikortasun-maila, etorkizunarekiko aurreikuspenak, bizitoki mota, atzerriarrekiko harremana eremu pribatuan, haiekiko hartu-emana eremu publikoan eta atzerriarrekiko harremana aisialdian).

Urtero-urtero esaten dugun bezala, immigrazioarekiko tolerantzia-indize hori lantzeko arrazoia da, hasteko eta behin, elementu jakin batzuei buruz euskal herritarrek zer iritzia duten jakitea, eta behin elementu eta iritzia horiek jakinda, euskal gizartearen “iritzia” sintetizatuko duen elementu bat izatea, eta gertatzen ari diren sakoneko aldaketak eta joerak bereizteko tresna bat eskuratzea. Hori dela eta, pertsona bakoitzaren iritzia banaka sintetizatuko duen lanabesa behar dugu eta, aldi berean, azpitaldetan txerta daitekeena eta azpitalde horien artean alderaketak egiteko aukera emango duena. Hori horrela, informazio oso zehatza dugu euskal gizartearen pertzepzio, balio, iritzia eta jarrerei buruz eta, aldi berean, herritarren kolektibo edo azpitaldetan bana daitekeen osoko informazioa dugu.

Gainera, datu-segidien luzetarako azterketari esker, epealdi bateko joerak ere beha ditzakegu, jakiteko EAEko gizartearen zer pertzepzio, iritzia, diskurtso, posizio, jarrera eta jokabide dagoen atzerritarren aurrean, geroz eta aniztasun handiagoko bizikidetzaren ingurune batean. Interesgarria da 2007az geroztik tolerantzia-indizeak ematen dizkigun balioak testuinguruan kokatzea. Izan ere, indizea lehen aldiz prestatu genuenean, ekonomia etengabe goraka zebilen, susperraldi betean; etorkizunarekiko konfiantza handia ez ezik, euforia maila bat ere bazegoen. Espainiako gizarteak eta EAEkoak bizi izan zuten hazkunde ekonomiko sendoarekin batera, jaiotza-tasak eta okupazio-egitura desorekatuak (Espainiako eta EAEko herritarren kualifikazio altua ez zetorren bat lan-merkatuak eskatzen zuen kualifikazio apaleko lan-eskuarekin) eragin zuten atzeritik lan-esku ugari ekarri behar izatea. 2008ko datuak ere garai horretakoak dira (informazioa udaberriak bildu zen eta krisia urte amaieran lehertu zen EAEn).

Urte zailak igaro ditugu, bai ikuspuntu ekonomikotik baina, batez ere, gizarte-ongizatearen ikuspegitik ere. Eta are gehiago gizarte-sektore apalenetan eta ahulenetan. Krisiaren txarrena joana dela dirudien honetan, agerikoa da “kalteak”, batik bat, gizarte-sektorerik ahulenek jasan dituztela. Horien artean, atzerriko nazionalitatea edo/eta jatorria dutenen kolektiboak. Argi dago krisiaren ostean desberdintasun sozial eta ekonomikoak murrizteko lana egitea dagokigula, Espainiako nahiz EAEko gizartearen eten sakona gertatu baita.

Datu makroekonomikoak baikor samarrak dira eta badirudi susperraldia datorrela; itzela ez bada ere, gutxienez iraunkorra eta etorkizunari beste modu batean begiratzeko modukoa, nahiz eta zuhurtasuna eskatzen duten ahotsak egon badauden, gure ingurune hurbilaz harago, munduko ekonomian egon daitezkeen gorabeheretara arreta egin behar diegula esateko.


Urteak daramatzagu gure tolerantzia-indizearen eta BPGd-aren datuen arteko lotura aipatzen; izan ere, hazkunde ekonomikoaz harago, etorkizunaren zalantzen aurrean “gizartearen aldatzearen” berri ere ematen digute datuok. BPGd-ak behera egin eta gure etorkizuna goibeldu duenean, beherakada nabarmenak izan dira indizean ere. BPGd-a berrindartu denean, aldi baterako izan arren, indizeak ere gora egin du. Eta susperraldi ekonomikoa sendotuz doala dirudien honetan, tolerantzia-indizean islatu da horren eragina.

Horrexegatik diogu atzerriko nazionalitatea edo jatorria duen kolektiboarekiko euskal gizarteak duen jarrera oso baldintzatuta dagoela, etorkizunak ekar ditzakeenaren aurreko “aldatzearen” ondorioz: gizarte-, politika- eta ekonomia-alorreko zalantzak ugaltzen direnean, tolerantzia-indizearen balioak behera egiten du, beldurra eta mesfidantza ugaltzen den seinale; etorkizuna argi eta baikor agertzen denean, aldiz (gaur egun, adibidez), indizeak gora egiten du, gizarte-giro hobea, irekiagoa, toleranteagoa eta lasaiagoa islatuz.



Gauzak horrela, 2015eko barometroan 58,04 puntuko tolerantzia-indizea bildu dugu EAEko gizarte osoarentzat. 2014an lortutako balioa baino puntu bat gorago, eta 2013an bildutako zifra baino 2,5 puntu gorago.

47. grafikoa. 2015eko tolerantzia-indizea




Iturria: egileek egin.

2008an goia jo ondoren, 2009an, 2010ean eta 2011n EAEko gizarteak krisi ekonomikoaren lehen ondorioak jasan zituen. Hasieran esan zuten krisi laburra izango zela eta epe laburrean itzuliko zela susperraldia ("2010-11ko hazkunde-kimu" ospetsuak). Halere, errealitatea gailendu eta 2010eko amaierako 2011ko hasierako susperraldi laburraren ondoren, Espainiako eta EAEko gizarteak konturatu ziren prozesua luzeagoa eta gogorragoa izango zela. Hala, gure ingurunean eraikitako gizarte-ongizatea astindu eta zalantzan jarri du 2013ra arte luzatu den krisialdi gogorak.

Horrekina batera, atzerriko nazionalitatea edo jatorria duten pertsonetako EAEko herritarrek duten jarrera ahuldu egin zen 2009an, 2010ean eta, batik bat, 2012an, konturatu ginenean krisia larria zela eta hasieran esan zigutena baino luzeagoa eta gogorragoa izango zela. 2013tik aurrera, badirudi EAEko gizarteak jarrera irekiago, lasaiago eta toleranteagoak hartu dituela.


48. grafikoa. Tolerantzia-indizearen bilakaera. 2007-2015



Iturria: egileek egin.

Aurreko urteetako txostenean ere aipatu genuen zer faktore egon zitezkeen gorabehera horien atzean, betiere jakinik fenomeno konplexua dela eta aldagai asko sartzen direla tartean: norberaren nortasun-ezaugarriak eta bizitza-esperientziak, aldagai soziodemografiko eta psikosozialak, pertsonaren ingurune pertsonal eta sozial hurbila, aldagai ekonomiko eta ideologikoak eta abar. Ez dugu ahortzi behar aldagai soziodemografikoek, identitarioek, sozioekonomikoek, psikosozialek eta harremanari lotutakoek tolerantzia-indizearen gorabeheren zati txiki bat baino ez dutela azaltzen. Zehazki, 2015. urtean, EAEko gizarte osoan gertatzen diren aldaketa guztien % 20,43 baino ez dute azaltzen. Eta aurreko urteetan zenbateko horren inguruan ibili gara, baina inoiz % 30era iritsi gabe.

49. grafikoa. BPGd-aren urtetik urterako aldaketa-tasak (%). 2008-2015



Iturria: EIN, Eustat eta egileek egina

Nolanahi ere, geroz eta ziurrago gaude gure tolerantzia-indizeak lotura estua duela ingurune sozioekonomikoarekin eta etorkizunarekiko aurreikuspenekin, horiek baitira, besteak beste, “gizarte-aldarte” taxutzen duten elementuak. Eta bildutako emaitzak norabide horretan doazela dirudi, 2014ko txostenean aipatu genuen bezala: *“Ziurrenik, gure indizea hobetzeko, funtsezkoa izan da EAEk eta Espainiak susperraldi ekonomikorako aurreikuspen onak izatea 2014 honetan, eta hobeak hurrengo urteetan, hauteskunde-kanpaina honetan hedabideek behin eta berriro errepikatzen diguten bezala. Horregatik, 2015eko emaitzak azken bi urteetako emaitzen ildotik joango direla uste dugu”*.


Eta halaxe izan da: 2015eko tolerantzia-indizearen balioa 2014koaren gainetik egon da, eta pentsa daiteke gure “gizarte-aldarte” hobetu egin dela eta hobekuntza horrek atzerriko nazionalitatea edo/eta jatorria duten pertsonenganako tolerantzia handiagoa eragin duela. Hobekuntza hori garrantzitsua delakoan gaude, 2014ko txostenean adierazi bezala, datozen urteetan EAEko (eta Espainiako) gizarteak aniztasuna kudeatzeko erronka zailari egin beharko baitio aurre.

Zertan? Gure ikuspuntutik, hainbat oinarri edo ildo behar ditu EAEko gizartearen etorkizunak: gizarte-berdintasuna, desberdintasunak murriztea, elkarrekiko errespetua, gizarte-bazterkeria borrokatzea eta diskriminazio ororen aurka jotzea. Krisi ekonomikoak eta finantzarioak gizarte-sektore aberatsenen eta ahulenen arteko etena handitu du, eta hauteskunde-aurreko diskurtso batzuek nazionalitateari edo/eta jatorriari lotutako gizarte-kolektiboen diskriminazioa legitimatu

nahi izan dute. Onartezina eta egoista da, eta elkartasun-eza adierazten du. Gure ikuspuntutik, gizarte-kohesioan, diskriminazio gabetasunean eta berdintasunean oinarritu behar du gizarte-erakuntzarako etorkizuneko ereduak.

Galdeketa erantzuten dioten pertsonen hamar arlotan eskuratzen dituzten puntuazioak gehitu-ta lortzen dugu gure tolerantzia-indizea. Hauexek dira hamar arlo horiek: biztanleria immigra-tzailearen BOLUMENAREN pertzepzioa; atzerriko immigrazioa ARAZOTZAT hartzea; EAEko EKO-NOMIAN duen eraginari buruzko iritzia; EAEko GIZARTEAN duen eraginari buruzko iritzia; BIZIKIDETZA EREDUEI buruzko pertzepzioa; ESTEREOTIPOEK irautea; ESKUBIDEAK eta zer-bitzuak eskuratzeko aukerari buruzko jarrera; HARREMANETARAKO ESPAZIOEI buruzko iritzia; IMMIGRAZIO POLITIKARI buruzko ikuspegia; eta atzerriko immigrazioak gure gizartean dituen ERAGIN GLOBALEI buruzko pertzepzioa.

50. grafikoa. Puntuazioen bilakaera 10 arloetan. 2008-2015



Iturria: egileek egin.

EAEko gizarteak arlo horietan izan duen eta duen jokabidearen bilakaera ez da uniforme izan urteotan guztietan (50. grafikoa). Horrenbestez, puntu hauek azpimarra ditzakegu:

- Immigrazioa arazotzat hartzeari buruz, gizarteak, oro har, ez du “arazotzat” hartzen; alegia, arazo izatearen kutsua kendu dio. Arazo larriagoak ditugu buruan immigrazioa ere horien artean kokatzeko, nahiz eta diskurtso batzuek atzerriko immigrazioa arazo bihurtzeko ahalegina egin.
- Immigrazioak EAEko gizartean ondorio kulturalik izateko aukerari buruz, EAEko gizarteak tolerante eta fidakor jarraitzen du, nahiz eta 2014ko datuen aldean pixka bat atzera egin. Atzerriko immigratzaileek eskubide eta zerbitzuak eskuratzeko aukerari buruz, azken hiru urteetan posizioak hobetzen jarraitzen dugu eta ia 2011ko mailara heldu gara berriz ere.
- EAEko gizartearen jarrerak, sinesmenak eta iritziak tolerantzia eta fidakortasun txikiagoa adierazten du immigrazioaren bolumenaren pertzepzioari buruz ari garenean.

Garrantzitsua da hori gizartearen gakoak aldatzen ari garen honetan: hau da, harrerako fase batetik aniztasuneko bizikidetzako fasera.

- Azken hiru urteotan hobetu egin ditugu posizioak atzerriko biztanleen harreman-espazioen harira, euren etorrerak EAEko gizartearen izan dituen ondorio globalen harira, hartu beharreko immigrazio-politikaren harira, ekonomian dituen ondorioen harira eta atzerriko immigrazioarekiko estereotipo negatiboen harira.
- Azkenik, alderdi bati arreta berezia egin behar diogu, tolerantzia-maila apalagoa antzematen baita bertan. EAEko gizarteak bizikidetzaren ereduak buruz duen jarreraz ari gara. Izan ere, azken urteotan adierazlea egonkortu egin dela badirudi ere, gure gizartearen oso presente dago “pixkanakako asimilazio biguna” defendatzen duen jarrera.

Aurreko txostenetan egin izan dugun bezala, pertsona-talde batzuek eta besteek immigrazioarekiko dituzten iritziak, pertzepzioak, jokabideak eta jarreretan egon daitezkeen aldeak aztertu ditugu 2015eko barometroan ere. Bi aldagairekin jardunez gero (adibidez, tolerantzia-maila adinarekin, sexuarekin eta abarrekin gurutzatu eta alderatuz), hau da, analisi bakoitzean bi aldagai soilik hartzen baditugu kontuan, EAEko gizartearen talde polarizaturik edo muturrekorik antzeman gabe jarraitzen dugu: analisisetan egindako segmentazio guztiak aintzat hartuta, talde batek lortutako gutxieneko puntuazioa 48,24koa izan da, eta puntuaziorik altuena, 67,85. Hau da, eskuratutako biztanle-segmentu guztiak tarte horretan daude.

Alabaina, segmentazio-aldagai batzuk batera erabiliz gero (aldagai anitzeko analisia), polarizatzen ari diren talde batzuk antzematen ditugu. Geroago ikusiko dugu hori.

Aldagai biko analisisetan, gurutzaketako edo goiburuko hainbat aldagai baliatu ditugu bereizketa egiteko eta, herritarrek immigrazioarekiko agertu duten tolerantzia-mailaren arabera, euskal biztanleak talde batean edo bestean sailkatzeko. 2014an bezala, aldagai soziodemografikoak (5), ideologiko-identitarioak (5), sozioekonomikoak (5) eta psikosozialak eta harremanekin loturikoak (6) baliatu ditugu.

Aldagai horien artean esanguratsuak eta bereizleak direnak hautemateko, aldagai biko analisia egin dugu, aurreko urteetako ildoari jarraituz. Analisi hori egiteko beharrezkoa da mendeko aldagai batekin eta aldagai aske batekin lan egitea, aldagai baten ANOVA analisia aplikatuta. Alde biko analisia, mugatua izanagatik ere, ezinbestekoa da, eta aldagai anitzeko beste edozein analisisiren aurretik egin beharrezkoa. Mugatua da, aldagai soziodemografiko aske batek ezkutatu egin dezakeelako elkarri eragiten dioten beste aldagai batzuen eragina edo ondorioa. Adibidez, elkarri oso lotutako aldagaiak izaten dira batzuetan, eta alde biko analisi batean zaila da horietako bakoitzak duen eginkizuna bereiztea; aldiz, aldagai anitzeko analisiak bakoitza bere lekuan jartzen du. Immigrazioari buruzko jarrerekin zerikusia duten kontuak aztertzen ditugunean, maiz nahasten dira aldagai hauek: “adina” (hezkuntza-mailari, euskaraz hitz egiteari edo ez egiteari, lanbideari eta abarri lotua), “hezkuntza-maila” (adinari, estatusari, diru-sarrerari eta abarri lotua), “lanbidea” (estatusari, hezkuntza-mailari, diru-sarrerari eta abarri lotua) eta “estatusa” (hezkuntza-mailari, diru-sarrerari eta abarri lotua). Horregatik, bi aldagai horiek bereiz aztertzen baditugu, baliagarri izango dira taldeak diskriminatzeko, bereizteko (adibidez, gazteak jarrera irekiekin lotzen dira, eta adinekoak jarrera itxiagoekin; edo esaten da heziketa gutxien duten pertsonak ez direla heziketa gehien dutenak bezain toleranteak), baina, elkarrekin aztertzen baditugu, gerta daiteke baten baino gehiagoren eragina ez nabaritzea.

Eta horrelaxe gertatzen da beste aldagai hauekin ere: ideologia politikoarekin, euskal identitatearen edota espainiar identitatearen sentimendu subjektiboarekin, euskal edo espainiar nazionalismo-mailarekin eta abarrekin.

Gero, aldagai anitzeko metodologiak baliatu ditugu, metodologia horiek lagundu egiten baitigute aldagaien arteko harremanak hobeto ulertzen, geroari aurre hartzeko ahalmenik handiena dutenak nabarmentzen, aldagai batzuen eta besteen eragin gurutzatuak saihestuz eta indargabetuz, eta zer errealitatetan bizi garen hobeto jakiteko aukera emanez. Geroago aipatuko ditugu horiek ere.

Urtero bezala, azterketa errazenekin hasiko gara, aldagai bikoekin. 2015eko Barometroan baliatutako aldagai soziodemografikoen analisiak aurreko Barometroetako ondorioak azalerratu ditu berriro ere: atzerriko immigrazioarekiko tolerantzia handiagoa eta tolerantzia txikiagoa erakusten duten taldeak daude euskal biztanleen artean; talde batzuek (irekiagoek eta toleranteagoek) puntuazio askoz handiagoak lortu dituzte tolerantzia-indizean eta beste batzuek (atzerriko immigrazioarekiko uzkurrago eta itxiago jokatzeko duten taldeek), berriz, puntuazio nabarmen txikiagoak:

- Immigrazioarekin tolerantzia handiagoa erakusten dute, nabarmen, gizonezkoek (59,49 puntu) emakumezkoek baino (56,66 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira 18 eta 29 urte bitarteko pertsonak (63,38 puntu), 65 urtekoak eta hortik gorakoak baino (54,61 puntu), 45 eta 64 urte bitartekoak baino (58,49 puntu) eta 30 eta 44 urte bitartekoak baino (58,16).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak (65,27 puntu) eta erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (66,42 puntu), ikasketarik ez dutenak baino (49,29 puntu) eta lehen mailako ikasketak dituztenak baino (53,37 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira 5.000-20.000 biztanleko udalerrietan bizi direnak (58,49 puntu), eta 20.000-150.000 biztanleko udalerrietan bizi direnak baino (59,60 puntu), 5.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi direnak baino (54,21 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira Gipuzkoan bizi diren pertsonak (61,52 puntu), Araban (56,88 puntu) eta Bizkaian (56,31 puntu) bizi direnak baino.
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira pertsona agnostikoak, ateak eta erlijioarekiko axolarik ez dutenak (62,63 puntu) katolikoak baino, horiek elizkoiak izan (55,87 puntu) edo ez (55,48 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira euskaraz hitz egiten duten pertsonak (61,17 puntu), euskaraz hitz egiten ez dutenak baino (54,94 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira euskaldun soilik edo espainiar baino gehiago euskaldun sentitzen direnak (59,80 puntu) eta espainiar bezain euskaldun sentitzen direnak (56,51 puntu), espainiar soilik edo euskaldun baino gehiago espainiar sentitzen direla esan dutenak baino (48,24 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira ezkerreko ideologia duten pertsonak (60,74 puntu) eta zentro ezkerrekoak (59,65 puntu), eskuinekoak baino (54,05 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira beren burua euskal nazionalistatzat dutenak (60,17 puntu), beren burua euskal nazionalista moderatutzat dutenak (60,31 puntu) eta nazionalismoaren gaiarekiko axolarik ez dutenak (55,99 puntu), beren burua espainiar nazionalistatzat jotzen dutenak baino (50,59 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira familian eta hilean 2.500 €-tik gorako diru-sarrera garbiak dituzten pertsonak (62,16 puntu), gehienez ere 1.000 €-ko diru-sarrerak dituztenak baino (56,48 puntu).

- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira beren egungo egoera ekonomikoarekin gustura daudenak (60,39 puntu) eta ez ondo eta ez txarto sentitzen direnak (58,51 puntu), gustura ez daudenak baino (53,44 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira ikasten dauden pertsonak (67,85 puntu), etxeko lanetan aritzen direnak baino (54,07 puntu), erretirodunak baino (55,48 puntu) eta langabeziak baino (56,48 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira estatus altua duten pertsonak eta erdi-mailako altua dutenak (66,25 puntu), erdi mailako estatusa dutenak baino (58,86 puntu) edota estatus baxua-erdi-baxua dutenak baino (55,01 puntu).

7. taula. Immigrazioarekiko tolerantzia-indizearekin lotutako aldagaiak

| Tolerantzia-atalase txikiena duten pertsonen profila       | Aldagaia               | Esangura | Tolerantzia-atalase handiena duten pertsonen profila                 |
|--|------------------------|----------|--|
| Emakumezkoak   | Sexua                  | .003     | Gizonezkoak  |
| 65 urtekoak eta hortik gorakoak                            | Adina                  | .000     | 18 eta 29 urte bitartekoak   |
| Araba eta Bizkaia  | Lurraldea              | .000     | Gipuzkoa   |
| Lehen mailakoak, ikasketarik gabe                          | Ikasketak              | .000     | Goi- eta erdi-mailako unibertsitate-ikask.                           |
| 5.000 biztanle edo gutxiago                                | Habitata               | .013     | 5.000 eta 150.000 biztanle artean                                    |
| Katolikoak, praktikanteak ala ez                           | Erlijioa               | .000     | Agnostikoak, ateoak eta ezaxolak                                     |
| Erdaldunak   | Hizkuntza              | .000     | Euskaldunak  |
| Espainiarra  | Abertzaletasuna        | .000     | Euskalduna, euskaldun moderatua, ezaxola                             |
| Batez ere espainiar sentitzen direnak                      | Identitate-sentimendua | .000     | Batez ere euskaldun eta euskaldun-espainiarrak sentitzen direnak     |
| Eskuinekoa   | Ideologia              | .001     | Ezkerrekoak eta zentro-ezkerrekoak                                   |
| Hilean 1.000 €, gehienez                                   | Diru-sarrerak          | .011     | Hilean 2.500 € eta gehiago   |
| Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez daudenak | Egoera ekonomikoa      | .000     | Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura daudenak eta ezaxolak |
| Etxeko lanetan arituak, erretiratuak, langabeak            | Lanbidea               | .000     | Ikasleak   |
| Estatus baxua eta erdi-mailakoa                            | Estatusa               | .000     | Estatus altua  |
| Krisiaren eragin handia                                    | Krisiaren eragina      | .015     | Krisiaren eragin txikia  |
| Ezkorrak   | Baikortasuna           | .000     | Ezaxolak eta baikorrak   |
| Etorkizun txarra   | Etorkizuna             | .000     | Etorkizun normala eta ona  |
| Etorkinen eta bertakoen nahasketa                          | Auzoa                  | .007     | Etorkinen presentzia handia  |
| Inolako harremanik ez                                      | Interakzio pribatua    | .000     | Nolabaiteko harremana  |
| Inolako interakziorik ez                                   | Interakzio publikoa    | .000     | Interakzio handia edo zerbait  |
| Interakziorik ez   | Aisialdiko interakzioa | .000     | Handia edo nolabaiteko intentsitatekoa                               |

Iturria: egileek egina.

- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira krisiaren ondorio arinak jasan dituzten pertsonak (59,48), krisiak gogor kolpatu dituenak baino (56,26).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira baikorrak direla dioten pertsonak (60,27 puntu) edo horri buruz iritzi garbirik ez dutenak (59,97 puntu), ezkorak direla dioten pertsonak baino (52,51 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira etorkizunari begira aurreikuspen onak dituzten pertsonak (60,40 puntu) eta aurreikuspen normalak dituztenak (60,29 puntu), aurreikuspen txarrak dituztela diotenak baino (55,32 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira atzerriko etorkin asko dauden auzoetan bizi diren pertsonak (59,36 puntu), hainbat jatorritako pertsonak nahasten diren auzoetan bizi direnak baino (55,16 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira eremu pribatuan etorkinekin noiz edo noiz hartu-emanen bat duten pertsonak (64,42 puntu), haiekin inolako hartu-emanik ez dutenak baino (55,26 puntu) eta hartu-eman handia dutenak baino (57,90 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira eremu publikoan etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (61,01 puntu) edo noiz edo noiz hartu-emanak dituztenak (59,92 puntu), haiekin inolako hartu-emanik ez dutela esaten dutenak baino (53,54 puntu).
- Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira aisialdian etorkinekin hartu-eman handia duten pertsonak (60,66 puntu) edo noiz edo noiz hartu-emanak dituztenak (61,11 puntu), haiekin inolako hartu-emanik ez dutela esaten dutenak baino (52,85 puntu).

Datu horiek eta aurreko urteetan jasotakoak alderatuta, ia ez dugu aipatzeko moduko alderik nabaritu. Esan dezakegu, akaso, 2015ean aldagai guztiak diskriminatzailerak izan direla, lurraldea eta nazionalismo-maila subjektiboa ere tartean, aurreko barometroan ez bezala. Alabaina, kontuan hartu behar da aldagai guztiek ez dutela hein berean bereizten eta gurutzeko eta goiburu aldagai batzuek elkarrekin erlazionatuta daudela; ondorioz, elkar indartu, gainjarri edo elkar neutralizatu egiten dira.

Elkarreragin horiek argitzeko eta gerta daitezkeen eragin konbinatuak indargabetzeko, aldagai anitzeko metodologia bat aplikatzen ari gara azken urteetan, AID deritzona. Segmentazio-zuhaitz bat ematen digu metodologia horrek, euskal herritarren tipologia zenbaitek osatua, eta tipologia horiek gutxi gorabehera bat datoz atzerriko immigrazioarekiko talde irekiagoak eta toleranteagoak edo itxiagoak eta uzkurragoak osatzen dituzten pertsonekin.

Horretarako, aldagai aske guztiekin lan eginez (21 guztira) beste segmentazio bat landu dugu. Aurreko urtetan bezala, aldagai anitzeko metodologia horren aplikazioaren helburua ez da zehatza, zorrotza eta eztaba daezina izatea; hau da, asmoa ez da tolerantzia handia edo txikia erakusten duten jarrerekin lotutako aldagaiei buruzko debatea ixtea. Aitzitik, errealitatea ikusteko eta ulertzeko modu xume bat baino ez dugu eskaini nahi. Badakigu horren bidez proposatzen dugun tipologia hori baino ez dela: tipologia bat, sartu ditugun aldagaiek, bildu ditugun bezala bilduta, sortutako tipologia.

2015eko segmentazio-zuhaitzean, berriz ere, segmentazio-aldagairik garrantzitsuena ikasketamaila da. Horixe da normalean gehien bereizten duen aldagaia, 2010. eta 2014. urteetan izan ezik, orduko hartan sinesmen erlijiosoak izan baitzen altuena. Ondorioz, EAEko herritarren ikasketak edo prestakuntza-mailak azalduko du, beste edozein aldagaik baino gehiago, atzerriko immigrazioarekiko tolerantzia handiagoa edo txikiagoa izatea. Zenbat eta prestakuntza-maila altuagoa, orduan eta tolerantzia-maila altuagoa, eta alderantziz.



Gainera, segmentazio-zuhaitzean (51. grafikoa), badira jarreraren berri emango diguten beste aldagai batzuk, gizarte-elkarrekintzari lotutakoak (aisialdiko hartu-emanak), ideologiari lotutakoak edota pertsonen alderdi psikosozialei lotutakoak (baikortasun-maila).

Zehazki, hauek dira gure segmentazio-zuhaitzaren aldagai iragarleak eta zuhaitz hori bere maila guztietan osatzeko aukera eman dutenak, garrantziaren arabera sailkatuta:

- 1. mailan: hezkuntza maila (es. 0,000);
- 2. mailan: atzerriko pertsonekin aisialdian dagoen hartu-emana (es. 0,000 eta es. 0,000) eta ideologia (sig. 0,000);
- 3. mailan: ideologia (es. 0,00) eta baikortasun-maila (es. 0,048 eta es. 0,001);
- 4. mailan: pertsona bizi den lurraldea (es. 0,003).

Aldagai horiekin 11 segmentu atera ditugu guztira. Segmentazio-zuhaitzaren 9. grafikoa, eus-  
kal gizarte osoaren batez bestekotik gorako puntuazioa lortu dutenak eta hortik beherako pun-  
tuazioa dutenak azpimarratu ditugu, berdez aurrenekoak eta gorriz bigarrenak. Hona hemen seg-  
mentuok:

1. Goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak eta ezkerreko edo zentro-ezkerreko ideologia dutenak: 67,41 puntu lortu dituzte eta EAEko biztanleriaren % 16,5 dira.
2. Lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak eta aisialdian atzerritarrekin noizbehinkako harremana edo harreman handia dutenak, euren burua baikortzat edo tartekotzat dutenak, eta Gipuzkoan bizi direnak: 63,69 puntu eskuratu dituzte eta EAEko biztanleriaren % 5,4 dira.
3. Bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonak eta aisialdian atzerritarrekin noizbehinka harremana dutenak: 63,23 puntu lortu dituzte eta EAEko biztanleriaren % 21,0 dira.
4. Bigarren mailako ikasketak dituztenak, aisialdian atzerritarrekin harremanik ez edo harreman handia dutenak eta eskuineko, zentroko eta ezkerreko ideologiarekin: 59,87 puntu eskuratu dituzte eta EAEko biztanleriaren % 6,5 dira.
5. Goi-mailako edo erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak eta ezkerreko edo eskuineko ideologia dutenak: 58,68 puntu lortu dituzte eta EAEko biztanleriaren % 6,5 dira.
6. Lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak eta aisialdian atzerritarrekin noizbehinkako harremana edo harreman handia dutenak, euren burua baikortzat edo tartekotzat dutenak, eta Bizkaian edo Araban bizi direnak: 54,87 puntu eskuratu dituzte eta EAEko biztanleriaren % 8,5 dira.
7. Lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak, aisialdian atzerritarrekin inolako harremanik ez dutenak eta bizitzaren aurrean euren burua baikortzat edo ezkortzat jotzen ez dutenak: 54,63 puntu lortu dituzte eta EAEko biztanleriaren % 6,2 dira.
8. Lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak eta aisialdian atzerritarrekin noizbehinkako harremana edo harreman handia dutenak, eta euren burua ezkortzat dutenak: 52,25 puntu eskuratu dituzte eta EAEko biztanleriaren % 6,3 dira.




9. Bigarren mailako ikasketak dituztenak, aisialdian atzerritarrekin harremanik ez edo harreman handia dutenak eta zentro-ezkerreko ideologiarekin: 50,43 puntu eskuratu dituzte eta EAEko biztanleriaren % 6,7 dira.
10. Lehen mailako ikasketak edo ikasketarik ez dutenak: 49,21 puntu eskuratu dituzte eta EAE biztanleriaren % 7,9 dira.
11. Lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak, aisialdian atzerritarrekin inolako harremanik ez dutenak eta bizitzaren aurrean euren burua baikortzat edo ezkortzat dutenak: 44,54 puntu lortu dituzte eta EAEko biztanleriaren % 8,3 dira.

Urtero esaten dugun moduan, EAEko biztanleriaren segmentazio horrek ez du erabat zehatza izan nahi; joerak adieraztea da, batik bat, beraren helburua. Kontua ez da zehatz-mehatz adieraztea zenbat taldek osatzen duten EAEn atzerriko immigrazioarekiko jarreraren panorama; aitzitik, helburua da aldagai garrantzitsuak identifikatzea atzerriko immigrazioarekiko portaera, jarrera, iritzi eta balio toleranteak eta ez hain toleranteak aurreikusteko, eta zenbait zertzelada adierazkor ematea gizarte-talde irekienak eta toleranteenak direnen profilak zehazteko, bai eta jarrera itxi eta intoleranteenak adierazten dituztenenak ere.

Aurretiaz ere aipatu dugu ereduaren gaitasun iragarlea aurreko urteetakoaren parekoa dela, nahiz eta 2015eko barometroan aldagai askeek pixka bat gutxiago azaldu lagina osatzen duten pertsonen aldakortasun osoa. 2015ean aldakortasun osoaren % 20,43 baino ez dugu azaldu, aurreko bi urteetan baino 7 puntu gutxiago (2014an % 27,53 eta 2013an % 27,65), baina aurrekoen antzeko tamainan (2012an aldakortasun osoaren % 23,77 eta 2011n % 28,31).

Barne-lanak nahiz beste talde batzuen lanak aztertzen jarraitzen dugu, EAEko herritarrei atzerriko immigrazioari lotutako galderak egiten zaizkienean, erantzunen aldakortasunaren zatirik handiena azalduko duten eredu iragarleak prestatzen lagunduko diguten beste aldagai aske batzuk antzemateko asmoz. Jakin badakigu, ordea, literatura zientifikoak ere dioenaren ildotik, pertsona bakoitzaren beraren banakako desberdintasunak egon daitezkeela aldakortasun osoaren edo zati handi baten atzean.

51. grafikoa. Segmentazio-zuhaitza eta euskal gizartearen tipologiai, 2015eko tolerantzia-indizean duten posizioaren arabera



turria: egileek egina.  
Eranskinean begiratu

## 4. Euskal biztanleriaren talde handiak

Analisi tipologikoa oso grafikoa da, eta lagungarria euskal herritarren artean askotariko motak daudela bereizteko eta bakoitzaren ezaugarri soziodemografikoak zein diren jakiteko; izan ere, atzerriko immigrazioaren aurrean duten tolerantzia-maila handiago edo txikiagoaren berri eman-gu digu horrek. Horretaz gain, oso erabilgarri gertatuko zaigu, talde horiek 0 puntutik 100era bitarteko kontinuumean kokatzeko eta beren artean dauden desberdintasunak begiesteko, bai batzuen eta besteen tolerantzia-maila eta bai talde horiek deskribatzen dituzten aldagaiak; hots: aldagai soziodemografikoak, sozioekonomikoak, ideologiko-identitarioak, psikosozialak eta harremanei lotutakoak.

Dena den, nahiko informazio lausoa ematen digute talde horiek, gure indizea osatzen duten arlo edo dimentsioetan dituzten desberdintasunei buruz. Hau da, badakigu, oro har, indizean talde batzuek besteek baino puntuazio handiagoa lortzen dutela, baina ez dakigu gure indizea osatzen duten hamar arloetan desberdintzen diren, edota hamar horietako batean edo bestean soilik.

Hori dela eta, 2015. urte honetan ere aldagai anitzeko “k-means” analisia erabili dugu, bai informazio gehiago lortzeko asmoz, bai immigrazioarekiko jarrera, balio eta sinesmenekin loturiko aldagaien artean euskal biztanleak gehien bereizten dituzten aldagai horietan sakontzeko asmoz. Horretaz gain, analisi horren bidez biztanleen sailkapenak ere egin nahi izan ditugu, euskal biztanleek immigrazioari buruz dituzten jarrera diferenteak agerian uzteko eta aurreko eta hurrengo urteei begira erraz alderatzeko eta kontrastatzeko moduko informazioa eskuratu ahal izateko.

Aurreko urteetan erabilitako metodologia berari jarraituz, EAEko biztanleria hiru talde handitan bereizi dugu, datuak alderatu eta joerak antzemateko: pertsona toleranteak, pertsona anbibalenteak eta atzerriko immigrazioaren aurrean uzkur ageri diren pertsonak.

Definitu ditugun hamar arloetan, immigrazioarekiko tolerantzia-indizea kalkulatzeko oinarri diren hamar arlo horietan, herritar bakoitzak lortutako puntuazioak dira euskal biztanleria hiru talde horietan sailkatzeko irizpidetzat erabili diren aldagaiak. Aurreko barometroetan erabilitako aldagai berak, alegia. Azken buruan EAEko biztanleak arlo hauetako bakoitzean lortutako puntuazioaren arabera (0tik 100era) sailkatu ditugu: etorkinen BOLUMENaren pertzepzioa; atzerriko etorkinak ARAZOTZAT hartzea; immigrazioak EKONOMIAN dituen ondorioei buruzko iritzia; EAEko GIZARTEAN dituen ondorioei buruzko iritzia; BIZIKIDETZA EREDUEI buruzko pertzepzioa; ESTEREOTIPOEK irautea; ESKUBIDEAK eta zerbitzuak eskuratzeko aukeraren inguruko jarrera;

HARREMAN ESPAZIOEI buruzko iritzia; IMMIGRAZIO POLITIKARI buruzko ikuspegia; eta atzerriko immigrazioak gure gizartean dituen ONDORIO GLOBALEN inguruko pertzepzioa.

Tarteko aldagaiak direnez (zenbakizkoak), erabaki dugu “k means” deritzon aldagai anitzeko sailkapen-analisia aplikatzea, eta laginean bildutako multzo osoa hiru taldetan sailkatu dugu: atzerriko immigrazioarekiko tolerantetia, anibalentetia eta uzkurak. Teknika horrekin, irizpide erlatiboan bidez sailkatuko da euskal gizartea hiru talde horietan. Hau da, datu-basea osatzen duten pertsona guztien artean tolerantetia osatuko dute tolerantetia multzoa, hamar arloetan puntuaziorik handienak eskuratzen dituztenek; datu-baseko pertsona guztien artean tolerantzia gutxien ageri dutenak osatuko dute uzkuraren taldea, puntuazio txikiak dituztenek, alegia; eta bi talde horietatik gehien urruntzen direnak osatuko dute anibalentetia, erdibideko puntuazioak eskuratzen dituztenek, alegia.

K-means sailkapen-analisiaren estatistika-prozesuetan talde-barneko homogeneotasuna eta taldeen arteko heterogeneotasuna aztertuz gero, ondorioztatu dugu onargarria dela banaketa<sup>2</sup> eta egiaz hiru talde bereizi daudela. Talde horien artean, nola ez, azpimarratzekoak dira batez ere herritar tolerantetia eta herritar uzkuraren arteko aldeak. 2014an, anibalentetia eta uzkuraren arteko aldea anibalentetia eta tolerantetia arteko aldea baino txikiagoa zen hamar arlo horietan; 2015ean, aldiz, anibalentetia taldeak lortutako emaitzak hurbilago daude tolerantetia taldeak lortutakoetatik.

Galdeketo itemi emandako erantzunen arabera eta hamar arloetan eskuratutako puntuaren arabera, talde bateko edo besteko kideetat jotzen da pertsona bakoitza, eta behin hori eginda, taldeek zer jarrera eta jokabide duten azter dezakegu. Hiru taldeen arteko aldeak nabarmenak dira, aztertutako arloetako bakoitzean talde bakoitzak eskuratutako batez besteko puntuazioetan ikus dezakegun bezala (8. taula). Hor ikusiko dugu pertsona tolerantetia taldeak anibalentetia baino puntuazio altuagoa lortzen duela alor guztietan, eta bigarren talde horrek, berriz, uzkuraren baino puntuazio altuagoa lortu duela alor guztietan. Aldagai guztiek F balio esanguratsuak dituztela dio bariantza-analisiak, eta horrek adierazten du finkatutako taldeen artean alde esanguratsuak daudela, aztertutako aldagai guztietan.

Pertsona tolerantetia taldeak, aurreko urteetako joerari jarraituz, balore handiagoak erakusten ditu arlo guztietan: ez dute ikuspegi hain distortsionatua atzerriko immigrazioaren egungo bolumenarekiko, ez dute uste immigrazioa arazoa denik, immigrazioak ekonomian, gizarte osoarengan eta euskal gizarte eta kulturarengan alderdi eta efektu onuragarriak dituela onartzen dute, irekiagoak dira administrazioak egin beharko lukeen immigrazio-politikari buruzko iritzietan, ez dute bizikidetzak-ereduak erabat asimilaziozkoak izan behar dutenik pentsatzen, estereotipo gutxiago dituzte, jarrera ireki eta unibertsalagoa ageri dute etorkinek eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko izan beharko luketen aukerari dagokionez, eta haien harreman-eremuak irekiago daude pertsonen arteko truke eta elkarreragineran.

Kontrako muturrean, uzkur jokatzeko duten pertsonen taldeak oso puntuazio baxuak ditu eremu guztietan, immigrazio atzeritarra arazotzat hartzeko eremuan izan ezik. Argi geratu da, beraz, euskal gizartean inork, ezta uzkuraren taldeak ere, ez duela immigrazioa arazotzat hartzen.

<sup>2</sup>Taldeen arteko tartetia, oro har, talde barruko tartetia baino nabarmen handiagoak dira. Normala den bezala, tolerantetia taldearen eta uzkuraren taldearen arteko tartetia handiagoa da. Talde-barneko tartetia aztertuta, ikusiko dugu tolerantetia taldea dela homogeneoa, eta uzkuraren taldea heterogeneoa.


Gainerako balioetan ikusten da atzerriko immigrazioarekiko ageriko jarrera intoleranteak dituztela, eta argi dago, beraz, gure gizartearen zati bat uzkur ageri dela atzerriko etorkinen aurrean, arazo ote diren edo haien kopurua alde batera utzita ere. Izan ere, askotan jarrera horiek etorkinen presentzia baino lehenagotik datoz.

8. taula. Azken konglomeratuen zentroak, 2015

|                           | Toleranteak | Anbibalenteak | Uzkurak |
|---------------------------|-------------|---------------|---------|
| Bolumenaren pertzepzioa   | 6,09        | 4,01          | 2,29    |
| Arazoaren pertzepzioa     | 9,42        | 8,71          | 7,80    |
| Eragina ekonomian         | 7,30        | 4,62          | 1,79    |
| Eragina euskal gizartean  | 8,13        | 6,86          | 3,83    |
| Immigrazio-politika       | 6,76        | 4,87          | 3,40    |
| Erabateko eraginak        | 7,36        | 5,19          | 2,32    |
| Elkarbizitza ereduak      | 4,60        | 3,36          | 1,55    |
| Estereotipoak             | 6,50        | 3,68          | 1,59    |
| Eskubideei heldzea        | 8,22        | 6,03          | 3,77    |
| Harremanetarako espazioak | 7,96        | 5,40          | 2,94    |

Iturria: egileek egina.

52. grafikoa. Taldeen puntuazioa hamar arloetan (azken zentroak)



Iturria: egileek egina.


Azkenik, anbibalenteek tarteko puntuazioak dituzte eremu guztietan, batzuetan uzkurren taldeak ateratakoetatik hurbilagokoak eta beste batzuetan tolerantteen puntuaziotatik hurbilagokoak. Dena dela, 2015ean puntuazioak, oro har, hurbilago daude pertsona tolerantteen taldeak eskuratutakoetatik.

Oro har, hiru taldeen arteko jokabide berezitua aurreko urteetan aipatutakoaren oso-oso antzekoa da, haien artean alderaketak egiten hasiz gero. Baina talde bakoitzak izandako jokabidea eta lortutako puntuazioak aurreko barometroetakoekin alderatuz gero, nabarmentzeko moduko hainbat

aldaketa izan direla ohartuko gara. Erreparatu besterik ez dago batzuek eta besteek arlo bakoitzean lortutako puntuazioei:

- Iazko datuen aldean, pertsona tolerantteen taldeak jarrera hobea adierazi du arlo gehienetan: atzerriko etorkinek eskubide eta zerbitzuak eskuratzearen inguruko posizioetan, harreman-espazioei buruzko jarreretan, EAEko gizartean immigrazioak dituen ondorio globalei buruzko iritzian, EAEko ekonomian dituen ondorioei buruzko usteetan, immigrazio-politikari buruzkoan eta immigrazioarekiko estereotipo negatiboak eta bizikidetzaren ereduak buruzko jarreretan, nahiz eta arlo horretan 2008ko lehen barometroko datuetatik oso behera jarraitu. Pertsona tolerantteen talde horretan, aldiz, txarrera egin dute hainbat arlo: immigrazioa arazoa delako pertzepzioak, EAEko kulturean dituen ondorioei buruzko iritzia eta immigrazioaren bolumenaren pertzepzioak.

53. grafikoa. Toleranteen taldea: bilakaera hamar arloetan




Iturria: egileek egin.

- 2014tik hona, pertsona anibalenteen taldean posizioak hobetu egin dira atzerriko etorkinek eskubide eta zerbitzuak eskuratzeko aukerari dagokionez, immigrazio-politikari dagokionez eta immigrazioak EAEko ekonomian duen ondorioei buruzko iritzari dagokionez. Aldiz, ia bere horretan mantentzen ditu harreman-espazioen, immigrazioak EAEko gizartean dituen ondorio globalen eta estereotipo negatiboen inguruko pertzepzioak, jarrerak eta iritzia. Azkenik, pertsona anibalenteen taldeak tolerantzia gutxiago adierazi du atzerriko immigrazioa arazotzat jotzearen inguruan, EAEko kulturean dituen ondorioen inguruan eta etorkinen bolumenaren pertzepzioaren inguruan.
- Azkenik, pertsona uzakurren taldearen posizioak txarrera egin du aztertutako hamar arloetan. Lehen ere azaldu dugu talde horrek immigrazioarekiko adierazi duen tolerantzia-mailak txarrera egin duela arlo guztietan, batez ere talde horretan tolerantzia-maila handiena agertzen zutenak pertsona anibalenteen multzora igaro direlako eta, ondorioz, jarrerarik, pertzepziorik eta iritzirik intolerante, itxi eta baztertzailenak dituzten pertsonak dirautelako talde horretan.


Gauzak horrela, kolektibo horren posizioak txarrera egin du arlo guztietan. Joera orokor horren gainera ere, atzerriko immigrazioa arazotzat hartzeari dagokionez, badirudi posizio toleranteagoa adierazi dutela, zortzi puntu inguru lortu baitituzte arlo horretan. Gainerako arlo guztietan lau puntutik beherako puntuazioak lortu dituzte.

54. grafikoa. Anbibalenteen taldea: bilakaera hamar arloetan



Iturria: egileek egina.

55. grafikoa. Uzkurren taldea: bilakaera hamar arloetan



Iturria: egileek egina.


Aurreko barometroetatik hona izandako aldaketa horiek agerian gelditzen dira talde bakoitzak 2015eko barometroko tolerantzia-indizean lortutako batez besteko puntuazioari erreparatuta: toleranteen taldeak 72,35 puntu lortu ditu, 2008az geroztiko segida osoko puntuaziorik altuena; anbibalenteen taldeak 52,74ko puntuazioa lortu du, iaz baino zertxobait beherago baina segida osoaren ildotik; eta uzkurren taldea 31,27 puntutan gelditu da: segida osoko bigarren puntuaziorik txarra, eta 2012an lortutako puntuaziotik oso gertu. Hiru puntuazioek estatisti-

ka-alde esanguratsuak dituzte elkarren artean; hau da, alde nabarmenak daude talde bat eta beste osatzen duten pertsonen pertzepzio, iritzi, jarrera eta sinesmenetan.

Azken urteetan osatutako taldeetan aldaketa batzuk antzematen dira (57. grafikoa):


- Pertsona tolerantteen taldeak, 72,35 puntu bilduta, 2018az geroztiko segida osoko puntuaziorik altuena lortu du, nahiz eta beste urteekin alderatuta, aldea ez den horren nabarmena; izan ere, taldea beti ibili da 2009ko 68,42 puntuen eta aurtengo 72,35 puntuen artean.
- Anbibalenteen taldea, 52,74 puntu bilduta, 2014ko puntuaziotik pixka bat behera gelditu da. Halere, segidako gorabeheretan tarteko posizioan dago, 2009ko 49,46 puntuen eta 2011ko 56,04 puntuen artean.
- Pertsona uzkurren taldeak, 31,27 punturekin, oso puntuazio baxua lortu du, segida osoko puntuaziorik txarrena, 2012an lortutakoa izan ezik, eta puntuazio txarren horretatik hiru hamarren eskasetara. 2014ko datuen aldean, multzo horrexetan izan da aldaketarik handiena, baina gertaera horrek badu azalpena, geroago multzoen tamaina aztertzen dugunean ikusiko dugun bezala.

56. grafikoa. Taldeek tolerantzia-indizean lortutako puntuak



Iturria: egileek egina.

57. grafikoa. Talde nagusiek tolerantzia-indizean lortutako puntuen bilakaera 2008-2015 bitarteko tolerantzia-indizean



Iturria: egileek egina.


Talde bakoitza osatzen duten pertsonen kopurua aztertuz gero, ikusiko dugu iaz hasitako joerari eutsi diogula, tolerantzian galdutakoa berreskuratzen. Toleranteen taldeak EAEko 10 biztanleetatik 4 baino gehiago biltzen ditu; anbibalenteen taldeak 10etik ia 4,5; eta uzkurren taldeak gainerako 1,5 baino ez du biltzen.



Aurreko urteekin alderatzen badugu talde horiek zer tamaina duten, zer puntuazio lortu duten eta tolerantzia-escalan non dauden, ondorio hauek aterata ditzakegu:


- Pertsona toleranteen taldea 70 puntutik hurbil ibiltzen da urtea joan urtea etorri, baina talde horren bolumena askoz aldakorragoa eta ausazkoagoa da, azken urteetan gorako joera erakutsi badu ere. Azken bi urteetan ia 10 puntu hazi da; hau da, pertsona anbibalenteak toleranteen taldera igaro dira, baina toleranteen taldearen posizio orokorra (tolerantzia-puntuazioa) beharantz tiratu gabe. Guztiz bestela, azken bi urteetan toleranteen taldea are toleranteagoa da.
- Pertsona anbibalenteen multzoa 49-56 bitarteko puntuazioan ibili da segida osoan. 2009an oso talde handia zen, baina badirudi azken garaian egonkortu eta EAEko gizartearen % 40 inguru biltzen duela. 2015ean ia 2014ko bolumena mantentzen du (pixka bat handiagoa da) eta antzeko tolerantzia-mailari eusten dio (pixka bat txikiagoa). 2014ko datuen aldean, anbibalenteen taldetik toleranteen taldera joandako pertsonen ondorioz 6 puntu egin du behera. Alegia, taldea utzi duten pertsona horiek atzerriko immigrazioarekiko jarrera hobetu dute. Ildo beretik, baina beste aldean, pertsona uzkurren taldetik jende berria erantsi da talde honetan (7 puntu gehiago). Pertsona horiek ere, uzkurren taldean zeudenetik hona immigrazioaren aldeko jarrera hobetu eta uzkur izatetik anbibalente izatera igaro dira. Eta, talde batetik besterako joan-etorri horien gainetik ere, anbibalenteen taldeak tolerantzia-mailari eutsi dio.

58. grafikoa. Talde nagusien tamaina. 2015



Iturria: egileek egina.

59. grafikoa. Talde nagusien tamainaren bilakaera, 2015



Iturria: egileek egina.

- Pertsona uzkurren taldea 30-32 puntu bitartean ibili da segida osoan. 2015ean, tarte horretako puntuaziorik baxuenetako bat bildu du (31,27 puntu), baina kopuruari erreparatuta, beherakada nabarmena jasan du (7 puntu gutxiago). Hartara, segida osoari erreparatuta, 2015ean bildu du jende gutxien: EAEko gizartearen % 15 inguru. Itxura guztien arabera, talde hori polarizatzen ari da: gutxi dira, geroz eta gutxiago (2 urtetan 15 puntu

behera egin du jende kopuruan), baina jarrerak geroz eta muturragokoak dira tolerantzia-  
ren eskalan. Hau da, atzerriko immigrazioaren aurreko diskurtso, jarrera, sinesmen, iritzi,  
pertzepzio eta jokabideak geroz eta intoleranteagoak dira talde honetan.

2015. urtean toleranteen eta uzkurren taldeen arteko etena handitu egin da. Are gehiago,  
2012ko etena bera gainditu du: orduko hartan 38 puntuko aldea egon zen, eta 2015ean 40 pun-  
tuko aldea egon da.

Indizeko 65 itemak multzokatu ditugun 10 eremuetan lortutako puntuazio partzialen arabera  
zehaztu dugu pertsona bakoitza zein taldetakoa den, eta pertsonak talde batean eta bestean  
zuzen banatu ditugula egiaztatzeko, analisi bereizle bat egin dugu, aurreko urteetan bezala.

Aldagai anitzeko analisi-mota horrek, sailkapena egiteaz gain, aukera ematen digu jakiteko giza-  
banako bakoitza dagokion taldean zuzen banatu dugun ala ez. Kasu honetan, gizabanako bakoit-  
zak aztertutako hamar eremuetako bakoitzean lortutako puntuazioak dira aldagai askeak, eta  
talde bateko edo besteko (tolerante, anbibalente, uzkur) kide izatea da mendeko aldagaia. Nahiz  
eta jakin analisi horrek aukera eman digula gure usteak berresteko eta gizabanakoak taldeka  
zuzen banatu ditugula egiaztatzeko, azter ditzagun aurrez funtzio bereizleak, gizabanako bakoit-  
za talde batean edo bestean modu egokian banatzeko aukera ematen dutenak.


Bi funtzio bereizleen azterketak argi uzten du biak ere bereizleak direla, baina lehenak (horrek  
azaltzen du bariantzaren % 97,3) bigarrenak baino lan bereizle nabarmen handiagoa egiten  
duela (bariantza osoaren % 2,7 soilik azaltzen du bigarrenak). I. Funtziorako .914 eta II.  
Funtziorako .353 korrelazio kanonikoek eta Wilks eta Chi lambda karratuko kontraste erabat  
esanguratsuek (es. 0.000), adierazten dute bi aldagaiak direla bereizleak edo esanguratsuak,  
nahiz eta bigarrenak korrelazio ertaina-baxua izan eta aldakortasuna azaltzeko laguntza handirik  
ez eman.

Funtzio bakoitza osatzen duten aldagaiei dagokienez, egiturazko matrizearen analisiak adieraz-  
ten du hauek direla aldagai guztiak:

- Lehen funtzio bereizleak ia arlo guztiak biltzen ditu, baina lehen funtzio horretan, hauek  
dira, batez ere, eremurik bereizleenak: estereotipoen pertzepzioa, atzerriko immigrazioak  
euskal gizartearengan duen eragin globala, eta atzerriko immigrazioak dituen ondorio eko-  
nomikoak. Eta beste hauek ere funtzio horretan esku hartzen dute: eskubideak eskuratzeko  
ari buruzko pertzepzioa, immigrazio-politikari buruzko iritzia, immigrazioaren bolumenari  
buruzko pertzepzioa eta bizikidetzako espazioen inguruko pertzepzioa.
- Arlo bakar batek osatzen du bigarren funtzioa: atzerriko immigrazioak EAEko gizartean  
dituen ondorio kulturaren inguruko pertzepzioak.

Lehen funtzioak toleranteen taldea bereizten du pertsona uzkurren taldearekiko, eta bigarren  
funtzioak anbibalenteen taldea bereizten du pertsona uzkurren taldearekiko eta (batez ere) tole-  
ranteen taldearekiko. Edonola ere, badirudi bi funtzioek ondo asko diskriminatzen dituztela hiru  
taldeak; izan ere, azterketa diskriminatzaileak pertsonen % 97 inguru sailkatzen du modu egokian  
eta zuzen (taldekatutako kasu originalen % 97,3 eta balidazio gurutzatu bidez taldekatutako kasu  
balidatuen % 96,9 zuzen sailkatuta).

60. grafikoa. EAEko biztanle taldeen lurralde-mapa, 2015



*Iturria: egileek egina.*

Amaitzeko, erabaki genuen aztertzea zer aldagai soziodemografiko, sozioekonomiko, ideologiko-identitario, harremanei loturiko eta psikosozial eta horien arteko zein multzo dauden lotuago talde batekoa edo bestekoa izatearekin. Hau da, zein ezaugarri lotzen diren modu esanguratsuan pertsona tolerante, anbibalente eta uzkurren taldeekin. Horretarako, kontingentzia-etaulak eta korrespondentzia sinpleen AFC analisi faktoriala erabili ditugu (61. grafikoa), oso irtenbide grafiko argigarria eta intuitiboa eskaintzen dutelako, eta koherentea aurreko atalean deskribatutako tipologiaren profilekin. Aurreko barometroetan lortutakoen antzeko profilak lortu ditugu oraingo honetan ere.


Hala, behin AFCn egiaztatuta Chisquareak estatistikoki balio esanguratsua duela ( $\text{ChiSquare} = 781,542$ , es. 0,000), eta ezaugarrien eta pertsona tolerante, anbibalente eta uzkurren taldeen arteko loturak adierazten dituela, honako lotura hauek antzeman ditugu:

- Pertsona toleranteen taldea: batez ere gizonezkoak dira, bigarren mailako ikasketak eta erdi-mailako eta goi-mailako unibertsitate ikasketak dituzte, gazteak dira (18 eta 29 urte bitartekoak), Gipuzkoan bizi dira, 5.000 eta 150.000 biztanle bitarteko udalerrietan, euskaraz hitz egiten dute, agnostikoak dira, edo ateoak edo erlijioarekiko axolarik ez dutenak, ezkerrekoak eta zentro-ezkerrekoak, euskal abertzaleak dira, beren ekonomia-egoerarekin gustura daude, beren familia-unitateak 2.500 eurotik gorako sarrerak ditu, lanean daude

edo ikasleak dira, estatus sozioekonomiko erdi-mailako altukoak edo altukoak dira, krisiaren ondorio arinak jasan dituzte, baikorrak dira, etorkizuneko aurreikuspen onak edo normalak dituzte, bertoko jendea nagusi den auzoetan bizi dira, eremu pribatuan noizbehinkako harremanak dituzte etorkinekin, eta harreman handia dute etorkinekin eremu publikoan eta aisialdian.

### 61. grafikoa. Korrespondentzia sinpleen analisisa

Taldeen posizionamenduaren mapa, 2015



*Iturria: egileek egina.*

- Anibalenteen taldea (ezaugarri bateratu batzuk ditu toleranteen taldearekin, eta beste ezaugarri bateratu batzuk uzkurren taldeko pertsonekin): pertsona helduak dira (64 urtetik gorakoak), ikasketarik gabeak edo lehen mailako ikasketadunak, Araban bizi dira, 5.000 biztanletik beherako udalerrietan, katolikoak dira, elizkoiak izan ala ez, ez dute euskaraz hitz egiten, zentroko edo eskuineko ideologia dute, euskaldun bezain espainiar sentitzen dira edota nazionalismoak ez zaizkiela axola diote, erretirodunak edo langabeak dira, beren egoera ekonomikoarekin ez daude ez gustura eta ez disgustura, familia-unitatean hilean 1.800-2.500 €-ko diru sarrerak dituzte, estatus ertaina edo baxua dute, ezkor samarrak dira, ez dute etorkinekin inolako harremanik eremu pribatuan, eremu publikoan eta aisialdian.

- Uzkurren taldea: emakumeak dira, adinekoak (65 urte eta gehiago), lehen mailako ikasketak dituzte edo ikasketa gabeak dira, Bizkaian bizi dira, 5.000 biztanletik beherako udalerrietan edota hiriburuetan, katolikoak dira (berdin elizkoiak edo ez-elizkoiak), ez dute euskaraz hitz egiten, eskuineko edo zentroko ideologia dute, nagusiki espainiar sentitzen dira, nazionalista espainiartzat dute beren burua, etxekoandreak eta langabeak dira, euren egungo egoera ekonomikoarekin disgustura daude, familian 1.800 €-tik beherako diru-sarrerak dituzte hilean, estatus sozioekonomiko baxua dute, krisiak gogor edo normal kolpatu ditu, ezkorrak dira, etorkizunarekiko aurreikuspen txarrak dituzte, etorkinak eta bertokoak nahasten diren auzoetan bizi dira, ez dute immigratzaileekin inolako harremanik eremu pribatuan, publikoan eta aisialdian.

AFC honetan, soilik hiru kategoriako aldagai batekin lan egiten dugunez (pertsona taldeak), bi dimentsio baino ez ditugu atera analisi horretatik, eta bariantzaren % 100 azaltzen dute bi dimentsio horiek. Egia esan, lehen dimentsioak azaltzen du ia bariantza osoa (% 84,5), eta bigarrenak azalpen-balio oso txikia du (gainerako % 15,5).



## 5. Ondorioak

2015eko barometro honetan jaso eta aztertutako datuak aintzat hartuta, uste dugu garrantzitsua dela honako ondorio hauek azpimarratzea:

1. Nabarmendu egin behar da batik bat 2012an EAEko gizartearen pertzepzio, diskurtso, jarrera eta iritzietan egon zen atzerakadaren ondoren, 2015eko erantzunek atzerriko immigrazioarekiko tolerantzia-mailaren gorakada nabarmena adierazten dutela. Izan ere, 2015ean 2014ko posizioak ere hobetu ditugu, tolerantzia-indizean 58,04 puntu eskuratu.
2. Nolanahi ere, aurreko urteetan antzemandako argi-ilun nagusiek bere horretan diraute. EAEko gizartearen kontraesankorra eta anibalentzia da: gauza batzuetan oso irekiak, tolerantziak eta solidarioak gara, baina beste gauza batzuetan jarrera uzkurra adierazi eta ezkortasunez eta mesfidantzaz jokatzeko dugu.
3. Datuei erreparatuta, agerikoa da gure tolerantzia-indizea etorkizunarekiko dugun konfiantzarekin edo mesfidantzarekin, baikortasunarekin edo zalantzarekin lotuta dagoela. Horixe ikusi dugu azken urteetan (2013-15) eta horixe ikusi genuen krisiaren hasieran (2009-12): krisia handitu ahala tolerantzia behera egin genuen, eta krisitik irteten garen heinean tolerantzia gora egiten dugu. Gure zeru-muga argitzen den heinean, jarrera, diskurtso, jokabide eta portaera tolerantziagoak har ditzakegu.
4. Gure datuek egiaztatzen dute atzerriko immigrazioaren fenomenoaren normalizatzen ari dela: lan arloan, ekonomian eta etikan (ustelkeria politikoan) kezka handiak izan arren, euskal gizarteak ez du, inolaz ere, immigrazioaren gaia arazotzat hartzen.
5. Hala ere, nabarmena da euskal gizartearen sumatzen den kezka eta errezeloa, batik bat bizikidetzaren ereduarekin. Ilde beretik, azpimarratzekoa da EAEko gizartearen atzerriko immigrazioaren estereotipo negatiboarekiko izan den hobekuntza. Berriz ere azpimarratzen dugu gizarte-aniztasunaren kudeaketa geroz eta garrantzitsuagoa izango den honetan (integrazio-prozesuak, bizikidetzaren berdintasuna, gizarte-koherentsia, diskriminazioaren eza), are garrantzi handiagoa duela talde buruzagien (ekonomia, politika, gizarte eta kultura zuzentzen dutenen) eginkizunak, prozesu horiek arrakastaz burutzen lagunduko duten erreferentzia izango direlako.

6. EAEko biztanleria hiru taldetan edo multzotan banatuta (toleranteak, anbibalenteak eta uzkurak), 2015ean honako aldaketa hauek ikusi ditugu: a) tolerantteen multzoan jende gehiago sartu da (anbibalenteen taldetik etorritako 10 puntu gehiago 2013tik hona) baina tolerantzia-mailari eutsi eta hobetu ere egin du, halere; b) anbibalenteen taldeak gorantz joandako jendea galdu du (ia 6 puntu joan dira tolerantteen taldera) baina behetik etorritako jendea eskuratu du, ia 7 puntu etorri baitzaizkio uzkurren taldetik, baina tolerantzia-mailan oso gutxi galduta; c) uzkurren taldeak 7 puntu galdu ditu, anbibalenteen taldera joandako jendearen ondorioz, eta jende-galera horrek atzerriko immigrazioarekiko tolerantzia-mailan behera egitea eragin du. Badirudi muturreko jende intolerantea baino ez dela geldituko talde horretan.
7. Pertsona tolerantteen, anbibalenteen eta uzkurren arteko etena handitu egin da 2015ean: EAEko gizartea, oro har, tarteko eremuan gelditzen da (58,04 puntu), tolerantteen taldea 72,35 punturaino iristen da, anbibalenteak 52,74 puntu lortu ditu eta uzkurren taldea 31,27 puntu eskasetan gelditzen da.
8. Urte pare batean izan ezik, ohikoa bihurtu den bezala, pertsonen prestakuntza-maila da jokabideak gehien bereizten dituen aldagaia, jokabide, jarrera eta sinesmenak iragartze-ko ahalmen handiena duena. Zenbat eta prestakuntza-maila handiagoa, orduan eta tolerantzia-maila altuagoa; zenbat eta prestakuntza-maila txikiagoa, orduan eta jarrera, iritzi eta jokabide intoleranteagoak.
9. 2015eko barometroko datuen arabera, immigrazioaren aurrean tolerantzia-maila txikien dutenen artean hiru profil bereiz daitezke: 1) modu objektiboan eta subjektiboan, norberaren eta gizarte-arloko egoerari dagokionez, ahultasun handiko egoeran daudenak (kualifikazio-maila txikia, kalitate txikiko lana, diru-sarrera txikiak, gogobetetze-maila txikia ekonomiar dagokionez, etorkizunari begira ziurgabetasun handia eta oso ezkorak diren pertsonak); 2) ideologiari dagokionez, nortasun autoritarioa eta dogmatikoa duten pertsonak (helduenak, erdiko edo eskuineko ideologia politikoa dutenak, gehienbat espainiar sentitzen direnak, nazionalista espainiarrak direla aitortzen dutenak, eta katolikoak –elizkoiak edo ez–); 3) atzerritarrekin harremanik ez duten pertsonak, EAEko gizartearen aniztasune-kin kanpo gelditzen direnak (ez dute harremanik atzerritarrekin ez eremu pribatuan, ez publikoan, ez eremu fisikoan eta ez aisialdian).



## ERANSKINA

Honako hauek dira arlo bakoitzari esleitutako aldagaiak eta egin ditugun haztapenak:

- **BOLUMENA.** Etorkinen bolumenaren pertzepzioa, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria
  - 3. galdera: Otik (gehiagi), 1 (nahikoa), 2 (kopuru egokia) eta 3ra (gutxi edo ez dira nahi-koa) kodetua,
  - 5. galdera: Otik (gehiagi), 1 (nahikoa), 2 (kopuru egokia) eta 3ra (gutxi edo ez dira nahi-koa) kodetua,
  - 4. galdera: Otik (% 30 baino gehiago), 1 (% 21-30), 2 (% 11-20), 3 (% 6-10) eta 4ra (% 0-5) kodetua.
- **ARAZOA.** Arazotzat hartzea, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria
  - 1. galdera: Otik (arazoa 1. aipamenean), 1 (arazoa 2. aipamenean), 2 (arazoa 3. aipamenean) eta 3ra (ez da aipatzen) kodetua,
  - 2. galdera: Otik (arazoa 1. aipamenean), 1 (arazoa 2. aipamenean), 2 (arazoa 3. aipamenean) eta 3ra (ez da aipatzen) kodetua,
  - 23. galdera: Otik (arazoa 1. aipamenean), 1 (arazoa 2. aipamenean), 2 (arazoa 3. aipamenean) eta 3ra (ez da aipatzen) kodetua,
- **EKONOM.** Ekonomian dituen eraginak, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria
  - 6a galdera: Otik (erabat ados), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat kontra) kodetua,
  - 6c galdera: Otik (erabat kontra), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat ados) kodetua,
  - 6e galdera: Otik (erabat kontra), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat ados) kodetua,
  - 18j galdera: Otik (erabat ados), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat kontra) kodetua,
  - 24a galdera: 0 (bai) eta 2 (ez) kodetua,
- **EUSKGIZARTEA.** Euskal gizartean dituen eraginak, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria
  - 18e galdera: Otik (erabat ados), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat kontra) kodetua,
  - 22e galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
  - 22b galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
  - 22c galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
  - 22d galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
  - 24e galdera: 0 (bai) eta 2 (ez) kodetua,
- **ERAGINAK.** Eraginak guztira, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria
  - 8. galdera: Otik (okertu egin da), 0,5era (berdin gelditu da) eta 1era (hobetu egin da) kodetua,
  - 18k galdera: Otik (erabat kontra), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat ados) kodetua,
  - 24b galdera: 0 (bai) eta 1 (ez) kodetua,
  - 24c galdera: 0 (bai) eta 1 (ez) kodetua,
  - 24d galdera: 0 (bai) eta 1 (ez) kodetua,
  - 25. galdera: Otik (negatiboak) 4ra (positiboak) kodetua.
- **BIZIKIDETZA.** Bizikidetza-ereduak, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria
  - 18a galdera: Otik (erabat kontra), 0,25, 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat ados) kodetua,
  - 18b galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,

- 18c galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
- 18g galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat kontra) kodetua,
- 18h galdera: Otik (erabat kontra), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat ados) kodetua,
- 18i galdera: Otik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
- ESTEREOT. Estereotipoak, Otik 10erako eskala, honako hauen batukaria
  - 6g galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua,
  - 6h galdera: O (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua,
  - 6i galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua,
  - 6j galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua,
  - 13a galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua,
  - 13b galdera: Otik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua,
